EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



# Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean

## 1 Haur eta lehen hezkuntza

# Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean

## 1 Haur eta lehen hezkuntza


**BERRITZEGUNEAK**

**Aholkulariak: "Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna"**
Marily Yarritu Polancos (B04 Lehen Hezkuntza)
Begoña Iturgaitz Rodríguez (B08 Lehen Hezkuntza)
Gloria Rey Villanueva (B06 Lehen Hezkuntza)
Begoña Valiente Lecuona (G06 Haur eta Lehen Hezkuntza)
Koro Lete Lete (G03 Haur eta Lehen Hezkuntza)

**Berritzegune Nagusiko aholkulariak: "Eskola inklusiboa eta HPB"**
Belén Odriozola Albizu
Isabel Galende Llamas

**IKASLE GORREN KOORDINATZAILEAK**
Guillermo Azkarate Maturana (Gipuzkoa )
Marisol Hornas García (Araba )
Kesare Calzacorta Arteta (Bizkaia)

**IRAKURKETA KRITIKOA**
Javier Granja Pascual
Berritzegune Nagusiko hizkuntza-arloko aholkulariak



EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

**Vitoria-Gasteiz, 2013**

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke:
http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac

Argitaraldia:
1.a, 2013ko urtarrila

Ale-kopurua:
600 ale

©
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Internet:
www.euskadi.net

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 010010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa:
Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua.

L.G.: VI 024 - 2013

# Aurkibidea


## LEHENENGO ATALA: IKASLE GORRAK HIZKUNTZEN CURRICULUMEAN TXERTATZEA

**1. SARRERA** 9

**2. ALDAGAI BEREIZGARRIAK** 10

2.1. Gorreria eta entzumen-galera kontzeptuak 10
2.2. Entzumena galtzen den unea 11
2.3. Entzumen-galeraren kokapena 11
2.4. Entzumen-galeraren maila 12
2.5. Entzumenaren funtzionaltasuna banakako laguntza teknikoen bidez 12

**3. ENTZUMEN GALERAREN ONDORIO OROKORRAK** 14

**4. IKASLE GORRARI EMANDAKO HEZKUNTZA ERANTZUNAREN EZAUGARRI OROKORRAK ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN** 16

**5. IKASLE GORRAK HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAREN AURREAN**

5.1. Irakurmena eskuratzea 19
5.2. Idazmena eskuratzea 20
5.3. Elebitasuna (ahozko hizkuntza / zeinu-hizkuntza) 21
5.4. Beste hizkuntza batzuen ikaskuntza 22

**6. EREDU PROGRAMAREN XEDE DIREN IKASLEAK** 24

**7. CURRICULUMA ESKURATZEKO PLANTEATUTAKO NEURRIAK** 26

**8. GLOSARIOA** 33

**9. BIBLIOGRAFIA** 35

## BIGARREAN ATALA: IKASLE GORRAK HIZKUNTZEN CURRICULUM ARRUNTEAN TXERTATZEKO EREDU PROGRAMA

**HAUR HEZKUNTZA** 39

HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA 39

**LEHEN HEZKUNTZA** 47

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA. GAZTELANIA ETA LITERATURA 53

ATZERRIKO HIZKUNTZA 77

# Lehenengo atala

## Ikasle gorrak hizkuntzen curriculumean txertatzea

# 1. Sarrera

Ikasle gorren Lurralde arteko Batzorde Teknikoko kideok uste dugu Ikasle gorrak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako hizkuntzen curriculumean txertatzeko eredu-programa baten Lanketa Proiektua beharrezko elementua dela, bai inplikatutako ikasleentzat eta bai ikasle horiek eskolatuta dauden ikastetxeetako profesionalentzat.

Garrantzi handiko proiektu bat da, hiru faktore lotzeko ahalegina egiten baitu, lotura hori egitea zaila den arren. Lehenik eta behin, entzumenaren galerak norbanakoaren hizkuntza-garapenerako dituen ondorioak. Bestalde, norbanako horrek hezkuntza- eta gizarte-inguruko hizkuntzak eskuratzeko duen aukera, eta, azkenik, ikasleen heterogeneotasuna, honako aldagai hauek kontuan hartuta: entzumenaren galeraren maila, galera hori zenbat urterekin hasi zen, entzumen-funtzionaltasuna, etab. Ezaugarri horiek guztiak kontuan izanda, norbanako bakoitzaren erantzuna desberdina eta bakarra izango da.

Esate baterako, lokuzio-aurreko gorreria sakona duen ikasle batek, Lehen Hezkuntzako ibilbide akademikoaren hasieran, 200 hitz ezaguneko hizkuntza-euskarria izango du (Marschak, 1993; Paul, 1996); horrez gain, irakurtzen ikasteko prozesua abiatzearekin batera, ahozko ikaskuntzarekin jarraitu behar du (lehen hizkuntza), eta beste hizkuntza batzuk (bigarren hizkuntza edo hirugarren hizkuntza) bai ahoz eta bai idatziz barneratzeko zailtasuna begien bistakoa da.

Halaber, ikuspegi morfosintaktikotik, entzuten duen ikaslearekin alderatuta, ikasle gorraren ezaguera oso pobrea da; entzuten duen ikasleak, irakurtzen hasten denean, hizkuntza-masa kritikoa du, eta, horri esker, linguistikoki «hazten» jarrai dezake. Gorreria duten ikasleak sorgin-gurpilean murgiltzen dira, izan ere, modu naturalean barneratzen duten hizkuntza-corpusa –entzumenaren bidez– nahiz programatutako ikaskuntzaren bitartez egingo luketen ikaskuntza autonomoa urria da.

Lokuzio-aurreko gorreria sakona duten ikasleen kasuan, hizkuntza-ikaskuntza guztiak asmo sendoz programatu eta transmititu behar dira, eta oso gutxi gertatzen dira bat-batean.

Ikasle horiek gaitasun kognitibo ukigabeak dituzte, eta, beraz, curriculumeko ezagutzak eskuratzeko eta garatzeko, ahozko hizkuntzez gain, zeinu-hizkuntza ere erabil dezakete. Horregatik, ahozko hizkuntza – zeinu-hizkuntza elebitasunaren eta hizkuntza guztiak ahozkoak direnen arteko ezaugarri desberdinak zehaztea merezi du.

Entzumen-gabeziak ahozko hizkuntzak ikasteko orduan sortzen dituen zailtasunak begien bistakoak dira, eta prozesu hori are gehiago nahasten da curriculum arrunteko gainerako ahozko hizkuntzak txertatzen direnean. Horrek dituen inplikazioei buruz gogoeta egiteko, aurkezpen honetan, gorreria duten ikasleen eta horiek curriculumaren garapenean dituzten inplikazioen ezaugarriei buruzko gogoeta teoriko bat txertatu da.

# 2. Aldagai bereizgarriak

## 2.1. Gorreria eta entzumen-galera kontzeptuak

Gorreria izen orokorraren barruan biltzen ditugu entzumen-galerari dagozkion maila eta mota guztiak. Gorreria, entzuteko desgaitasuna eta hipoakusia terminoak sinonimotzat hartzen dira askotan, eta entzumen-galera arin zein sakonetarako erabiltzen dira.

Azken urteetan, entzuteko desgaitasunaren esparruan erabiltzen den terminologia zehaztu egin da, entzumenaren erabateko galera –kofosia– batere arrunta ez dela eta hondar-entzumen mailaren bat egon daitekeela nabarmentzeko. Ikuspuntu horrek eragina izan du baita ere «entzumen-galera» terminoa erabiltzeko; batzuetan, termino hori eufemismo moduan erabiltzen da, «gorra» edo «ikasle gorrak» hitzak ez erabiltzeko, izan ere, zenbaiten ustez konnotazio negatiboak dituzte hitz horiek. Hala ere, pertsona askoren ustez, entzuten duen gizartearen beraren aurreiritziak dira horiek, eta pertsona gorren[1] taldeak berak taldearen nortasun-zeinutzat hartzen du.

Ikuspegi audiologiko horrekin jarraitzeko, Monfort eta Juárez (2001) egileek hondar-entzumenarekin eta horren ahalmenarekin lotutako sailkapena egin zuten, eta sailkapen hori asko erabiltzen da entzumenaren errehabilitazioaren esparruan. Sailkapena honako hau da:

- *Entzumen arrunta*. Mintzairako edozein soinu ezagutzen du eta imitatzen du, zentzua kontuan izan gabe. Entzumen maila hau duten haurrek mintzairako bokal- eta kontsonante-hots guztiak ondo hautemateko adierraztasun nahikoa dute.
- *Entzumen funtzionala*. Hitz eta esaldi ezagunak entzuten dituzte, testuinguruaren laguntzarik gabe. Mintzairako bokal-hotsak ondo hautematen dituzte, eta baita kontsonante-hots asko ere, baina ez dute entzumen-bereizketa nahikoa adierraztasun nahikoaz ezagutzeko, batez ere hitza luzea bada edo soinuak silaba azentugabean eta beste kontsonante-hots baten ondoan edo hitz baten bukaeran esaten badira. Osaera fonetiko oso antzekoa duten hitzak bereizteko zailtasunak dituzte.
- *Hondar-entzumena*. Ahozko hizkuntza hobeto ulertzeko, ezpainak irakurtzen dituzte eta testuinguruaren laguntza behar dute. Soinuak identifika ditzakete eta hitzak elementu prosodikoei esker bereiz ditzakete, hala nola luzerari edo intentsitateari esker, baina oso zaila da osagai fonetikoengatik bereiztea.

[1] Gorren komunitatean, zenbaitzuek ondoko bereizketa hau egiten dute: gorreria audiologikoari "g" xehea esleitzen diote, hizkuntza- eta kultura-entitatea adierazten duen Gorreriari, berriz, "G" larria. Alde horretatik, gorren komunitate terminoak irizpide soziolinguistikoak ditu, eta hainbat kontzeptu hartzen ditu barnean: pertenentzia, parte-hartzea eta faktore kulturalak. Alde horretatik, "pertsona gorra, entzumen-galera alde batera utzita, gorren komunitateko kide sentitzen dena da, gorren hizkuntza ezagutzen duena eta haien ezaugarriak partekatzen dituena; ezaugarri horiek ikus-esperientziak hartzen duen funtzio nagusiarekin lotuta daude". Andersson, Y. (1989): The Deaf World as A Linguistic Minorit"**.** In: Sign Language Research and Application. Proceedings of the International Congress on Sign Language Research and Application, Hamburg: signum-Press, 155-161.

## 2.2. Entzumena galtzen den unea

Gaitzaren une ebolutiboaren garrantzia haur gorrak lortutako hizkuntza-gaitasunaren arabera mugatu da.

Hala, gaitzaren unearen arabera, honela sailka daiteke:

- *Lokuzio-aurrekoa:* ahozko hizkuntza barneratu aurrekoa.
- *Lokuzio ondokoa:* ahozko hizkuntza barneratu ondorengoa. Begien bistakoa da, kasu honetan, zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta handiagoak izango direla ahozko hizkuntzak finkatzeko hizkuntza-oinarriak. Oro har, gorreria hizkuntza barneratu ondoren gertatzen bada, ez dira arazoak sortzen hizkuntza-gaitasunean, baina pertsonak zailtasunak izan ditzake ezpainen eta aurpegien irakurketa ikasteko orduan edo norberaren kontzeptuan eta nortasun pertsonalean (N. Silvestre, 1998).

Hala ere, ikerketek hizkuntza barneratu aurreko aldiei ematen dieten garrantzia kontuan hartuta, lokuzio-aurreko gorreriari dagokion lehenengo taldearen barnean honako hauek bereiz daitezke: jaiotzetikoak direnak eta bizitzako lehenengo urtean sortutakoak. Azken talde horretako pertsonek ikaskuntza komunikatibo eta fonologiko batzuk egin dituzte, eta, aurrekoekin alderatuta, azken horien egoera desberdina da ahozko hizkuntza ikasteko orduan: intonazioaren balioa ezagutzen dute, badakite hitzek esanahi bat dutela, etab. Dena den, garrantzitsutzat jotzen da baita ere entzumen-galera hautemateko unea, bai eta errehabilitatzeko arretaren hasiera ere.

## 2.3. Entzumen-galeraren kokapena

*Transmisio-gorreria*

Soinua airearen bidez transmititzeko edo garraiatzeko funtzioan nahasmendua izatearen ondorioz sortutako entzumen-galerak kanpoko edo erdiko belarrian kokatzen dira. Gorreria horiei transmisio-hipoakusia esaten zaie. Hainbat arrazoiren ondorioz gertatzen dira.

Entzumen-galera horien kasuan, haurrak ahozko diskurtsoari jarraitzeko zailtasun handiak izan ditzakeen arren diagnostikoaren edo tratamenduaren ondoren ere, ehuneko handi batean, entzumena arrunta berreskura daiteke.

Berorien prebalentzia handiena bi urtetik sei urtera bitartean gertatzen da, eta diagnostiko goiztiarra egitea garrantzitsua da hezkuntza-sistemarentzat, aldi ebolutibo horretan gertatzen diren ahozko ikaskuntzak nahiz ikaskuntza idatziak kontuan hartuta.

*Pertzepzio-gorreria, zentzumen-gorreria edo gorreria neurosentsoriala*

Nahasmendu horiei hipoakusia koklearrak ere esaten zaie, zelula ziliatuetan (koklean daude) soinuaren transdukzioan nahasmenduak daudelako. Nahasmenduren bat gerta daiteke, halaber, NSZan, soinu-sentsazioaren pertzepzioari dagokionez, entzumen-bidearen zatiren bat kaltetuta dagoelako; kasu horretan, koklea atzeko hipoakusiak izango dira.

Ikasle gor horiei zuzentzen zaie nagusiki berariazko hezkuntza-baliabideen nahiz hezkuntza-baliabide arrunten esku-hartzea.

*Gorreria mistoa*

Zenbait kasutan, aldi berean gerta daiteke gorreria neurosentsoriala eta transmisio-gorreria.

*Gorreria zentrala*

Zenbait egilek laugarren tipologia hau aipatzen dute, eta garuneko entzumen-zentroetako lesioak aipatzen dituzte soilik. (J. Peña Casanova, L. Barraquer Bordas, M. A. Surís Jordá, 1981[2]; Valmaseda eta Díaz-Estébanez, 1999).

## 2.4. Entzumen-galeraren maila

Aldagai hau oso garrantzitsua da, eta ondorengo azpi-motak sailka daitezke:

- *Entzumen arrunta:* 0 eta 20 dB artekoa.
- *Entzumen Galera Arina (EGA):* 20 eta 40 dB artekoa. Hizkeraren pertzepzio orokorra, toki jakin batzuetan kokatutako zenbait fonemaren kasuan eta oso intentsitate baxuko emisioetan edo ezkutatuta dauden kasuetan izan ezik. Nahasmendu artikulatorioren bat ere ager dezakete, dislalia audiogenoena adibidez.
- *Entzumen Galera Ertaina (EGE):* 40 eta 70 dB artekoa. «Elkarrizketaren eremua» (Lafon, 1987) dago arriskuan. Mintzairaren pertzepzio orokorra lortzeko audifonoen egokitzapen ona behar da.
- *Entzumen Galera Larria (EGL):* 70 eta 90 dB artekoa, batez beste. Entzumen-galera larria duen pertsonak mintzairaren elementu suprasegmentarioak hauteman ditzake, baina entzumenaren bidez jasotzen dituen elementuak ezpainen eta aurpegiaren irakurketarekin osatu behar ditu; hori guztia audifonoaren laguntzari esker eta entzumenaren entrenamenduari esker lor daiteke.
- *Entzumen Galera Sakona (EGS):* 90 dB baino gehiagoko galera, batez beste. Hizkuntzaren pertzepziorako, garrantzi handia hartzen dute estimulazio bibratilak eta bisualak. Audifonoen aplikazio egokiak aukera ematen du gehienetan subjektuaren emisioaren kontrola egiteko, eta, beraz, ekarpen garrantzitsua da mintzaira ulertzeko orduan (Silvestre, 1998). Dena den, audifono digitalen eta inplante koklearren belaunaldi berriei esker izugarri hobetu da irabazi protesikoa. [3]

## 2.5. Entzumenaren funtzionaltasuna banakako laguntza teknikoen bidez

Puntu honetan, banakako erabilera duten tresna teknikoak aipatzen dira –audifonoak eta inplante koklearrak–, alde batean edo bi aldeetan erabiltzen direnak eta norbanakoaren hondar-entzumenak erabiltzeko aukera ematen dutenak, bai inplanteen bitartez, bai audifonoen bitartez; tresna horiei esker, bestela lortuko ez litzatekeen entzumen-funtzionaltasuna lortzen da.

[2] J. Peña Casanova, L. Barraquer Bordas, M. A. Surís Jordá (1981): *Sordera Central*. Logopedia Fonoaudiológica, I. lib., 2. zk. (86-91).

[3] Irabazi protesikotzat honako hau hartzen dugu: audifono batek eskain dezakeen anplifikazio maila, sarrera maila desberdinetan eta pertsona bakoitzaren profil audiometrikoaren arabera. Audifono batzuek hainbat irabazi maila eskain ditzakete hainbat maiztasun-bandatan, hala, pertsona bakoitzaren entzumen-profilera hobeto egokitzeko.

Une honetan, laguntza tekniko horien erabilera orokortu egin da haurtzarotik, eta eskola-ikasleen entzumen-aukerak gero eta handiagoak dira. Laguntza tekniko bat erabiltzeak edo inplantatzeak ez dakar berarekin «entzumena berreskuratzea», entzuten duten pertsonek ulertzen duten moduan, behinik behin. Haur gorren kasuan, beharrezkoa da denboran iraungo duen prozesu gaitzaile egokia ezartzea. Entzumenaren funtzionaltasunaren hobekuntza horrek ondorio positiboak ditu ahozko hizkuntzaren garapenean.

## 3. Entzumen-galeraren ondorio orokorrak

Entzuteak etengabeko lotura ezartzen du norbanakoaren eta inguruaren artean, uneoro jakin baitaiteke zer gertatzen den inguru horretan, eta, horren aurrean, norbanakoak planifikatu egin dezake eta erantzun bat eman dezake. Halaber, segurtasuna sentiarazten dio pertsonari.

Entzuten diren zarata, soinu, berbalizazio edo adierazpen batzuek gure arreta erakartzen dute, eta aztertzera, ikertzera edo galdetzera eramaten gaituzte. Entzuteak jakin-mina pizten du, eta esperientzia eta informazio berriak eskuratzeko aukera ematen du.

Entzundakoaren bitartez, zer gertatuko den aurreratu daiteke, edo zer gertatu den ondoriozta daiteke, zarata bati esker, ahots-tonuari esker edo entzumenaren bidez iristen den ahozko adierazpen bati esker.

Entzumenaren bitartez, haurrak ahozko hizkuntza garatzen du, inguruko pertsonekin izaten dituen ahozko elkarrizketen bidez. Haurrak hitz egiten duenez eta esaten duena eta esaten diotena entzuten duenez, helduak eskaintzen dion eredu zuzenaren arabera egokitzen ditu bere ahoskera eta hizkuntza. Poliki-poliki, hitz batek esanahi bat baino gehiago izan dezakeela jabetzen da, eta zenbait adierazpide erreferentzia literalik gabe erabil daitezkeela ohartzen da. Hitzen esanahiaz gain, ahoskatzeko moduaz eta esaldiak ordenatzeko moduaz gain, haurrak ingurukoei entzuten die, eta jabetzen da testuinguruaren eta solaskidearen arabera desberdin hitz egiten dutela, eta hitzen esanahia aldatu egiten dela beroriei ematen zaien intonazioaren arabera. Ingurukoei entzunez mintzairaren erregistro desberdinak erabiltzen ikasten du, eta solaskideen, testuinguruen eta asmoen arabera gauzak modu batean edo bestean adierazten.

Entzumenak etengabe informazio berriak jasotzeko aukera ematen du, bai antolatutako irakaskuntzan, bai komunikabideen bitartez eta bai elkarrizketa informaletan. Informazio horrek berori jasotzen duen pertsonaren ezaguerak zalantzan jartzen ditu, birplanteatu egiten ditu, eta areagotu.

Hizkuntza da goi mailako funtzio kognitiboak garatzen dituen tresna, eta garapen emozionala eta gizarteko integrazioa errazten ditu. Hizkuntzaren bitartez, helduek irakatsi eta hezi egiten dute, eta haurrek ikaskuntzan parte hartzen dute, beren kideekin ideiak eta esperientziak erkatuz.

Entzumen-galera duten haurren kasuan, ikusmena esperientziak barneratzeko iturri garrantzitsutzat jotzen den arren, ez da inoiz gertatzen «*zentzumen-ordezkapen*» deritzona, hau da, entzumenaren galeraren ondorioz jasotzen ez den informazioa ez da ikusmenaren bidez jasotzen. Entzuteko zailtasunak dituen pertsona batentzat, ondo entzuten duen pertsonarentzat neutroak diren ikusizko estimuluek esanahia hartzen dute edo har dezakete, esate baterako, errezelen mugimenduak, zoruaren edo mahaiaren bibrazioak, etab.

Entzumena da urrutiko sentsazioak jaso ditzaketen bi zentzumenetatik inguruarekin etengabe lotzen gaituen bakarra; ez dago entzumenaren zentzua ixteko modurik, eta, ikusmenaren kasuan, aldiz, bai; horrez gain, esnaldiaren eta loaren zikloa daude. Entzumenak etengabe erne egotera behartzen gaitu.

Entzumenaren kasuan, ez da beharrezkoa soinua eragiten duen estimuluaren presentzia, eta, ikusmenaren kasuan, aldiz, presentzia hori beharrezkoa da. Oro har, entzumenaren bidez jasotzen dugun informazioa ikusi egiten dugu gero.

Halaber, entzumena denborarekin lotutako zentzumena da, hau da, estimuluek beroriek gertatzen diren denbora-ordenan hartzen dute zentzua; ikusmenaren kasuan, aldiz, nozio

espaziala eskaintzen du, hau da, estimuluen kokapen espazialari buruzko informazioa ematen du, bai eta norberaren kokapen espazialari buruzkoa ere.

Dena den, entzumena urruneko zentzumena da, eta pertsonaren inguruarekiko etengabe erne egoteko aukera ematen du; beraz, informazio-iturri garrantzitsuena da pertsonarentzat. Entzumenaren bitartez, norbanakoak ingurua kontrolatzen du, eta horri esker hartzen du zentzua. Entzumen-galeraren ondorioz, pertsonaren arreta erakarriko duten soinuen, zaraten, ahots-tonuen, adierazpenen eta abarren kopurua txikiagoa izango da.

Bestalde, entzumen-galeraren ondorioz, ahozko hizkuntza bide naturaletik, hau da, pertsonekiko bat-bateko elkarrerakintzetatik, barneratzeko aukera txikiagoa izango da; eta, gainera, norbanakoaren garapena bermatuko duten esperientzien kopurua eta kalitatea ere txikiagoa izango da.

Azken bi inplikazio horiek –lehena bigarrenaren ondorio da–, eta baita gaitasunen integritateak ere, pertsona gorra zaurgarri egiten dute, informazioa bi noranzkoetan eskuratzeko zailtasunaren erruz:

- Esperientzia eskuratzeko zailtasuna.
- Inguruko ahozko hizkuntzak garatzeko zailtasuna.

Vygotsky-k (1981) planteatutakoaren ildotik, pentsamenduaren eta hizkuntzaren artean interdependentzia dialektiko konplexua dago: hizkuntza pentsamendu da, eta pentsamendua hizkuntza bihurtzen da. Hizkuntzak gizarte-komunikazioari dagokion funtzioa betetzen du hasiera batean, eta, aurrerago, barneratu egiten du norbanakoak, jarduera intelektuala zuzentzeko eta antolatzeko. Bestalde, hizkuntzak berak gizarteko esperientzia kategorizatu egiten du eta forma ematen dio, hala, esperientzia horretatik urrundu ahal izateko. Horren ondorioz, ikasle gorren garapen kognitiboari ondoko bi inplikazio hauek eragiten diote: batetik, komunikatzeko kode baliagarri bat barneratzeko zailtasunak; eta, bestetik, aurre egin behar dien esperientziak kategorizatzeko zailtasunak.

Hala ere, komenigarria da azpimarratzea gorra izateak edo entzuteko zailtasunak izateak ez dituela gizartean egokitzeko zailtasunak inplikatzen. Komunikatzeko aukerak badituzte pertsona gorrek, bai eta komunikatzeko asmoa ere, baina, hala ere, beharbada ez dute nahikoa gaitasun inguruko hizkuntza-kodean.

## 4. Ikasle gorrari emandako hezkuntza erantzunaren ezaugarri orokorrak eskola inklusiboaren esparruan

Hezkuntzaren esparruan ezartzen diren irakasteko eta ikasteko prozesuak hainbat hizkuntzatako ahozko estrategietan oinarrituta daude funtsean. Estrategia horietan ikasleek nahiz irakasleek hartzen dute parte. Egoera bakoitzerako laguntza egokiena kontuan hartzeko, beharrezkoa da ondoko markatzaile hauek nabarmentzea (CREENA[4], 2006):

- Hizkuntza barneratzeko orduan jartzen den arreta, ikasle gorrak dituen arreta mailak balioetsiz.
- Zein azalpen ulertzen dituen hobeto: banakako azalpenak edo talde txikietan ematen direnak.
- Ikaskideek ematen duten informazioaren ulermena, informazio hori parte-hartzea kontrolatua den kasuetan soilik ulertzen duen edo informazioa edozein egoeratan jasotzeko gai den balioetsiz.
- Eskolako azalpenen jarraipen maila, zer ulertu duen egiaztatuz.
- Taldeko elkarrizketen edo eztabaiden jarraipena. Garrantzitsua da elkarrizketak eta eztabaidak jarraitzen dituen eta laguntza teknikoa nahiz pertsonaren baten laguntza behar duen egiaztatzea.
- Ahozko ulermena zaildu dezaketen faktoreak. Horretarako, garrantzitsua da honako hauek egiaztatzea:
    - *Aurpegira begiratzen die hitz egiten dien pertsonei.*
    - *Nahikoa arreta eskaintzen du, edo beharrezko denboran.*
    - *Beste zarata batzuk entzuten dira.*
    - *Ikasgelako argia egokia da ezpainen irakurketa errazteko.*
    - *Irakasleen eta ikasleen arteko distantzia egokia da.*
    - *Irakaslearen aurpegia ondo ikus dezake.*
    - *«Arreta zatitu»ari dagozkion egoerak planteatzen dira: ikasle gorrak ikusizko bi estimulu edo gehiago jasotzen ditu aldi berean, ikus-eremu zabalean, eta ikasleak guztiei zuzendu behar die bere arreta. Esate baterako, arbela digitalean egindako aurkezpen bat, irakaslearen ahozko azalpena eta, horrez gain, berariazko irakasleek zeinu bidezko hizkuntzan emandako azalpena.*
    - *Ikaslea azkar nekatzen da.*
    - *Azalpenak luzeak dira eta ikusizko laguntza gutxi ditu.*
    - *Hainbat pertsonak aldi berean hitz egiten dute.*

[4] CREENA (2006): *Alumnado con grave discapacidad auditiva en Educación Infantil y primaria. Orientaciones para la respuesta educativa.* Iruña. Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa.

Halaber, doikuntza eta laguntza hauek bultzatuko lukete gehien ikasgelako ahozko ulermena:

- Ikaslearen arreta erakartzea, begiratu dezan.
- Motelago hitz egitea, argiago ahoskatuz, baina gehiegikeriarik egin gabe.
- Azalpen laburrak ematea.
- Azalpen osagarriak ematea.
- Azalpenaren ideia nagusiak errepikatzea.
- Irakaslearen hizkuntza haurraren ulermen-aukeren arabera egokitzea (ohiko hiztegia eta esaldi errazak erabiltzea).
- Zeinu bidezko komunikazioa etengabe erabiltzea.
- Ahozko hizkuntzarekin batera terminoren bat azpimarratzeko edo argitzeko keinuak edo zeinuak erabiltzea.
- Azalpenekin batera ikusizko materiala eskaintzea (eskemak, diapositibak, power pointak).
- Erabiliko diren hitz nagusiak arbelean idaztea, edo azalpenaren eskema egitea.
- Elkarrerakintzarako egoerak ezartzea, binaka edo talde txikietan ahal bada.
- Kideen arteko laguntza antolatzea.
- Eztabaidetan arau jakin batzuk erabiltzea erritmoa eta txandak kontrolatzeko, hala, ikasle gorren parte-hartzea errazteko.

Azkenik, entzumen-galera duten ikasleen zailtasunetako bat talde handian egindako jardueretan gertatzen diren elkarrekintzen ingurukoa da. Talde handietan garatzen diren jarduera horietan parte hartzeko txandak errespetatzen ez badira, oro har, ikasle gorrentzat ezinezkoa da ikaskideek nahiz irakasleak adierazitakoa jasotzea. Helburu horrekin, hainbat gomendio egin nahi ditugu, baliabide metodologikotzat talde handiko lana erabiltzen denean kontuan hartzeko:

- Ikasle gorra toki egokian kokatzea, irakasleari eta arbelari zuzenean begiratzeko aukera izateko moduan eta, halaber, ikaskideen ikuspegi orokorra duela bermatzeko moduan, hala, parte hartzeko aukera izan dezan. Bigarren ilara toki egokia da.
- Planteatutako jarduera talde handian egin behar badute, «U» formako kokapena egokia izan daiteke.
- Jarduera hauetan, garrantzitsua da ikasle gorrak ikaskideek ikasgelan ematen duten informazioan parte hartzea; horretarako, beharrezkoa da ikaskideen esku-hartzeen erritmoa kontrolatzea, ikasle gorra galduta senti ez dadin. Zeinu-hizkuntzan aditua den irakasle baten laguntza izanez gero, horixe izango da irakasle horren egiteko bat, noski.
- Prozesua ahalik eta eraginkorrena izan dadin, gainerako ikaskideei ikaskide gorrak dituen zailtasunen berri ematea komeni da, eta esku hartzeko txandak errespetatu beharko dituzte, komunikazioa eraginkorragoa izan dadin.
- Eztabaidetan, garrantzitsua da parte hartzeko arauak azaltzea (entzutea – txanda eskatzea – gaiaren arabera esku hartzea – entzutea).

- Ikasleak ikaskideak ikusi egin behar ditu horiek hitz egiten dutenean. Laguntza teknikoren bat izanez gero –FM irrati-igorgailua, esate baterako–, ikaskideen artean eskuz esku ibiliko da, parte hartzeko txanda aldatzearekin batera.
- Eraginkorragoa da talde txikian egiten den lana talde handian egiten dena baino. Talde txikietan, ikasle gorrak ikaskideek ematen duten informazioa jaso dezake, seguruago sentituko da eta hobeto parte hartuko du prozesuan.
- Interesgarria da ideia nagusiak zuzenean adieraztea. Irakasle espezialistaren irudia egongo balitz, horixe litzateke berorren egiteko bat, hau da, taldeko kideek adierazitako informazioa helaraztea.

Laguntza osagarri teknikoak (FM irrati-igorgailua) nahiz beste pertsona batzuen (ikasle gorrei laguntzeko irakasleak, beste baliabide batzuk, etab.) laguntza behar diren balioetsi behar da.

# 5. Ikasle gorrak hizkuntzen irakaskuntzaren aurrean

## 5.1. Irakurmena eskuratzea

Beharrezkoa da esperientziekin eta egiaztatutako ikerketekin justifikatzea ikasle gorrek, irakurtzeko eta idazteko prozesu mekanikoak baino gehiago, ulertzeko prozesu mekanikoak eskuratzeko dituzten zailtasunak.

Irakurtzen ikastea ahozko hizkuntzaren gaitasunarekin lotuta dago, fonologiari dagokionez funtsean. Bestalde, irakurketa da norbanakoa autonomo bihurtzen duen tresna, ikaskuntzei dagokienez. Hala ere, ahozko hizkuntzan ez bezala –naturalki ikasten da, eskolan hasi aurretik–, irakurtzen eta idazten ikasteko irakaskuntza formala beharrezkoa da.

Entzuten duen haurra irakurtzen ikasten hasten denean eskolan, milaka hitz sortzeko eta ulertzeko beharrezko hizkuntza-gaitasuna du jada, eta hitz horiekin osa daitezkeen esaldi gehienak ezagutzen ditu, egitura sintaktiko konplexuenak menperatu ez arren.

Azken hogeita hamar urteotako datuak ugariak5 izan dira , eta, sistematikoki eta historikoki, haur gorrek irakurtzen eta idazten ikasteko prozesu mekanikoen ikaskuntzan zailtasunak izateaz gain, irakurtzeko orduan maila egokia eta funtzionala eskuratzeko arazoak erakutsi dituzte.

Alde horretatik, Gillot txostenak (1998)[6] datu esanguratsua ematen du: pertsona gorren % 80 alfabetatugabe funtzionalak dira gaur eta baita duela mende bat ere, hau da, ez dute ulertzen irakurtzen duten hizkuntza.

Ikasle gorrek lortutako emaitzei buruzko azterketa klasikoa egin zuen Conradek[7], 1979an argitaratutako lanean. Lan horretan, Ingalaterran eta Galesen 1974. urtetik 1976. urtera bitartean gorrei zuzendutako berariazko irakaskuntzan eskolatutako eta gorreria sakona zuten 15etik 16 urte eta erdi arteko gazte guztien irakurketa maila ebaluatu zuen. Azterketak erakutsi zuen gazte horietako bakar batek ere ez zuela bere adinari zegokion irakurketa maila; batez besteko maila Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren maila artekoa zen, eta % 15ek soilik lortu zuen Lehen Hezkuntzako seigarren mailari zegokion maila. Azken maila hori funtzionala dela esan daiteke, hau da, irakurketa informazioa lortzeko baliabide gisa erabiltzeko maila dela.

Datu horiek kontuan hartu behar dira, izan ere, askotan, entzuten duten profesionalek egiten duten oker bat, borondate onenarekin egiten badute ere, «*irtenbide*» kurrikular gisa testu idatziak erabiltzea izaten da, eta egiten duten planteamendua sinplista izaten da neurri batean: «*entzuten ez dutenez, idatziz emango diegu, eta horrela konponduko dugu arazoa*».

Emaitza horien arrazoiei dagokienez, egileak ez dira ados jartzen, baina ondoko arrazoi hauek azpimarratzen dira:

- Ahozko hizkuntzaren ezaguera maila baxua.
- Irakurtzen denari buruz dituzten ezaguera urriak.
- Esperientzia urriak eta ekoizpen idatzirako motibazioa.

---

[5] *«Hizkuntza idatzia eta ikasle gorrak»* gaia sakonago aztertzeko, bi erreferentzia hauek erabil daitezke: Domínguez, A. B.; eta Alonso, P. (2004**):** *La educación de los alumnos sordos hoy: Perspectivas y respuestas educativas*. Malaga. Aljibe argitaletxea; eta Acosta, V. (2006): *La sordera desde la diversidad cultural y lingüística. Construyendo centros inclusivos en la educación del alumnado con sordera*. Bartzelona. Masson argitaletxea, VIII. kapitulua.

[6] Gillot, D. (1998). *Informe en 115 proposiciones sobre los derechos de los sordos*. Frantziako Parlamentua eta Ezintasunaren Europako Foroa (EEF).

[7] Conrad, R. (1979). *The Deaf School Child***.** Londres: Harper & Row.

- Kodetze fonologikorako zailtasuna.
- Irakurtzen eta idazten irakasteko metodologia (Domínguez, A. B. eta Alonso, P., 2004)[8]

## 5.2. Idazmena eskuratzea

Hizkuntzaren erabilera bost trebetasun hauen bidez agertzen da: ahozko adierazpena, adierazpen idatzia, ahozko ulermena, ulermen idatzia eta ahozko elkarrekintza.

Ikusmenaren laguntza behar izatea da ikasle gorrentzat irakurtzen eta idazten ikasteak duen ezaugarri adierazgarriena. Soinuen denbora-ordenaren ondorioz, mintzaira iraupen gutxikoa den bitartean, idazkera iraunkorra da, behin eta berriro irakur daiteke. Idazkeraren iraunkortasunari esker, irakurleak nola irakurri kontrola dezake, azkarrago edo polikiago irakur dezake, eta, horrez gain, ikusizko hainbat arrasto ere eskaintzen ditu ulermena errazteko. Gainera, idazkerak hitzen forma zuzena adierazten digu. Horrek argi erakusten du ikasle gorrek hizkuntza idatzia ikasteak eta menderatzeak duen garrantzia, honako hauek errazten baitizkio:

· inguruko informazioa eskuratzeko aukera.

· hizkuntza-gaitasuna hobetzea.

· hiztegi berria ikasteko aukera.

· hizkuntza-eredu asko ezagutzeko aukera.

Hala ere, idazkera edo testuen ekoizpena jarduera kognitibo konplexua da. Ulertu gabe deskodetzea ez da irakurtzea; testu idatziak ezagutzeko prozesuei egiten die erreferentzia. Horretarako, kontzientzia fonologikoa garatu behar da, hitzak ezagutzeko trebeziak garatzeko funtsezko puntua baita. Sistema alfabetikoa ezagutu behar da, eta baita ahozkoarekin duen lotura, fonemen eta grafemen arteko lotura eta ortografiaren arauak ere.

Ulertzeko, beharrezkoa da hizkuntza-ezaguerak hitz berriak eta gero eta esaldi-egitura konplexuagoak barneratzea inplikatzea; bestalde, mundu fisikoa eta soziala ere ezagutu behar dira, eta beharrezkoa da testuei esanahia ematetik abiatuta zertarako irakurtzen den eta testu bakoitzak zer komunikazio-funtzio duen jabetzea ere.

Hizkuntza idatzia eta ahozko hizkuntza trebetasun interdependenteak dira. Hizkuntza idatziak beharrezko duen hizkuntzaren eta pentsamenduaren arteko lotura eta ahozkoak behar duena desberdinak dira.

Hizkuntza idatziak ahozkoaren estrategia eta trebetasun desberdinak eskatzen ditu, eta testuak ondo adierazteko eta ulertzeko estrategia eta trebetasun horiek garatu behar dira.

Oro har, ikasle gorrak idazteko zailtasunak izaten ditu derrigorrezko eskolaldian nahiz ondoren.

Hainbat azterlanek nahiz irakaskuntza-esperientziak berak erakusten dute ikasle gorren ekoizpen idatziek ondorengo ezaugarri hauek izaten dituztela:

- ikasle gorrek estilo sinplea eta zurruna dute.
- errepikapen estereotipatu ugari agertzen dituzte.
- aldaera sintaktiko urria agertzen dute.
- elkarren artean loturarik ez duten hizkuntza-unitateak erabiltzen dituzte.
- esaldi laburragoak eta sinpleagoak idazten dituzte.

[8] Op. cit., 98. eta 99. or.

- esaldiko hitzak desberdin banatzen edo ordenatzen dituzte.
- testu idatzian omisio-, ordezkapen-, gehitze- eta ordena-akatsak egiten dituzte.
- zailtasunak dituzte izenordainak, aditz laguntzaileak eta hizkuntza-egitura konplexuak erabiltzerakoan.
- preposizioak eta izenordain pertsonalak beharrezkoak ez direnean erabiltzen dituzte, eta hitzen generoa nahasten dute.
- aditz-denborak gaizki erabiltzen dituzte, edozein komunikazio modutan hezi badira ere (ahozkoan edo zeinu bidezkoan).

Zer unetan kokatzen dira ikasle gorren zailtasunak hizkuntza idatziaren ikaskuntzan? Domínguez Gutiérrezek (1999)[9] elkarren artean lotuta dauden bi faktore-multzo adierazten ditu: alde batetik, ikasle gorrek hizkuntza idatzia ikasten hasten direnean duten hizkuntza-gaitasun orokorra; eta, bestetik, irakurketan eta idazketan berariaz inplikatutako prozesuak.

Ikasle gorren eta entzuten duten ikasleen hizkuntza-gaitasuna hizkuntza idatzia ikasten hasteko unean oso desberdina da, entzuleen gaitasuna handiagoa baita. Beraz, esan daiteke hizkuntza-gaitasun orokorrean duen zailtasuna dela ikasle gorrek hizkuntza idatzia eskuratzeko arazo nagusia. Esate baterako, irakurtzen ikasten hasten direnean duten hiztegia oso urria da, eta, horrekin batera, lexikoaren ulermen faltak ere arazoak sortzen ditu ahozko hizkuntzaren egitura sintaktikoak menderatzeko garaian eta, nagusiki, hizkuntza figuratiboa, metaforak eta esapideak ulertzeko garaian.

### 5.3. Elebitasuna (ahozko hizkuntza – zeinu hizkuntza)

Ikuspegi elebidunek bi komunitateko kide potentzial gisa ikusten dute haur gorra: gorren eta entzuten dutenen komunitateetakoa; hala, ikuspegi horren arabera, pertsona gorrak bai gorren komunitatean eta bai entzuten dutenen komunitatean pertsonalki nahiz sozialki integratzeko moduan hazi behar dira. Bestalde, ikuspegi horren arabera, ikuspegi psikolinguistikotik, zeinu-hizkuntza eskuratzeak inguruko gehiengoak hitz egiten duen hizkuntza ikastea erraz dezake.

Profesionalek eta familiek zeinu-hizkuntzaren arloan duten prestakuntza eta ezagutza gero eta handiagoa denez, eta, bestalde, zeinu-hizkuntza erabiltzen duten guraso gorrak dituzten haur gorrek ikaskuntzak barneratzeko prozesua eta pertsona gorrek lortutako emaitzak gero eta hobeto ezagutzen direnez, zenbait joerek haur gorrek komunikatzeko eta hezteko tresna gisa zeinu-hizkuntza erabiltzeko proposamena egiten dute. Zeinu-hizkuntza erabiliko litzateke ikaskuntzak eskuratzeko.

Beraz, zeinu-hizkuntzaren bitartez haur gorrak hizkuntza-gaitasuna, komunikatzeko gaitasuna eta gaitasun kognitiboa barneratzen baditu, errazagoa izango da hasierako gaitasun horren gainean bigarren hizkuntza-gaitasun bat eraikitzea. Bestalde, haur gorrak eskola-curriculuma eskuratzeko tresna bat izango du, eta, beraz, entzuten duten ikaskideen antzera garatu ahal izango du berori (Valmaseda, M. 1995[10]) .

Ikuspegi horrek bultzada handia izan zuen Suedian edo Danimarkan, izan ere, herrialde horietan elebitasuna eskola guztietan txertatu zen, eta estatuak legeak eta arauak eman zituen.

---

[9] Domínguez, A. B.; eta Velasco, C. (1999): *Lenguaje escrito y sordera. Enfoques teóricos y derivaciones prácticas.* Salamanca. Publicaciones de la Universidad Pontificia de Salamanca.
[10] Verdugo Alonso, M.A. (1998): *Personas con discapacidad. Perspectivas psicopedagógicas y rehabilitadoras*. Madril. Siglo XXI de España Editores, S.

EAEn, 2000. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez arautu zen egoera hori, Ikasle Gorren Lurralde arteko Hezkuntza Batzordeak idatzitako txosten baten bitartez; saileko teknikariek nahiz hiru lurraldeetako Familia Elkarteek hartu zuten parte txosten horretan. Txostenak ikasle gorrei eman beharreko erantzuna arautu zuen, bai trataera elebiduna duten Taldekatze Zentroetan (AH – ZH), bai banakako inklusioan.

## 5.4. Beste hizkuntza batzuen ikaskuntza

Batzuetan, ikasle gorrek ahozko hizkuntza bat baino gehiago eskuratzea zailtasun osagarritzat hartzen da; hala ere, psikolinguistikaren ekarpenek erakutsi digute hizkuntza baten ikaskuntzak, kode berri baten ikaskuntzaz gain, beste kultura bat, munduaren beste ikuspegi bat, beste komunitate bat ezagutu beharra dakarrela. Alde horretatik, EAEko zentro gehienen errealitate eleanitzak eta hezkuntza-elkarteak eskola inklusibo baten alde egindako apustuak ikasle gorrak bi hizkuntza ofizialetan eskaintzen den irakaskuntzatik ez baztertzeko gomendatzen dute, izan ere, ikaskuntza bi hizkuntzatan jasoz gero, ikasle gorrak hizkuntza-gaitasuna hobetuko du. Toronton egindako eta Cummins-ek[11] aipatutako ikerketen arabera, hizkuntzen artean ezagueren eta ikaskuntza-prozesuen transferentzia gertatzen da, eta lehen hizkuntzan irakurtzen eta idazten ikasteak beste hizkuntza batzuk ikasteko abantaila zehatzak sortzen ditu.

Entzumen-galera duen ikasle batentzat, edozein hizkuntza ikastea zailtasun osagarria da, baina garrantzitsua da beste hizkuntza batzuk ikasteko eta erabiltzeko aukera ematea, beste edozein ikasleri bezala. Egoera bakoitzak hainbat aldagai kontuan izango dituen norbanakoaren balioespena eskatzen du: entzumen maila, inguruak eskaintzen dizkion aukerak, hizkuntza-gaitasunaren maila, etab.

Alde horretatik, ikasle gorrak atzerriko hizkuntzaren ikaskuntza sistematikoarekin hasteko unerik egokiena zein den zehazteko orduan, esan behar da entzuten duten ikasle gehienek ikaskuntza horri Haur Hezkuntzan heltzen dioten arren, EAEko curriculum ofizialak ez duela derrigortzat jotzen Lehen Hezkuntzako hirugarren mailara arte. Ikasle gorren ahozko hizkuntzaren garapen-fase emankorrena 5 urtetik 9 urtera bitartekoa[12] denez , zuhurra izan daiteke atzerriko hizkuntza ikasten hasteko unea atzeratzea, hala, ikasle horiek lehen hizkuntza eta ikasten ari diren ikastetxeko irakaskuntza-hizkuntza(k) finka ditzaten. Atzerriko hizkuntza ikasten hasteko unearen atzerapenak ez du zertan hizkuntza horretan egin beharreko ikaskuntza-helburuei uko egitea ekartzen, izan ere, hainbat adituren ustez[13], ikasle heldua (edo nerabea) gaztea baino hobeto moldatzen da, haurrak baino azkarragoa eta eraginkorragoa da ikaskuntzaren lehenengo faseetan, baliabideak edo estrategiak areagotu egiten baitira adinean aurrera egin ahala, eta garapen kognitibo handiagoak irakaskuntza formalari probetxu handiagoa ateratzeko aukera ematen baitio. Ikasle gazteenek abantaila duten ikaskuntzaren alderdi bakarra fonologikoa dela diote azterlan horiek, baina hori ez da alderdi garrantzitsuena gorreria duten ikasleen kasuan.

Beharrezko baliabideak eta estrategiak kontinuum baten barnean mugitzen dira, eta horren muturrean honako hauek leudeke: grabazio bat gehiagotan entzutea, entzun aurretik testu idatzia ematea edo irakasleak testua irakurtzea, ezpainak irakurtzeko aukera izan dezaten. Beste

[11] CUMMINS, J. (2002): *Lenguaje, Poder y Pedagogía*. Madril. Morata

[12] SILVESTRE, N; LABORDA, C. *Los inicios de la comunicación y la adquisición del lenguaje oral en el alumnado con sordera*. In: *La sordera desde la diversidad lingüística*.

[13] MC LAUGHLIN (2006) *Mitos y falsas creencias acerca del aprendizaje de una segunda lengua: lo que todo profesor debería olvidar*. Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura, 41. zk.
Askoren artean (1999): *En torno a los efectos de la edad en el aprendizaje de una lengua extranjera.* Azkeneko lotura: < http: \\www.ub.es\ice\portaling\eduling\cat\n_l\munoz-article-nl.pdf>

muturrean, hala ere, informazio idatzia eskuratzea ahalbidetuko dieten estrategien eta baliabideen lehenespena egin beharko litzateke (FM ekipoaren erabilera, begizta magnetikoaren instalazioa…).

Zeinu-hizkuntzako interpretea erabiltzen duten ikasleek ezaugarri bat dute: zeinu-hizkuntzako interpretea irakasleen eta ikasleen arteko bitartekaria denez, ebaluatzen denean, azkenean interpretea ebaluatzen da, eta ez ikaslea. Berariazko faktore hori kontuan hartu beharko litzateke beste hizkuntza batzuetan curriculuma lantzen denean.

## 6. Eredu programaren xede diren ikasleak

«*Ikasle gorrak ahozko hizkuntzen curriculumean txertatzeko*» eredu programaren lanketa proiektua oso garrantzitsua da, ezintasun hori duten ikasleen garapen ekonomikoa lortzeko.

Proiektu horrek derrigorrezko irakaskuntzako eta derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzako hizkuntza-arloen ibilbide kurrikularra hartu nahi du barnean; hala ere, ikaslearen banakako ezaugarriak eta Eredu Programa batzeak ez du esan nahi ikasleek programan zehaztutakora mugatu behar dutenik. Ikasleen errealitateak zehaztuko du programa erabiltzeko malgutasuna. Beharbada, zenbait ikasle beste batzuk baino gehiago hurbilduko dira curriculum arruntera, eta, beste ikasle horien kasuan, egokitzapen gehiago egin beharko lirateke; halaber, beste talderen batentzat Eredu Programa bera curriculum-erreferentzia egokia izan daiteke. Ikasle gorrak dituzten ikastetxeek hizkuntza-arloetan curriculumaren erreferentziazko adibidetzat har dezakete Eredu Programa.

Azkenik, *xede-ikasleen* deskribapenarekin hasi baino lehen, esan behar da ikasle gorren artean gertatzen ari diren aldaketak ere begien bistakoak direla; lehenago ere aipatu ditugu horietako batzuk:

- Alde batetik, Euskal *Autonomia Erkidegoko Haur Gorreria Goiz Detektatzeko Programaren*[14] ondorioz, EAEn jaiotako haur guztiei egiten zaizkie entzumena hautemateko probak; proba horiei esker, haurtxoaren entzumena egokia den egiazta daiteke edo entzumen-gabeziaren diagnostiko goiztiarra egin daiteke, eta, horren ondorioz, haurtxoaren behar orokorren tratamendu terapeutikoa bermatzen da, kasu askotan haurrak urtebete egin baino lehenago ere.
- Bestalde, garapen teknologiko garrantzitsua gertatu da, eta, askotan, entzumen-funtzionaltasun handiagoa eskaintzen zaio haurtxo gorrari.
- Azkenik, hezkuntza-errealitatea ere aldatu da, eta, aniztasunarekiko trataerari dagokionez, ikasleekiko oro har, eta, bereziki, ikasle gorrekiko jarrera eta estrategia didaktiko ulerberagoak sustatu dira.

Hala ere, goian adierazitako aldagai horiei bi baldintzatzaile erantsi behar zaizkie:

- Alde batetik, hezkuntza-sisteman berandu hasten diren ikasle gorrak daude, esate baterako, immigrazio-faktoreen ondoriozkoak; kasu horietan, EAEkoa ez den beste ama-hizkuntza bat dute haur horiek, eta ahozko nahiz zeinu bidezko hizkuntza-gaitasuna berandu garatzen dute.
- Bestetik, gortasunaz gain, beste ezintasun batzuk izan ditzakete haurrek.

Aldagai horiek eta sarrera honen hasieran deskribatutakoak kontuan hartuta, ikasle gorren multzoa aldakortasun funtzional handikoa dela esan behar da, eta, beraz, ikasle gorren kasuan, guztiz beharrezkoa da banakako ebaluazioa eta hezkuntza-planteamenduak egitea.

Aldagai horiek nahiz aldagai audiologikoak eta hizkuntzari dagozkionak kontuan hartuta, ikasle gorrak hainbat taldetan kokatzen saiatu gara, ezaugarri horiek kontuan hartuta beti, eta ahozko hizkuntzak irakasteko eta ikasteko prozesuetan curriculumaren esparruko hainbat neurri planteatu ditugu ikasle horientzat.

---

[14] Azkeneko lotura: http://www9.euskadi.net/sanidad/osteba/datos/d_05-06_programa_cribado_sordera_infantil.pdf

| | **IKASLEAK** | **CURRICULUM NEURRIAK** |
|---|---|---|
| 1. TALDEA | - Diagnostiko audiologikoa: alde bietako entzumen-galera neurosentsorial larria edo sakona.<br>-Entzumenari laguntzeko tekniken (inplante koklearra, audifonoak, inplante osteointegratua…) funtzionaltasun egokia.<br>- Ahozko komunikazio-gaitasuna. | Ahozko Hizkuntzen Eredu Programa Ikasle Gorrentza |
| 2. TALDEA | - Diagnostiko audiologikoa: entzumen-galera arina edo moderatua. Alde bateko entzumen-galera.<br>- Entzumen-protesien aprobetxamendu egokia.<br>- Ahozko komunikazio-gaitasuna. | Curriculum arrunta nahiz Ahozko Hizkuntzen Eredu Programa Ikasle Gorrentzat |
| 3. TALDEA | - Diagnostiko audiologikoa: entzumen-galera aldakorra. (Entzumen-galera arinetik entzumen-galera sakonera arte)<br>- Entzumen-protesien aprobetxamendu urria.<br>- Beste ezintasun osagarriak izan ditzake.<br>- Ahozko hizkuntza pobrea. | Ahozko Hizkuntzen Eredu Programa Ikasle Gorrentzat lehen hizkuntzan nahiz curriculumaren egokitzapen esanguratsuak (ahozko beste hizkuntza batzuetan) |
| 4. TALDEA | - Diagnostiko audiologikoa: entzumen-galera aldakorra.<br>- Sisteman berandu sartu direnak.<br>- Familian ahozko beste hizkuntza bat edo batzuk erabil ditzakete, EAEkoaren desberdinak. | Aukera zabala, ezaugarrien arabera balioetsi beharrekoa:<br>· Programazio arrunta errefortzu-neurriekin.<br>· Ahozko Hizkuntzen Eredu Programa Ikasle Gorrentzat<br>· Egokitzapen esanguratsuak |

## 7. Curriculuma eskuratzeko planteatutako neurriak

Curriculuma eskuratzeko planteatzen diren neurriak orientazio moduan erabiltzeko proposamenak dira, ikasle gorren inklusio hobea lortzeko bai hezkuntza-bizitzako parte-hartzean, bai irakasteko eta ikasteko prozesuak hobetzeko.

Ikasle gorrak eskolatzeko prozesuan ahozko hizkuntzen curriculuma egokitzeko proiekturako planteatutakoaren ildo beretik, orain neurri horiek ikasle gorraren errealitate zehatzera egokitzea da helburua. Ez da, beraz, eredu itxia, baizik eta proposamen malgua.

Ondoren, curriculuma ikasle gorren beharretara egokitzeko hainbat estrategia aurkeztuko ditugu, berorren zehaztapen mailak kontuan hartuz: ikastetxea, ikasgela eta banakakoa; curriculumeko elementuak ere hartu dira kontuan.

**CURRICULUMEKO ELEMENTUAK**

| OINARRIZKOAK | CURRICULUMEAN TXERTATZEKOAK |
|---|---|
| ▪ **Zer eta noiz irakatsi**<br>*Helburuak*<br>*Edukiak*<br>▪ **Nola irakatsi**<br>*Metodologia*<br>*Ikasteko eta irakasteko jarduerak*<br>▪ **Zer, nola eta noiz ebaluatu** | ▪ **Elementu pertsonalak**<br>▪ **Elementu materialak**<br>▪ **Antolamenduari dagozkion elementuak** |

## IKASTETXEKO EGOKITZAPENAK

| OINARRIZKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK | | |
|---|---|---|
| **Helburuak eta edukiak** | **Metodologia eta jarduerak** | **Ebaluazioa** |
| · Prozedurei buruzko helburuei lehentasuna ematea.<br>· Jarrerei buruzko helburuak esplizitu bihurtzea.<br>· Ikasgaien globalizazioa sustatzea.<br>· Jarduera esanguratsuen lanketa bultzatzea.<br>· Hizkuntzaren erabilera eta funtzionaltasuna nabarmenduko dituzten helburuak sustatzea.<br>· IHPn eta ICPn ikasle horiei eman beharreko erantzuna jasotzea, ikastetxeko aniztasunaren zati den heinean.<br>· Komunikazio-hesien desagerpena kudeatzea.<br>· Familien eta gorren elkarteekin batera lan egitea ikasle gorren eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeko orduan.<br>· Jarduera ludikoak, jolas kooperatiboak, erakusketa tematikoak eta antzekoak antolatzea, entzuten duten pertsonak erakartzeko: nortasun-jokoak (ezpainak irakurtzea, arreta zatitua, mezu bat zeinu bidez bidaltzea, komunikazio-lantegiak, komunikazio-hesiak desagerrarazteko lantegiak, etab.).<br>· Eskola-testuinguruan zeinu-hizkuntzaren bidezko komunikazio funtzionala lantzeko eskolak antolatzea, parte hartu nahi duten irakasleentzat.<br>· Zeinu-hizkuntzaren presentzia ikastetxeko hizkuntza-paisaian (kartelak, iragarkiak, oharrak, mezuak..). | · Ikasleen taldekatzeei dagokienez ikastetxearen malgutasuna sustatuko duten irizpide metodologiko orokorrak ezartzea.<br>· Ikaskuntzetan autonomia ahalbidetuko duten jarduerak sustatzea.<br>· Ikasle gorraren eta entzuten duen ikaslearen arteko bi noranzkoetako komunikazioa sustatzea.<br>· Ikaskuntza berriak hainbat testuingurutan aplikatzea, irakasle guztien ardurapean, beroriek orokortzea bultzatzeko.<br>· Pertsona gorraren komunikazio-arazoaren ulermena sustatuko duten jarduerak.<br>· Lankidetzazko zereginak esleitzea. | · Ikastetxearen baliabideen eta aurretiazko esperientzien hasierako ebaluazioa.<br>· Erabilitako prozedura egokiak zehaztea.<br>· Hezkuntza-premia bereziak (gorreria) dituzten ikasleen promoziorako irizpide orokorrak definitzea.<br>· Komunikazioaren ebaluazio-irizpideak zehaztea.<br>· Hesiak desagerrarazteko gailuen funtzionamenduaren balioespen sistematikoa. |

## IKASTETXEKO EGOKITZAPENAK

| CURRICULUMEAN TXERTATZEKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK | | |
|---|---|---|
| **Pertsonalak eta materialak** | **Antolamenduari dagozkionak** | **Komunikazioa** |
| · Irakasleen prestakuntza ahalbidetzea.<br>· Esku-hartzeko taldearen zereginak modu egokian zehaztea.<br>· Logopedia-zeregina eta eskola-laguntzako zeregina modu egokian bereiztea..<br>· Ikasleen heziketan parte hartzen duten pertsona heldu gorrekiko harremana sustatzea.<br>· Sentiberatzeko jardunaldiak antolatzea entzuten duten ikasleen gurasoei begira.<br>· Beharrezko material pedagogikoa eta teknikoa erabiltzeko aukera ematea.<br>· Gorreriari buruzko dokumentazio-funts bat antolatzea.<br>· Inplikatutako irakasleak koordinatzeko bilerak zehaztea.<br>· Kanpoko aholkulariekin koordinatzeko bilerak zehaztea. | · Aniztasunarekiko arreta ikastetxearen proiektuan bertan lantzen da.<br>· Zuzendaritza-taldearen eta inplikatutako profesionalen arteko aldian behingo koordinazioa bultzatzea.<br>· Ikasleen taldekatzeak egiteko aukera aztertzea.<br>· Hainbat hezkuntza mailatako ikasle gorren arteko elkarrekintza sustatzea.<br>· Ikasmailak irakasleen aldez aurreko jarrerak eta eskumenak kontuan hartuta banatzea.<br>· Beharrezko tresna teknikoak kokatzeko guneak izatea.<br>· Bidezko tutoretza bateratuak errazteko neurriak bultzatzea (ahozko hizkuntza eta zeinu-hizkuntza erabiltzen duten irakasleen artekoa).<br>· Zeinu-hizkuntzaren presentzia bultzatzea ikastetxean (eskolako hizkuntza-paisaiako beste hizkuntzen ondoan).<br>· Ikasle gorren eta ohiko irakasleen elkarrekintzarako estrategia errazak sustatzea. | · Ikasle gorrekin erabiltzeko komunikazio-sistema bat (zeinu-hizkuntza) hautatzea, eta irakasleek eta entzuten duten ikasleek gero eta gehiago ezagutzea.<br>· Komunikatzeko sistema osagarriak erabiltzeko aukera aztertzea.<br>· Ezpainen irakurketa egiteko ahalegin txikiena egin behar izateko beharrezko baldintzak azaltzea.<br>· Laguntzen funtzioari (FM, protesiak) buruzko informazioa ematea ikaskideei.<br>· Irakasleak ez entzuteak dakarrenaren inguruan sentiberatzeko jarduerak (simulazioa).<br>· Ikastetxeko irakasleei zeinu-hizkuntzan hiztegi funtzionala ikasteko aukera ematea (eskolako testuinguruarekin lotutakoa: korridorea, jolastokia, jangela...).<br>· Ikastetxeko ikasleei zeinu-hizkuntzan hiztegi funtzionala ikasteko aukera ematea.<br>· Ikastetxeko hizkuntza-paisaian zeinu-hizkuntza txertatzea: ikasgeletan (irakasteko guneetan), jangelan, komunetan, liburutegian, korridoreetan...). |

## IKASGELAKO EGOKITZAPENAK

| OINARRIZKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK | | |
|---|---|---|
| **Helburuak eta edukiak** | **Metodologia eta jarduerak** | **Ebaluazioa** |
| · Ikaskuntzari dagozkion helburuak eta edukiak txertatzea, eta komunikatzeko sistema alternatiboak (zeinu-hizkuntza) eta osagarriak erabiltzea.<br>· Gorreriarekin eta gorren komunitatearekin lotutako oinarrizko alderdiei buruzko edukiak txertatzea.<br>· Ikaskuntza esanguratsuak eta motibatzaileak sustatzea.<br>· Errealitatea eskolako helburuekin lotzea.<br>· Edukien sekuentzia aldatzeko edo eduki batzuk kentzeko edo gehitzeko aukera.<br>· Malgutasuna aurreikusitako helburuen tenporalizazioan.<br>· Ikasgelan logopediako esku-hartzetik ondorioztatutako lan osagarriak egiteko aukera izatea.<br>· Ikasgelako programazioan ahozko hizkuntzaren lanketan laguntzeko jarduerak jasotzea.<br>· Edukiak ondo ulertzeko transmisio-baliabide egokiak bermatzea.<br>· Hizkuntzen presentzia orekatua ahalbidetzea ikasgelan.<br>· Hesiak kentzeko laguntzei eusteko modua sustatzea (FM, protesiak…).<br>· Ikaslearen eta ikasgelaren arteko bi noranzkoko komunikazioa erraztuko duten estrategiak garatzea<br>· Ikasgelako programazioan banakako egokitzapenak kontuan hartzea.<br>· Ikasleen hizkuntza-gaitasuna aztertzea (ZH-AH) haien komunikazio mailaren balioespena egiteko orduan. | · Egokitzapen metodologikoak txertatzea ikasgelan: lan kooperatiboa sustatzea (kideen arteko tutoretza, oharrak hartzea…).<br>· Lan-erritmo desberdinak errespetatzea.<br>· Lana interesguneen, proiektuen, lantegien eta abarren arabera sustatzea.<br>· Erantzun maila desberdinetako jardueren plangintza egitea, arrakasta eta errefortzu positiboa eskaintzeko.<br>· Azalpen osagarriak ematea banaka nahiz taldean.<br>· Ikusizko material eta material tekniko egokien erabilera sustatzea.<br>· Jardueren dibertsifikatzea: irekiak (erantzun bat baino gehiago izan dezaketenak), mailakatuak, ikasleen interesen eta gaitasun mailatik hurbil egongo direnak eta zailtasun maila desberdinekin ikasmaila bakoitzerako.<br>· Jarduera batzuk zeinu-hizkuntzan aurkeztea (zeinu-hizkuntzako irakaslearen tutoretzapean). | · Ikasgelan zehaztutako curriculumaren egokitzapenen prestakuntzazko ebaluazioa egitea.<br>· Hainbat ebaluazio-estrategia aplikatzeko aukera.<br>· Ikasleak arrakasta handien duen komunikazio-estrategiara egokitzea ebaluazioa (idazmena, zeinu-hizkuntza, ahozko hizkuntza…).<br>· Ebaluaziorako tresnak ikasleen beharren arabera egokitzea: denbora-malgutasuna, hizkuntza-formulazioa, zeinu-hizkuntza erabiltzeko aukera ematea…<br>· Ikasgelan hesiak desagerrarazteko gailuen funtzionamenduaren balioespen sistematikoa.<br>· Garatu ahal izan den ikasgelako programazioaren barnean, norbanakoen araberako egokitzapenen garapen mailaren balioespena. |

## IKASGELAKO EGOKITZAPENAK

<table>
<tr><th colspan="3">CURRICULUMEAN TXERTATZEKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK</th></tr>
<tr><th>Pertsonalak eta materialak</th><th>Antolamenduari dagozkionak</th><th>Komunikazioa</th></tr>
<tr>
<td>· Tutoreak ikasleen bana-banako laguntza pedagogikoa eskaintzeko espazioak sortzea.<br>· Espezialisten arreta errazteko antolamenduan edo ordutegian egin beharreko aldaketak sustatzea.<br>· Logopedarekin koordinazioa bermatzea aldian-aldian.<br>· Ikasgelako tutoreen koordinazio sistematikorako denborak bermatzea.<br>· Intsonorizazio- eta argi-baldintza egokienak izatea.<br>· FM irrati-igorgailuak erabiltzeko aukera.<br>· Material didaktiko eta tekniko egokia izatea ahozko hizkuntza eta zeinu-hizkuntza lantzeko.<br>· Aurkezpenak edo diapositibak erabiltzea arbelaren ordez, irakasleak arbelera begiratzen ez badu ikasle gorrak ezpainak irakurtzeko aukera izango baitu.<br>· Astero kontsulta sistematikoak egiteko espazioak eta denborak sustatzea.</td>
<td>· Irakasleak ikasgelan antolamenduarekin lotutako aldaketak egiteko prest agertzen dira:<br>- Ikasleen taldekatze homogeneoak edo heterogeneoak egitea, jarduera bera zailtasun maila desberdinarekin eta hainbat erantzun emateko aukerarekin egiteko.<br>- Malgutasuna zereginen tenporalizazioa zehazteko orduan.<br>- Malgutasuna ikasgelako espazioaren aprobetxamendua zehazteko orduan.<br>· Inplikatutako pertsona guztiak koordinatzeko espazioak bermatzea.<br>· Hezkuntza-ekintzaren plangintza egitea, aurretiazko laguntzak, jarduera egiten den uneko laguntzak nahiz ondorengo laguntzak kontuan hartuz.<br>· Kideen arteko tutoretza.</td>
<td>· Ikasle gorrarekiko komunikazio interaktiboa sustatzea ikasgelaren barnean.<br>· Elkarrekintzetan, honako hauetan jartzea arreta:<br>- jarreren sinkronia hitz egiteko txandetan.<br>- txanda hartzeko eta azalpen lasaiak emateko denborak hartzea.<br>- besteei hitz egiteko aukera erraz ematea.<br>- txandak hasteko aukerak ematea.<br>- ekarpenak zabaltzea edo berriro formulatzea (ez zuzentzea).<br>· Beharrezkoa bada, Bigarren Hezkuntzatik aurrera zeinu-hizkuntzako interprete bat izateko aukera ematea.<br>· Ikasgelaren barnean beste sistema handigarri batzuk erabiltzeko aukera izatea.<br>· Ikasgelako jardueren aurkezpena bi hizkuntzetatik edozeinetan egiteko erraztasunak ematea, partekatutako tutoretzaren antolamendua kontuan hartuta.<br>· Irakasleekiko elkarrekintzan:<br>- jarrerari dagokion sinkroniari eustea hitz egiteko txandetan.<br>- ikaslearen hitz egiteko txandarako eta azalpenerako denborak ematea.<br>- besteei hitz egiteko aukera erraz ematea.<br>- txandak hasteko aukerak ematea.<br>-ikaslearen ekarpenak zabaltzea edo berriro formulatzea, baina zuzenean ez zuzentzea.<br>· Zeinu-hizkuntzaren edo hizkuntza arruntaren erabilera sustatuko den komunikazio-egoerak sortzea.</td>
</tr>
</table>

## BANAKAKO EGOKITZAPENAK

| OINARRIZKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK | | |
|---|---|---|
| **Helburuak eta edukiak** | **Metodologia eta jarduerak** | **Ebaluazioa** |
| · Norbanakoei zuzendutako helburuak eta edukiak txertatzeko aukera: logopediako programazioa, eskola-errefortzua, etab.<br>· Curriculumaren egokitzapen esanguratsuak: ikasgai bakoitzean aginduzkoak diren edukiak eta helburuak lehenestea, hautatzea edo kentzea.<br>· Curriculumerako esanguratsuak ez diren egokitzapenak: ikasgai bakoitzean aginduzkoak ez diren edukiak eta helburuak lehenestea, hautatzea edo kentzea.<br>· Denboraren edota kontzeptuen sakontasun mailaren egokitzapena.<br>· Adierazpen idatziaren hobekuntza sistematikoa: mamia eta forma bereiztea.<br>· Hizkuntzen tratamendua: zeinu-hizkuntza, ahozko hizkuntza (euskara / gaztelania).<br>· Gorren komunitatearen kultura edo hizkuntza ere barnean hartuko duen curriculuma (berariazkoa) txertatzea. | · Zereginaren zailtasuna txikitzeko aukera.<br>· Lan-erritmoa moteltzea.<br>· Banaka azalpen osagarriak emateko aukera izatea.<br>· Konplexutasun maila desberdineko erantzunak emateko aukerak dituzten zereginak.<br>· Kideen arteko errefortzu-zereginak antolatzea hainbat ikasgaitan.<br>· Ikasle gorraren arabera egokitutako ikusizko estrategiak maiz erabiltzea (ikaslearen iritzia kontuan hartuko da). | · Ikaslearen curriculum-gaitasuna ebaluatzea, bai aurreikusitako helburuei eta edukiei dagokienez, bai motibazioari eta ikasteko estilo eta estrategiei dagokienez.<br>· Norbanako Curriculum Egokitzapenean (ACI) zehaztutakoaren arabera ebaluatzea, bertan ikasle jakin baten curriculuma jasotzen denean.<br>· Familia-ingurua ebaluatzea:<br>- *Gorrak diren edo entzuten duten*<br>- *Gorreriaren aurrean dituzten jarrerak*<br>- *Etorkizuneko itxaropenak*<br>- *Lankidetzarako ahalmena.*<br>· Ikaslearen ahozko komunikazio-gaitasuna ebaluatzea, eta baita zeinu-hizkuntzan duena eta duen egonkortasun emozionala ere.<br>· Azterketetan, idatziz adierazteko dituen aukerak kontuan izatea. Mamia eta forma bereiz ebaluatzea. |

## BANAKAKO EGOKITZAPENAK

| **CURRICULUMEAN TXERTATZEKO ELEMENTUEI ERAGITEN DIETENAK** | | |
|---|---|---|
| **Pertsonalak eta materialak** | **Antolamenduari dagozkionak** | **Komunikazioa** |
| · Ikasleak bere beharrei erantzungo dien adituen talde bat izateko aukera: Ikasgelako irakasleak, PT, logopeda edo EHI…<br>· Gehiegi edo gutxiegi babesteko jarrerak saihestea.<br>· Ikasle gorrari zuzendutako tutoretza areagotzea.<br>· Ikaskidearen edo taldearen laguntza ahalbidetzea. Kideen arteko tutoretza.<br>· Banaka eta taldean zaratarik eta erreberberaziorik gabe lan egiteko espazio bat erabiltzeko aukera izatea.<br>· Material didaktiko egokitua erabiltzeko aukera.<br>· Testu idatziak ikaslearen hizkuntza-trebezien arabera egokitzea.<br>· Ikusizko euskarrien erabilera sistematikoa.<br>· Landu beharreko gaiaren edo lanaren aurkezpen sistematikoa edo jardueraren laburpen-eskema.<br>· Denborak sistematizatzea, irakasleak koordinatzeko aukera izan dezaten.<br>· Ikaslearen arabera, ahozko hizkuntza ulertzen laguntzen duten baliabideak edo estrategiak erabiltzea (FM,…). | · Ikasle gorrentzat oharrak hartzeko sistema bat antolatzea (irakasleen eta/edo ikaskideen artean).<br>· Familiarekin komunikatzea:<br>- *protesien mantenimendurako.*<br>- *garapenaren alderdiak eta komunikazio eraginkorrenaren estiloa aztertzeko.*<br>· Unitate didaktikoetako edukien –kontzeptuen– eta lexikoaren aurrerapena.<br>· Errefortzuko zereginez arduratzen diren profesionalen eta ohiko irakasleen lana koordinatzeko denbora sistematikoak.<br>· Ikasleen arteko lankidetza sustatzea. | · Hiztegia egokitzea eta ikasleek ulertzeko moduko esaldiak erabiltzea.<br>· Komunikatzeko baldintza egokiak ez urratzea:<br>*Aurrez aurre hitz egitea.*<br>*Argi ahoskatzea.*<br>· «Arreta zatituaren» fenomenoa saihestea; ikasle gorrak aldi berean eta ikus-eremu zabal batean ikusizko bi estimulu esanguratsu edo gehiago dituenean gertatzen da fenomeno hori, estimulu guztiek bere arreta eskatzen dutenean.<br>· Ahozko hizkuntzaren alderdi pragmatikoei eta funtzionalei ematea lehentasuna ekoizpenaren kalitatearen aurrean.<br>· Komunikatu duela jakinaraztean ikasleari segurtasuna ematea, nola egin duen alde batera utzita.<br>· Inguruko aldaketen berri esplizituki eta zuzenean ematea.<br>· Adierazpen idatzia: mendeko esaldien ordez beste batzuk erabiltzea, ohikoak ez diren aditz-jokaeren ordez adberbioak erabiltzea, etab. |

## 8. Glosarioa

- ***Arreta zatitua.*** Ikasle gorrak bi estimulu edo gehiago jasotzen ditu aldi berean eta ikus-eremu zabalean, eta ikasleak guztiei zuzendu behar die arreta.

- ***Audifonoak.*** Erabiltzaileak gorde dituen entzumen-hondarren arabera, entzumen-seinalea handiagotzen duten gailuak.

- ***Audiometria.*** Entzumena neurtzeko proba subjektiboa.

- ***Hezkuntza elebiduna.*** Gorreria duten ikasleen kasuan, hezkuntza elebiduna dela esango dugu komunikazio-hizkuntza gisa ahozko hizkuntza nahiz zeinu-hizkuntza erabiltzen direnean. Planteamendu horrek aldaketa metodologiko eta kontzeptual garrantzitsuak eskatzen ditu.

- ***FM irrati-igorgailua.*** Laguntzeko produktu bat da, igorgailu bat eta hargailu bat dituen tresna txiki bat. Sistema horiek entzumen-seinalea hobetzen eta hurbiltzen dute, inguruko zarata arintzen dute, eta, horrela, erabiltzaile horiekin komunikatzeko aukera ematen dute. Banaka erabiltzekoak dira, eta ez dute inolako instalaziorik eskatzen.

- ***Fonologia.*** Hizkuntzalaritzaren atala, komunikazioan funtzio bat betetzen duten hotsak soilik aztertzen dituena; hau da, hizkuntzaren ikuspegitik ezaugarri bereizleak dituztenak soilik aztertzen ditu. Hizkuntza horrek dituen fonemen inbentarioa, horiek segida zuzenak osatzeko elkartzeko moduak, fonema bakoitzak ondoan dituenen arabera izaten dituen egokitzapenak eta doinuari, metrikari eta azentuari buruzko arauak biltzen ditu. Haur gorren kasuan, osagai fonologikoak alde bisual eta kinestesikoa ere baduela egiaztatu da; horregatik, ezpainak irakurriz, hizkuntzari buruzko informazio fonologikoa ematen dute, nahiz eta, kasu askotan, modu nahasian.

- ***Irabazi protesikoa.*** Audifono batek eskain dezakeen anplifikazio maila, sarrera maila desberdinetan eta pertsona bakoitzaren profil audiometrikoaren arabera. Audifono batzuek hainbat irabazi maila eskain ditzakete, hainbat maiztasun-bandatan, hala, pertsona bakoitzaren entzumen-profilera hobeto egokitzeko.

- ***Hipoakusia.*** Entzumena erabat edo neurri batean galtzea.

- ***Inplante koklearra.*** Entzumenerako produktu lagungarria da, eta soinuen kalitatea eta kopurua hobetzea du xede. Horretarako, zeinu akustikoak zeinu elektriko bihurtzen ditu, eta horiek entzumen-nerbioa estimulatzen dute.

- ***Entzumen-screeninga.*** «*Jaioberrien entzumen-baheketa*» ere esaten zaio. Jaioberriei entzumen-galerarik ez dutela ziurtatzeko egiten zaizkien probak dira.

- ***Komunikazio-sistema alternatibo eta handigarriak.*** SAAC siglen bidez ere ezagutzen dira. Zentzu orokorrean, komunikatzeko baliagarria den edozein baliabide da, mintzamena izan ezik. Adibidez: seinaleak, piktogramak, esku-zeinuak...

## 8. Bibliografia


ASKOREN ARTEAN (1999): *En torno a los efectos de la edad en el aprendizaje de una lengua extranjera.* Azken lotura: <http:\\www.ub.es\ice\portaling\eduling\cat\n_l\munoz-article-nl.pdf>.

ASKOREN ARTEAN (2002): Marco común europeo de referencia para las lenguas: aprendizaje, enseñanza, evaluación. Anaya, Madril.

ACOSTA, V. (2006): *La sordera desde la diversidad cultural y lingüística. Construyendo centros inclusivos en la educación del alumnado con sordera.* Bartzelona. Masson Elsevier.

ALONSO, P. (1991): *Evaluación curricular: Detección y evaluación en el proceso de enseñanza/aprendizaje de los alumnos sordos*. Madril. Centro Nacional de Recursos para la Educación Especial-MEC.

ALONSO, P.; DOMÍNGUEZ, A.B. (2004): *La educación de los alumnos sordos hoy.* Perspectivas y respuestas educativas. Málaga. Aljibe.

ÁLVAREZ, A.; DEL RÍO, P. (1990): «Educación *y Desarrollo: la teoría de Vigotsky y la zona de desarrollo próximo*», in Marchesi, A.; COLL, C.; PALACIOS, J.: *Desarrollo psicológico y Educación II. Psicología de la Educación.* Madril. Alianza Psicología.

ASENSIO, M. (1989): *Los procesos de lectura en los deficientes auditivos.* Argitaratu gabeko doktorego-tesia. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

CALVO, J. C. (1999): *La sordera. Un enfoque socio-familiar.* Salamanca. Amarú. (Psicología, 46)

CLAUSTRE CARDONA, M. ETA BESTE BATZUK (2010): Alumnado con pérdida auditiva. Escuela inclusiva: Alumnos distintos pero no diferentes. Bartzelona. GRAO.

CONRAD, R. (1979): *The Deaf School Child.* Londres. Harper & Row.

CREENA (2006): *Alumnado con grave discapacidad auditiva en Educación Infantil y Primaria. Orientaciones para la respuesta educativa.* Iruñea. Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa.

CUMMINS, J. (2002): *Lenguaje, Poder y Pedagogía.* Madril. Morata.

DOMÍNGUEZ, A.B.; ALONSO, P. (2004): *La educación de los alumnos sordos hoy. Perspectivas y respuestas educativas.* Málaga. Aljibe.

DOMÍNGUEZ, A.B. eta VELASCO, C. (1999): *Lenguaje escrito y sordera. Enfoques teóricos y derivaciones prácticas*. Salamanca. P.

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. *Oinarrizko Hezkuntzarako curriculumaren dekretua (azaroaren 13ko EHAA).*

*Eusko Jaurlaritza.* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. *Haur Hezkuntzarako curriculumaren dekretua.*

GILLOT, D. (1998): *Informe de 115 proposiciones sobre los derechos de los sordos.* Frantziako Parlamentua eta Ezintasunaren Europako Foroa (EEF).

JÁUDENES, C. ETA BESTE BATZUK (2004): *Manual Básico de Formación Especializada sobre Discapacidad Auditiva.* 3. edizioa. Madril. Fiapas.

JUÁREZ, A.; MONFORT, M. (2001): *Algo que decir. Hacia la adquisición del lenguaje. Manual de orientación para padres.* Madril. Entha.

MARCHESI, A. (arg.) (1987): *El desarrollo cognitivo y lingüístico de los niños sordos.* Madril. Alianza.

MC LAUGHLIN (2006): *Mitos y falsas creencias acerca del aprendizaje de una segunda lengua: lo que todos profesor debería olvidar.* Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura, 41. zk.

PEÑA CASANOVA, J. et al. (1981): *Sordera Central*. Logopedia Fonoaudiológica. I. liburukia, 2. zk. (86-91), 1981.

SILVESTRE, N. ETA BESTE BATZUK (2003): *Sordera.  Comunicación y aprendizaje.* Bartzelona. Masson.

TORRES, S. eta beste batzuk (1995): *Deficiencia auditiva. Aspectos psicoevolutivos y educativos.* Málaga. Aljibe. (Educación para la diversidad)

VALMASEDA, M. eta beste batzuk (1991): *Comunicación y lenguaje. El lenguaje de los alumnos sordos.* Madril. Centro Nacional de Recursos para la Educación Especial-MEC.

VERDUGO, M.A. et al. (1998). *Personas con discapacidad. Perspectivas psicopedagógicas y rehabilitadoras.* Madril. Siglo XXI de España Editores, S A.

VIGOTSKY, L.S. (1979): *El desarrollo de los procesos psicológicos*. Bartzelona. Crítica.

VIGOTSKY, L.S. (1996): *Pensamiento y Lenguaje*. Bartzelona. Paidós.

# Bigarren atala

## Txertatzeko eredu programa

# HAUR HEZKUNTZA
# HIZKUNTZAK: KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA

## SARRERA

Eremu honek banakoaren eta ingurunearen arteko harremanak zabaltzen laguntzea du xede. Hizkuntzak barneko munduaren eta kanpokoaren arteko lotura dira, tresna egokia baitira errealitatea adierazteko, norberaren jokabidea arautzeko, harremanetarako, eta pentsamenduak, sentimenduak, bizipenak eta abar adierazteko.

Haurrek eremu honetan bildutako edukietan aurrera egin ahala, komunikatzeko eta adierazteko dituzten tresnak hobetuko dituzte. Horrek norberaren, gizarte-ingurunearen eta ingurune fisikoaren ezagutzan aurrera egitea dakar.

Haur Hezkuntzako etapan hasten, zabaltzen eta dibertsifikatzen dira haurrek jaiotzen direnetik izan eta lantzen dituzten bizipenak eta komunikatzeko eta adierazteko moduak. Lehendabizi, gorputzaren eta keinuen bidezko komunikazio modua erabiltzen dute, harreman- eta orientazio-behar oinarrizkoak asetzeko, eta hortik hizkuntza guztiak garatzera pasatzen dira, ahozko hizkuntza bereziki, helduekiko harremanei esker.

Etapak aurrera egin ahala, haurrak inguruarekin duen harremana aberastu eta sakondu egiten da, beste adierazpen-bide batzuk ezagutzen ditu eta parekoen taldearekin eta helduekin komunikaziozko harremanak sendotzen ditu. Komunikazioetan gero eta eduki landuagoak sartzen dira eta adierazpen konplexuagoak egiteko aukera emango dioten kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak barneratuko ditu.

Komunikazio-trebetasunak ikasteko, mezuak jasotzeari eta interpretatzeari loturiko gaitasunak indartu behar dira, bai eta mezuak igortzea edo ekoiztea helburu dutenei loturikoak sendotu ere. Horrela, mundua hobeto ulertzen eta modu originalean, irudizkoan, sortzailean eta funtzionalean adierazten laguntzen du.

Hauek dira eremu honetan biltzen diren hikuntzak: hitzezkoa, zeinu-hizkuntza, arte-hizkuntza, gorputz-hizkuntza, ikus-entzunezko hizkuntza eta informazio- eta komunikazio-teknologien hizkuntza. Askotariko adierazpen modu horiek garatzean, esanahiak negoziatuz, haurrek aurrera egingo dute, eta gizarteko arauen kodeak modu esanguratsuan eta funtzionalean eskuratuko dituzte.

Haur Eskolak komunikazio-eremua izan behar du, haurrei esanahietan aberatsa, argia eta ondo egituratua den hizkuntza-eremua eskainiko dien topalekua. Baina, batez ere, elkarrizketa egiteko aukera asko eskaini beharko dizkie; hezitzaileekin zein parekoekin elkarrizketan jarduteko aukera asko, hipotesiak probatu eta beren burua zuzendu dezaten. Haurren ekoizpenetan sor daitezkeen akatsak hizkuntza eraikitzeko prozesu aktiboaren seinaletzat hartu behar dira.

Idazketa haurraren inguru hurbileko beste elementu bat da. Haurraren arreta erakartzen du eta, helduek egiten duten bezala, idazketarekin elkarrekintzan jarduteko nahia pizten du haiengan. Ikasgelan irakurketa eta idazketa modu funtzionalean eta esanguratsuan erabiltzeak, hezkuntzako esku-hartze egokiarekin, aukera emango die testu idatzien zenbait bereizgarri ezagutzen hasteko, bai eta testu idatzien ohiko ezaugarriak ezagutzen hasteko ere. Ezagutza hori Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloan osatu behar da.

Plastika-hizkuntzaren bitartez, haurrek errealitatea aztertzen dute, errealitatearen inguruan duten ezaguera islatzen dute, beren burua adierazten dute, eta pizgarria da trebetasun eta gaitasun berriak eskuratzeko, bai eta sentikortasun estetikoa eta sormena pizteko ere.

Musika-hizkuntzak pertzepzioari, erritmoari, kantuari, soinudun objektuak eta instrumentuak erabiltzeari, gorputz-mugimenduari eta sorkuntzari loturiko gaitasunak garatzeko aukera ematen du. Hori, besteak beste, arretaz entzutetik, aztertzetik, manipulaziotik eta soinuekin eta musikarekin jolastetik sortzen da.

Gorputz-hizkuntzak adierazpenezko dimentsioan sartzeko aukera ematen du, jarrerek, keinuek, harreman tonikoak, begiradek eta antzekoek osatutako adierazpidean, hain zuzen. Halaber, haurraren bizipen emozionalak kanporatzen ditu, eta haurra gero eta hobeto egokitzen da inguruarekiko harremanean bizitako egoeretara. Objektuekin egiten duen jolas horren bitartez, eta niaren eta munduaren arteko etengabeko dialektikan, bere gorputzaz jabetzen hasten da haurra, errealitatearekin harremanetan jartzeko bitartekoa baita hura, eta bere jarduera gero eta zehatzago erregulatzea lortzen du.
Haurren bizitzan dauden ikus-entzunezko hizkuntzak eta informazio- eta komunikazio-teknologietako hizkuntzak hezkuntzazko trataera berezia eskatzen dute, haurrak haiek egoki eta dagokien garrantziaz erabiltzeko. Hezkuntzazko trataera horren bidez, haurrak ikus-entzunezko mezuak interpretatzen eta ulertzen has daitezen eta modu egokituan eta sormenez erabil ditzaten lortu nahi da.

Hizkuntza horien guztien bidez eginiko komunikazioa kultura aberasteko tresna da. Komunikazio horren bitartez heltzen dira haurrengana inguruko berezko tradizioak, edukiak eta adierazpen moduak, bai eta urrutitik datozen hainbat eta hainbat kultura-adierazpen ere.

## HELBURUAK

«Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena» eremuak, etapan, haurrek honako gaitasun hauek eskura ditzaten izango du xede:

1. Hizkuntza horiez guztiez jabetzea pixkanaka, beharrak, lehentasunak, sentimenduak, esperientziak eta errealitatearen errepresentazioak adierazteko.
2. Gorputz-, plastika-, musika- eta teknologia-hizkuntzekin saiakuntzak egitea, haiekiko interesa erakustea eta erabiltzea, hartara, bai egoerak, bizipenak, beharrak eta inguruko elementuak adierazteko, bai eragin estetikoak eragiteko eta gozatzeko ere.
3. Hizkuntza, ideiak eta sentimenduak adierazteko asmoz, komunikatzeko, irudikatzeko, ikasteko eta gozatzeko tresna gisa erabiltzea.
4. Arian-arian, ahozko hizkera norberaren jokabidea eta bizikidetza arautzeko erabiltzea, eta horretarako garrantzitsua dela ohartzea.
5. Beste haurren eta pertsona helduen mezuak ulertzea era askotariko hizkuntza-testuinguruetan; eta harreman horiek zuzentzen dituzten arauak ezagutzea, komunikazio-asmoak egoki interpretatzeko.
6. Komunikazioaren aldeko jarrera erakustea, bai hizkuntza ofizialetan, bai atzerriko hizkuntzetan komunikatzean, bestelako errealitate eta kultura batzuk ere ezagutzeko.
7. Kultura-tradizio desberdineko zenbait literatura-testu ulertzea, ozen irakurtzea, kontatzea eta berregitea, haiekiko interesa izan, balioetsi eta haietaz gozatzeko.

8. Plastikako, ikus-entzunezko, teknologiako, antzerkiko, musikako eta gorputzaren inguruko ekoizpenetan modu sortzailean parte hartzea hainbat teknika erabiliz, komunikazio-aukerak zabaltzeko eta kultura-egitatea ulertzen hasteko.
9. Hizkuntza idatziaren gizarteko erabilerak ezagutzen hastea, hizkuntza idatziaren funtzionamendua aztertzeko, eta komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko tresna gisa balioesteko.
10. Komunikatzeko asmoa helburu, atzerriko hizkuntza bat ahoz erabiltzen hastea komunikatzeko asmoarekin, ikasgelako ohiko egoeretan parte hartzeko.
11. Teknologiako tresnak erabiltzen hastea eta tresna horiek komunikatzeko duten gaitasuna aintzat hartzea, arian-arian informazio- eta ikaskuntza-iturri gisa erabiltzeko.

## EDUKIAK

### LEHEN ZIKLOA

***1. Multzoa. Hitzezko komunikazioa eta zeinu hizkuntza.***

- Ohiko komunikazio-egoeretan, ahozko hizkuntzaren ulermena eta adierazpena pixkanaka garatzea, honetarako bide gisa: errealitateaz jarduteko, beharrak eta sentimenduak adierazteko, esperientziak gogorarazteko eta norberaren eta besteen jokabidea arautzeko.
- Norberaren eta besteen komunikazio-asmoetara gero eta gehiago egokitzea.
- Hizkuntzaz kanpoko zeinuak ezagutzea eta, pixkanaka, haiek erabiltzea (keinuak, aurpegi-adierazpena), komunikazioaren esanahia sendotzeko.
- Ahozko adierazpenarekiko eta zeinu bidezko adierazpenarekiko interesa eta ekimena, norberaren hizkuntza-ekoizpenak hobetzeko: lexikoa, perpausak...
- Komunikazio-trukea zuzentzen duten oinarrizko arauak erabiltzen hastea (hizketan ari denari begiratzea, txanda itxarotea, arretaz entzutea...).
- Era bateko edo besteko euskarrietan idatzitako testuak erabiltzeko interesa eta ekimena (ipuinak, aldizkariak, liburuak, horma-irudiak, egunkariak...).
- Irudiak interpretatzea eta adierazpen grafikoko moduak bereizten hastea (marrazkiak, zenbakiak, idatzizko hizkuntza...).
- Hainbat testu-mota (ipuinak, olerkiak, abestiak, errimak, aho-korapiloak, asmakizunak, deskribapenak...) arretaz entzuteko eta gogora ekartzeko interesa izatea.
- Kultura-tradizioko testu errazak ezagutzea eta gogora ekartzea.

***2. Multzoa. Komunikatzeko beste modu batzuk: plastikakoa, musikakoa eta gorputzaren bidezkoa.***

- Zentzumenak aztertzea eta plastikako ekoizpenetarako berariazkoak zein berariazkoak ez diren materialak eta tresnak erabiltzea. Material eta tresna horien ezaugarri batzuk aurkitzea.
- Plastika-adierazpenarekiko interesa eta norberaren eta besteen ekoizpenekiko errespetua.
- Oinarrizko trebetasunak eta teknikak erabiltzen hastea. Manipulazio-trebetasun finak koordinatzen eta kontrolatzen hastea. Materiala eta tokiak zaintzen parte hartzea.
- Norberaren gorputzak adierazteko eta komunikatzeko dituen aukerez jabetzea eta haiekin saiakuntzak egitea.
- Ahotsaren, norberaren gorputzaren, eguneroko objektuen eta musika-tresnen soinu-aukerak aztertzea, ikaslearen ezaugarri espezifikoen arabera.

- Zenbait soinu eta kontraste entzumenaren bitartez bereizten hastea: zarata/isiltasuna, luzea/motza, gogorra/leuna...
- Dramatizazio-, imitazio- eta dantza-jardueretan eta gorputz-adierazpeneko bestelako jolas batzuetan parte hartzeko interesa.
- Taldeko proiektuak egiten parte hartzea eta inguruan dauden era bateko eta besteko ekoizpen artistikoekiko interesa.

**BIGARREN ZIKLOA**

***1. Multzoa: hitzezko hizkuntza. Entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea.***

- Ahozko testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, atsotitzak, asmakizunak..., betiere, ikaslearen ezaugarri espezifikoetara egokituta.
- Eguneroko egoeretan, helduen eta beste haur batzuen komunikazio-asmoak ulertzea, hizkuntzaz kanpoko alderdiak ere kontuan hartuta.
- Eguneroko testuinguruetan, informazioari, beharrei, emozioei eta nahiei dagozkien ahozko mezuak edo/eta zeinu bidezkoak ekoiztea.
- Ahozko testuak ekoiztean, gero eta egokiago erabiltzea lexikoa eta sintaxi-egiturak, komunikazio-sistema handigarriak eta alternatiboak erabiliz lagungarri modura.
- Eguneroko bizitzako gertakariak, kontuak eta gorabeherak, denborari dagokionez, modu ordenatuan gogoratzea eta kontatzea, komunikazio-sistema alternatiboak erabiliz lagungarri modura.
- Hizkuntzaz kanpoko zeinuak (keinuak, gorputz-adierazpena...) erabiltzea, igortzen diren mezuen esanahia indartzeko.
- Pixkana eta solaskide gutxirekin, ohiko komunikazio-egoeretan parte hartzea eta modu aktiboan entzutea, ikasleak komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Hizketaldiak eta elkarrizketak hasteko eta haiei eusteko estrategia egokiak erabiltzea (apelazioak, esku-hartzeetan txandakatzea, ikusizko eta keinuen bidezko harremana...), komunikazio-egoeretan.
- Ikus-entzunezko bitartekoek igortzen dituzten mezuak interpretatzen hastea.
- Ahozko hizkuntza eta zeinu-hizkuntza komunikaziorako tresna gisa eta norberaren eta besteen jokabidea arautzeko laguntza gisa hartzea eta balioestea.
- Hizkuntzak eta dialekto-aldaerak (zeinu-hizkuntza barne) erabiltzeko interesa izatea eta errespetatzea.
- Komunikazio-ohituretan eta ohiko egoeretan atzerriko hizkuntzan parte hartzeko interesa izatea.
- Hizkuntza idatzira hurbiltzen hastea.
- Hizkuntza idatzira hurbiltzea, komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko bide gisa.
- Testu idatzietan izaten diren irudiak manipulatu eta interpretatzea, eta irudien eta testuen artean esanahi-harremanak ezartzea.
- Idatzizko moduak eta adierazpen grafikoko bestelako modu batzuk (marrazkiak, grafikoak, zenbakiak...) bereiztea.
- Ohiko euskarrietan dauden testu idatzi esanguratsu batzuk interpretatzea.
- Hizkuntza idatziko hainbat euskarri gero eta modu autonomoagoan erabiltzea; besteak beste, liburuak, aldizkariak, egunkariak, ordenagailuak, horma-irudiak, etiketak...
- Kode idatzia zuzentzen duten arauak aztertzen hastea. Hainbat hitz idatziren arteko aldeak eta antzekotasunak hautematea.
- Helduek edota haurrek beraiek irakurritako testuak ulertzeko interesa izatea, ikasle gorrek informazioa eskuratzeko dituzten aukeren arabera egokituta, betiere.
- Idazketa benetako helburuak betetzeko erabiltzen hastea.

- Gero eta irakurgarriagoak diren eta hizkuntza idatziko arauei gero eta hobeto egokitzen zaizkien testuak ekoizteko interesa izatea.
- Literatura aztertzen hastea.
- Literatura-testu errazak entzutea eta ulertzea, bai tradizionalak bai eta gaur egungoak ere, plazer- eta ikaskuntza-iturri gisa, ikasle gorrek informazioa eskuratzeko dituzten aukeren arabera egokituta, betiere.
- Literaturako testu errazak dramatizatzen parte hartzea.
- Kultura-tradizio bateko eta besteko literatura-testuak ezagutzeko interesa eta jakin-mina.
- Liburutegia erabiltzen hastea eta liburutegiak informazioa jasotzeko, ikasteko, entretenitzeko eta gozatzeko duen garrantzia aintzat hartzea.

***2. Multzoa: ikus-entzunezkoen hizkuntza eta informazio eta komunikazio teknologiak.***

- Tresna teknologikoak erabiltzen hastea; besteak beste, ordenagailua, unitate periferikoak, soinu- eta irudi-erreproduzitzaileak edo kamerak, irakaskuntza eta komunikazioa errazteko tresna baitira.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak behar bezala eta modu esanguratsuan erabiltzeko beharraz jabetzen joatea.
- Ikus-entzunezko ekoizpenak ikustea, hala nola filmak, bideoak edo irudien aurkezpenak. Horien edukiei eta estetikari buruzko balioespen pertsonala egitea.
- Errealitatea eta ikus-entzunezko adierazpena bereizten ikastea pixkanaka.
- Ikus-entzunezko ekoizpenak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea ahozko bi hizkuntzak eta zeinu-hizkuntza finkatzeko.

***3. Multzoa: arte hizkuntza.***

- Plastikako ekoizpenak egitea hainbat material eta teknika erabiliz.
- Plastika-hizkuntza osatzen duten zenbait elementuren berri izatea (lerroa, itxura, kolorea, ehundura, espazioa...) eta horiekin saiakuntzak egitea.
- Gertakariak, sentimenduak eta emozioak, bizipenak edota fantasiak marrazkien eta plastikako ekoizpenen bitartez adieraztea eta komunikatzea.
- Plastikako hainbat lan-mota gero eta modu doituagoan interpretatzea eta balioestea.
- Ahotsaren, norberaren gorputzaren, materialen, eguneroko objektuen eta musika-tresnen soinu-aukerak aztertzea, ikasle gorrek entzuteko dituzten aukeren arabera.
- Soinu eta erritmo errazak ekoiztea, melodiak interpretatzeko edo bestelako ekoizpen batzuen akonpainamendua egiteko: testuak, irudiak..., betiere, musika-tresnak eta horiek erabiltzeko baldintzak ikasle gorren aukeretara egokituta.
- Mugimenduaren eta soinuaren arteko eta hitzaren eta soinuaren arteko koordinazioa, jolasak, abestiak, errimak eta ipuinak abiapuntu hartuta.
- Ingurune naturaleko eta sozialeko soinuak ezagutzea: animaliak, telefonoa, sirenak..., ikasle gorrek entzuteko dituzten aukeren arabera.
- Soinuen zenbait ezaugarri bereizgarri eta oinarrizko kontraste entzumenaren bitartez bereiztea (zarata/isiltasuna, luzea/motza, gogorra/leuna, altua/baxua).
- Kultura-inguruneko folklorea eta bestelako adierazpen artistiko batzuk aintzat hartzea eta haiekiko interesa izatea.
- Ekoizpen artistikoko talde-proiektuetan parte hartzeko ekimena eta interesa izatea.

***4. Multzoa: gorputz hizkuntza.***

- Adierazpen-baliabide gisa, norberaren gorputzak komunikatzeko dituen aukerak aztertzea, horietaz jabetzea eta erabiltzea.
- Objektuak harremanetako eta adierazpenetako bitarteko gisa erabiltzea.
- Adierazpen- edo komunikazio-xedearekin, gorputza eta mugimenduak era bateko edo besteko ezaugarriak dituzten beste pertsona, espazio, denbora eta objektu batzuetara doitzea.
- Jolas sinbolikoen bidez, pertsonaiak eta egoera errealak edo irudimenezkoak antzeztea.
- Dramatizazio-, imitazio- eta dantza-jardueretan eta gorputz-adierazpeneko bestelako jolas batzuetan parte hartzea.
- Besteen adierazpen, errepresentazio eta dramatizazioekiko interesa eta errespetua izatea.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Haur Hezkuntzako etaparako ebaluazio-irizpideak, oro har, behatu eta neur daitezkeen jokabideei buruzko adierazleetan zehazten dira.
Ebaluazio-irizpide horiek ikasle gorren ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta aplikatuko dira.

**1 Komunikazio-egoeretan parte hartzea elkarrizketen bitartez, txanda-sistemaren bitartez eta harreman sozialeko jolasen bitartez.**

1.1 Gai da gelako komunikazio-egoeretan gero eta aldi luzeagoetan arretari eusteko.
1.2 Harremanetako komunikazio-egoeretan gero eta erantzun zabalagoak eta egokiagoak ekoizten ditu, beharrezkoa denean, komunikazio-sistema alternatiboen edo/eta komunikazio-sistema handigarrien laguntzarekin.
1.3 Modu bateko edo besteko komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu bere beharrak, sentsazioak edo nahiak adierazteko.
1.4 Jolas-egoeretan, helduen komunikazio-asmoak ulertzen ditu, betiere, ikasle gorrari egokitutako hizkuntzaz kanpoko alderdiak erabiltzen baditu helduak.

**2 Parekoekiko eta helduekiko harremanetan, komunikazio-asmoak kontuan izanik erabiltzea ahozko hizkera, eta arretazko eta errespetuzko jarrera erakutsiz entzutea.**

2.1 Ahozko hizkuntzaz baliatzen da (hizkuntzaz kanpoko alderdiak ere erabiliz), ohiko egoeretan eta solaskide gutxirekin komunikatzeko, gizarteko zenbait konbentzio erabiliz (entzutea, hizketakideari begiratzea, hitz egiteko txanda itxarotea...).
2.2 Hainbat motatako ahozko testuak eta zeinu-hizkuntzakoak entzuten eta ulertzen ditu (mezuak, kontakizunak, literatura-ekoizpenak, deskribapenak, azalpenak, informazioa...).
2.3 Parte hartzen du ahozko hizkuntzari loturiko jardueretan: olerkiak ozen esaten, erretolika baten zatiak errepikatzen, ipuinen bukaera aurresaten..., ikasle gorrak entzuteko dituen aukeren arabera.
2.4 Galderak egiten ditu, ulermena hobetzeko.
2.5 Arretaz eta errespetuz entzuten du beste solaskide batzuek beste hizkuntza edota dialekto-aldaera batzuetan nahiz zeinu-hizkuntzan adierazten dutena.
2.6 Denboran gero eta modu ordenatuagoan kontatzen ditu eguneroko gertakizunak eta bizipenak.
2.7 Egoera-aldarteen, lehentasunen eta sentimenduen berri ematen du.
2.8 Ikasgelan, parte hartzen du atzerriko hizkuntza erabiltzen den egoeretan, hitz egiteko dituen aukeren arabera.

**3 Ikasgelan proposatzen diren irakurketa- eta idazketa-egoeretan interesa izatea eta parte hartzea, eta testu idatziak erabiltzen, haien helburuak ulertzen eta kode idatziaren zenbait ezaugarri ezagutzen hastea.**

3.1 Idatzizko moduak eta adierazpen grafikoko beste modu batzuk (ikurrak, irudiak, zenbakiak...) bereizten ditu.
3.2 Ikasgelan sortzen diren irakurketa- eta idazketa-proposamenetan parte hartzen du.
3.3 Komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko, gero eta modu autonomoagoan erabiltzen ditu hizkuntza idatziko euskarri batzuk (liburuak, aldizkariak, egunkariak, ordenagailuak, horma-irudiak eta abar).
3.4 Hizkuntza idatzia erabiltzen den egoera esanguratsuei loturiko testu errazak ekoizten ditu, eta ohiko idazketa-sistemara egokitzen ditu.

**4 Arte-, teknologia- eta ikus-entzunezko hizkuntzetako berezko bitartekoak, materiala eta teknikak erabiliz adierazten jakitea eta komunikatzea, eta baliabide horien aukerak aztertzeko, horien ekoizpenekin gozatzeko eta ingurukoekin esperientzia estetikoak eta komunikaziozkoak izateko interesa erakustea.**

4.1 Musika-, teknologia-, ikus-entzunezko, plastika- eta gorputz-hizkuntzan berezkoak diren materialek, tresnek eta teknikek adierazteko dituzten aukerak aztertzen eta saiatzen ditu.
4.2 Parte hartzen du, bai banaka, bai eta taldeka ere, musikako, gorputz-adierazpeneko eta adierazpen plastikoko jardueretan (entzuteko dituen aukeren arabera).
4.3 Arreta eta interesa erakusten du ikusle gisa izaten den kultura-adierazpenetan eta besteen ekoizpenekiko.

# LEHEN HEZKUNTZA
# EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, ATZERRIKO HIZKUNTZA

## SARRERA

Derrigorrezko Hezkuntzaren helburua da pertsona era integralean eta harmoniatsuan garatzea, alderdi intelektualean, afektiboan eta sozialean. Garapen hori gerta dadin, ezinbestekoa da hizkuntza eta literatura ikastea; hau da, jarduera sozial eta indibidual bakoitzean hizkuntza erabiltzeko ahalmena lantzea, eta literatura-testu adierazkorrak zentzuz irakurtzeko trebetasunak eskuratzea.

Giza garapenaren funtsezko faktorea da hizkuntza, bere funtzio bietan: indibiduala eta soziala. Indibiduala, pertsona bakoitzari posible egiten diolako pentsatzea, jakintza egokitzea, jarduteko modua arautzea eta adierazpenak egitea. Soziala, gizarteak zabaldu eta mantentzen duelako, eta, gainera, giza taldeak eratzeko eta garatzeko orduan hizkuntza delako ardatz eta euskarri. Tresna honi esker sortu, sendotu eta zabaltzen da kultura.

Pertsonen bizitza afektibo eta kognitiboarekin lotura estua daukanez, hizkuntzak arautzen ditu sentimenduak, eta bere bitartez ikasi egiten da -bai bizitza, bai jakintza-; bestela esanda, eta esperientzia hitzez adierazten denean, transformatu egiten da, eta beste maila batera igarotzen da. Horregatik, hizkuntza menderatzen duenak tresna egokia du bere burua ezagutzeko, beste pertsona batzuekin harremanak izateko, bizikidetza-arauak finkatzeko, taldean lan egiteko, eta ikuspegi kritikoz eta autonomiaz ikasteko.

Oinarrizko Hezkuntzan arlo hauek irakastearen helburua da bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna garatzea; hots, jakintza eta prozedura egokiak garatzea, behar bezala jardun ahal izateko gizartearen esparru guztietan. Hain zuzen ere, hauexek ikasten dira: bai komunikazioaren printzipio, estrategia eta arauak, bai testuen forma konbentzionalak, bai testuaren zatiak multzo kohesionatuan artikulatzeko prozedurak, bai esaldi zentzuzkoak eta gramatikalak eraikitzeko erregela lexiko-sintaktikoak, bai arau ortografikoak eta prosodikoak.

Literatura-hezkuntza, etapa honetan, adierazpen xumeenetara hurbiltzen da, eta esperientzia atseginak sustatzen dira, literatura-testuak irakurriz eta birsortuz. Irakurriz, idazketa ikertuz, errezitatuz, erretorikako jokoak eginez edo aho-literaturaren testuak entzunez irakurzaletasuna bultzatu behar da, baita ezagutu ere literatura-lanen adierazpen artistikoa eta ondare-balioa.

Gizakiaren hitz egiteko gaitasuna hizkuntza jakinetan gorpuzten da. Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daude –euskara eta gaztelania-, eta eskolaren helburu nagusia da ikasle guztiek bi hizkuntzak jakitea, eta, beraz, euskara erabiltzeari eta ikasteari lehentasuna ematea, era horretan konpentsatzeko gizartean daukan presentzia urriagoa, eta normalkuntza bultzatzeko. Maila horren arabera, bi hizkuntzak egoki eta taxuz erabiliko dira hainbat egoera komunikatibotan, testuinguru desberdinetan, gero eta gradu formalagoan eta konplexuagoan. Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ebaluazio diagnostikoak ikasleek hizkuntza-gaitasunak zer mailatan barneratu dituzten zehazteko tresna eraginkorra izan behar du, ildo horretatik, ezarritako helburuen lorpena bermatzeko hezkuntza-estrategiak egokiak diren aztertzeko modua izan dezagun eta, egoki iruditzuz gero, egokiak diren hobekuntzak txerta ditzagun.

Bestalde, kontuan izan behar da XXI. mendeko gizartea eleanitza eta kultura askokoa dela, eta, beraz, ikastetxearen helburua ikasle eleanitzak lortzea izan behar du, dudarik gabe. Horregatik, mundu honetan —gero eta elkarri lotuagoa, eta mugarri dituenak jakintzaren gizartea, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta pertsonen mugikortasuna— nahitaezkoa da hizkuntza ofizialez gain hizkuntza global esaten zaienetako bat edo batzuk ikastea, era horretan errazagoa izan dadin jendeak elkar ezagutzea, ideiak trukatzea eta kulturek elkar ulertzea. Atzerriko hizkuntzen komunikazioan, ikasleak oinarrizko trebetasun batzuk bereganatu behar ditu, hainbat egoera komunikatibo egunerokotan eta mugatutan. Elebitasuna bermatzea da euskal eskolaren erronketako bat, baina, horrez gain, pertsona eleanitzak hezi behar ditu, gutxienez atzerriko hizkuntza bat behar bezala dakitenak.

Gainera, kontuan izan behar da gaur egun gero eta ikasle alofono gehiago daudela, gure eskola-sistemak eta gizarteak orain arte ezagutu hizkuntzen jabe direnak. Eskolak ikasle horiei lehen aipatutako hizkuntza-helburuak eskaintzeaz gain, lagundu egin behar die beren hizkuntza-ondareari eusten eta balioa ematen, altxor kulturala baita gizarte osoarentzat.

Lehen Hezkuntzako ikasleak, hein batean, eleanitzak direnez, hizkuntza-irakasleak beharturik daude, planteatutako hezkuntza-helburuei eutsita, beren irakaskuntza-metodoak aztertzera eta egokitzera, eta, batik bat, hizkuntzak era integratuan lantzera. Hizkuntzak era integratuan irakastea ebidentzia hauen ondorioa da: batetik, ikasle elebidunak edo eleanitzak etengabe eskura ditu hainbat hizkuntza eta haien bidez ikasitakoa, eta hori guztia bere jakintzaren eta emozioen parte bat da. Bestalde, hizkuntzak ikastea transferigarria da, eta hiztunen inguruan hizkuntza bat baino gehiago daude aldi berean. Beraz, hizkuntza bakoitzaren ezaugarri propioak landu behar dira batetik, eta, bestetik, batera landu hizkuntza guztiek dituzten alderdi komunak; betiere, hizkuntza bakoitza ongi erabiltzen saiatuz.

Baina hizkuntzak irakastearen ardura ez dagokie hizkuntzen irakasleei soilik: eskola osoa dago inplikatua prozesu horretan. Beraz, arlo guztietako irakasleek lagundu behar dute talde-lan horretan, eta bi hori jorratuz bermatu ikasleak gai direla zentzuz ulertzeko eta taxuz adierazteko jakintzaren edozein arlo. Halaber, ahal dela elkarrizketaren bidez eraikiko da jakintza, eta garatuko dira ezagutza- eta hizkuntza-trebetasun nagusiak.

Lehen Hezkuntzan hizkuntza irakasteko abiapuntua da haurrek etapa hasitakoan dakiten hizkuntza erabiltzea. Lehen Hezkuntzaren zeregina da hitz egiteko eta komunikatzeko gaitasun hori zabaltzea, Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan moldatu ahal izan daitezen biziko diren esparru sozial guztietan.

Dena dela, gogoratu beharrekoa da etapa honetan sistematikoki ikasten dela hizkuntza idatzia, hau da, eskolako ikaskuntza nagusietako bat. Hori ikastea funtsezkoa da pertsona ororen bizitza soziala eta akademikoa aurrera eramateko. Komunikatzeko gaitasuna hizkuntza-trebetasun guztien batasuna denez —eta ez soilik hizkuntza bakar baten ezagutza sakon eta isolatua—, era integratuan ikasi behar dira hizkuntzak, eta haurrak bere inguruaz dakienarekin bat joan behar du ikaste-prozesu horrek.

Gizarteko jardueren esparru esanguratsuetan hitz egin, idatzi, entzun eta irakurri ahal izateko trebetasunak eta estrategiak dira curriculumaren ardatza. Trebetasun horiek hiru multzotan ikasten dira: 1. «Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrizketan aritzea»; 2. «Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea». 3. «Literatura-hezkuntza». Multzo horiekin lotuta, 4. multzoak −«Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa» − eta 5. multzoak −«Hizkuntzaren dimentsio soziala»− aztertzen dute hizkuntzek sistema gisa duten funtzionamendua, hizkuntzen erabilera-arauak, hizkuntzen arteko erlazioak eta hizkuntzen eta hiztunen artekoak.

Eduki-multzoetan era analitikoan azaltzen dira hizkuntza eta literatura irakasteko edukiak, eta ziklo bakoitzean zer mailara iritsi behar den agertzen da, baina ez da finkatzen gelako ekintzen ordena ez antolaketa. Horregatik, multzoen ikaskuntza integratu egin behar da programazioak egiterakoan, eta ariketak gelara eramaterakoan. Gogora bedi gai horiek lantzeko oinarrian prozedurazko edukiak daudela, eta horien zerbitzura daudela kontzeptuzko edukiak.

1. eta 2. multzoak, hizkuntza-trebetasunei buruzkoak, hizkuntzaren erabilera-eremu hauetan kokatzen dira: jendarteko harremanak, erakundeak, hedabideak, esparru akademikoa eta literatura-komunikazioa. Hizkuntza-trebetasunak hainbat erabilera-esparrutan mugatzen dira, zeren eta, gizartearen esparrua eta erabilitako testu-mota aldatu ahala, berariazko trebetasun eta estrategiak behar baitira testuak ulertu eta sortzeko.

Ahozko komunikazioarekin zerikusia duten hizkuntza-trebetasunak ahaztu egin izan dira eskola-sisteman. Oso garrantzitsuak dira, ordea, bai ikasleek komunikatzeko gaitasuna erabat garatzeko, bai gela barruko harremanak garatzeko eta esanahia negoziatzeko, horien bitartez garatzen baitira ezagutza- eta hizkuntza-trebetasunak, eragin zuzena dutenak arlo guztietako jakintza osatzeko orduan.

Era berean, nabarmendu behar da hizkuntzak hitz egitea, entzutea, irakurtzea eta idaztea elkarri loturiko jarduerak direla, eta, beraz, komeni dela hizkuntzak ikasteko ariketen artean sartzea hizkuntza-erabileraren bi alderdiak: hizkuntzaren ulermena eta sormena.

Literatura irakasteko edukiak 3. multzoan jasotzen dira, eta bertan azaltzen dira, batetik, literaturaren konbentzio nagusiak —gehienbat poesia eta narrazioarenak—, eta, bestetik, literatura-lanen sorrerako testuinguru linguistiko, historiko eta kulturalari buruzko informazioa aplikatu beharra, datu horiek esanguratsuak diren heinean etapa honetako irakurle batek testua interpretatzeko.

4. multzoak -«Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa»- hizkuntzaren gogoetari buruzko edukiak dakartza. Multzo hori osatzearen arrazoia da hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak eskuratzeko eta garatzeko ezinbestekoa dela gogoeta egitea hizkuntzen alderdi desberdinez: testuinguruaz, diskurtsoaz eta gramatikaz.

5. multzoa −«Hizkuntzaren dimentsio soziala»- hizkuntzen aniztasunak eta, besteak beste, hizkuntzen arteko harremanek osatzen dute. Egungo gizarte eleanitzaren baitan, euskal gizartea aurrerantz doa elebitasun desorekatutik eleaniztasunerantz. Egoera horrek behartzen gaitu egoera soziolinguistiko desberdinei buruz gogoeta egitera, jarrera onez ikus dadin hizkuntzen aniztasuna oro har, eta, zehazki, euskararen normalkuntza-prozesua.

Arloaren helburua ikasleen komunikatzeko gaitasuna garatzea denez, ezinbestekoa da, 4. eta 5. multzoetan jasotako jarduerak egiteko, aurretik hizkuntzaren erabilera hobetu izana.

Ikaskuntza hori Lehen Hezkuntzan hiru zikloetan mailakatzen da irizpide hauei erreparatuta: diskurtsoak ikasleen esperientzia linguistikoarekin eta kulturalarekin duen harremanari, eta testuen barne-antolaketaren konplexutasunari.

Hizkuntzen curriculuma integraturik egoteko, eta ikasleak bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko batean komunikatu ahal izateko, ildo hauei jarraitu behar zaie:

- Hizkuntzen irakaskuntzak inklusiboa izan behar du, hau da, ikasle guztiek gai izan behar dute (ama-hizkuntza edozein izanik ere) eleaniztasuna osoki garatzeko.
- Hizkuntzen irakaskuntzak erabileran oinarritu behar du, hau da, hizkuntzak gizartean erabiliz ikasten dira, eta komunikatzeko behar pragmatikoek bideratzen eta errazten dute kodeaz jabetzea.
- Hizkuntzen irakaskuntzak alderdi komunikatiboa izan behar du oinarrian, hau da, gelak izan behar du komunikatzeko gune pribilegiatua, ikasleak denetariko jarduera komunikatibotan parte har dezan.
- Hizkuntzen irakaskuntzak hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera ona lantzen lagundu behar du, kontuan hartuz hizkuntzak zeinen garrantzitsuak diren gizarteko harremanetan eta gizabanakoen garapen emozionalean.

Ildo horretatik, ezinbestekoa da komunikazio-proiektu esanguratsuei jarraituz ikasteko metodologia bat ezartzea, hainbat mota eta generotako testua izatea komunikazio-unitate nagusia, sekuentzia didaktikotan ikasiz komunikazio zehatza lortzea, eta lehentasuna ematea prozedurazko edukiei, «egiten jakiteari», eta ez adierazpen hutsezko jakintzari.

Metodologia horren arabera, irakasleak aldatu egin behar ditu ikasleen komunikazio-gaitasunak izango duen garapenari buruzko aurreikuspenak, eta ebaluazio-proposamen eta –irizpide egokiak finkatu behar ditu, ikasle bakoitzak albait gehien ikas dezan.

## OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO ARLO HONEK EGINDAKO EKARPENA

Hizkuntzek curriculumaren oinarrizko gaitasun guztiak garatzeko balio dute, tresna pribilegiatuak baitira komunikatzeko, mundua irudikatzeko, gizartean txertatzeko, sentimenduak adierazteko eta sormena sustatzeko, are gehiago hizkuntzak ikuspegi instrumentaletik irakasten badira, curriculumaren proposamen honetan bezala.

Hizkuntzaren bidez gizarteko jarduerek eskatutako elkarrekintzak behar bezala egitea da hizkuntzen curriculumaren helburua, eta, hori horrela izanda, alderdi orotatik garatzen da hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Izan ere, hizkuntzak ikastearen helburu nagusia da ikasleen komunikazio-gaitasuna garatzea, hau da, denetariko testuak ulertu eta sortu ahal izatea, etapa bakoitzaren komunikazio-egoeretara egokituak era koherentean, kohesionatuan eta zuzenean. Bestalde, hizkuntza jakin bat erabiltzeko trebetasunak eta estrategiak, bai eta hizkuntzari buruzko gogoeta-prozesuak ere, besteei transferitzeko moduko ikasketak dira, eta denon baitako hizkuntza-gaitasuna garatzeko balio dute. Printzipio horixe da hizkuntzen curriculum integratuaren oinarrietako bat.

Ezagutzaren esparruan jarraituz, hizkuntza mugarria da, bere bitartez sortu, eraiki, metatu eta zabaltzen baita jakintza. Errealitatearen alderdi guztiak menderatu ahal izateko, jakin beharra dago horietaz nola jarduten duen diziplina bakoitzak. Hizketan, entzuten, irakurtzen eta idazten ikasten bada, ez da soilik elkarrekin komunikatzeko gaitasuna eskuratzeko izaten, jakintza berriak eskuratzeko ere egiten baitira horiek guztiak. Komunikatzeko ez ezik, hizkuntza tresna ezin hobea da mundua irudikatzeko ere, eta pentsamenduaren eta jakintzaren oinarrian dago. Beraz, jakintza eskuratzeak eta hizkuntzaren bidez ezagutza eraikitzeak harreman zuzena dauka ikasten ikasteko gaitasunarekin.

Hizkuntzak, jakintza finkatzeaz eta iraunarazteaz gain, posible egiten du jakintzara era sistematikoan eta errepikatuan iristea, hura gabe ezinezkoak liratekeen harremanak ezartzea, eta bidea ematen du bestelako munduak ezagutzeko, gogoeta egiteko, eta nork bere kabuz ikasteko. Bestalde, gizabanakoari posible egiten dio jakintza ordenatzea eta jarduna planifikatzea, norberaren eta inoren esperientziaz gogoeta egitea, eta arrazoibideak aztertzea. Arlo guztiak dira garrantzitsuak ezagutzaren eta hizkuntzaren trebetasunak garatzeko, baina hizkuntzen arloak dira horiei buruz gogoeta egiteko gune egokiak.

Agerikoa da gai horiek baliagarriak direla matematika-gaitasuna garatzeko; izan ere, matematika-gaitasuna izatea beharrezkoa da, datuak eta argudioak argi interpretatzeko eta adierazteko. Halaber, hizkuntzei esker garatzen da zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna, eta jakina da gaitasun horren ezaugarri direla, besteak beste, mundua interpretatzea, mezuak aztertzea, bizimodu bakoitzaren arrazoiak eta ondorioak zentzuz argudiatzea, eta gelan jakintzaren baitako askotariko diskurtsoak erabiltzea.

Hizkuntza erabiltzen ikasteak esan nahi du, halaber, problemak aztertzen eta konpontzen ikastea, planak egitea eta erabakitzeko prozesuei ekitea, komunikazio-egoera bakoitzean estrategia egokiak erabiltzea; izan ere, geure jarduna arautzea eta orientatzea da hizkuntzaren funtzioetako bat. Horregatik, hizkuntzan trebatuz garatu egiten da ekimen pertsonala, eta norberaren jarduteko modua arautzen, gero eta era autonomoagoan. Bestalde, ama-hizkuntzak ez direnak ikasteari buruz, ezinbestekoa da sormena sustatzea, ikaslea arriska dadin konponbide egokiak aurkitzera bere komunikazio-beharrentzat. Hizkuntzak bide ezin hobea dira barne-prozesu emozionalak eta arrazionalak arautzeko, bai eta komunikazio-trukerako ere, horrela eraikitzen baita nortasuna. Hizkuntza hainbat helburutarako erabiltzen ikasteko prozesuaren bidez, garatu egiten dira oreka emozionala, autoestimua, autonomia eta nork bere ikaskuntza arautzea, denak ala denak lotuak autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasunarekin.

Arlo horiek lagundu egiten dute gaitasun digitala eta informazioaren trataerakoa eskuratzen, haren helburuetako bat baita informazio esanguratsua aurkitzen eta hautatzen laguntzea, beharraren arabera, bai eta gaitasun horrez baliatzea ere, ahozko eta idatzizko testuak sortzeko. Informazioa euskarri anitzetan aurkitzea eta hautatzea da gaitasun digitala lantzeko bideetako bat. Gaitasun hori lantzeko beste bide bat da euskarri elektronikoen bidez testuak sortzea, oso egokia idazketa prozesuko zereginei eraginkortasunez ekiteko (azken horiek hizkuntza-arloetako funtsezko edukia dira).

Teknologia digitalaren bilakaerari esker, komunikatzeko era berriak agertu dira, eta, gainera, baita testu-genero berriak ere, gelan landu beharrekoak. Era berean, ugaldu egin dira, beste hizkuntza eta kultura batzuekin benetan komunikatzeko, haiekin egiazko harremana izateko eta haiengana hurbiltzeko; horiek horrela, erraztu egin da irakurketa eta idazketa gizartean eta elkarkidetzan lantzeko eta jakintza elkarlanean eraikitzeko aukera. Beste ikuspegi batetik, hizkuntza-arloek bide horiek erabiliz zabaldutako informazioarekin kritikoak izateko bidea jarri behar dute.

Hizkuntza komunikazio-bitartekoa da, eta, hala den heinean, sozializazio-prozesuetako funtsezko elementua eta gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna garatzeko osagai oinarrizkoa. Pertsonen arteko harremanen bidez eskuratu eta ikasten da, eta komunikazio-trukean eta gizarteko jardueretan erabiltzen, hainbat helburu lortzeko. Eskolaren esparruan, ezinbestekoa da hizkuntza berariazko zenbait modutan erabiltzen jakitea, gelan parte hartzeko, harreman pertsonalak lantzeko eta taldean ikasteko; hala, hizkuntzaren erabilera modu horiek hizkuntza-irakasgaietan landu behar dira.

Hizkuntza-irakasgaiek lagundu egin behar dute ikasleen hizkuntza-errepertorioa zabaltzen, hartara, arrakastaz molda daitezen gizarteko giro bakoitzean. Hizkuntza-trebetasunak garatzea beharrezkoa da esanahiak negoziatzeko, ikuspuntuak hurbiltzeko eta, besteak beste, gatazkak konpontzeko. Gizarteko harremanen oinarri dira jarduera horiek guztiak.

Hizkuntza jakin bat erabiltzea lagungarri da norberaren nortasuna eraikitzeko, eta erabilera horrek bide ematen du nortasun linguistiko eta kultural kolektiboan parte hartzeko. Ikasle guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ongi jakinda, biak errespetatzen ikasita eta euskara normaltzearen aldeko jarrera izanda, indartu egingo da gizartearen integrazioa eta kohesioa.

Egoera horri erantzuteko, hizkuntza-arloek era integratuan eta osagarrian garatuko dituzte egungo euskal gizartean parte hartzeko behar diren hizkuntza guztiak. Eleaniztasunak erraztu egiten du gizartean parte hartzea eta nazioarteko komunikazioak bultzatzen; gainera, bide ezin hobea da kanpotik informazioa jasotzeko, pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko eta pertsonek elkar ulertzeko.

Hizkuntzaren erabilerak erakusten du hiztunak zer-nolako jarrera duen hizkuntzekiko, hiztunekiko eta hizkuntzen aniztasunarekiko; eta hizkuntza-irakasgaien helburua da ikasleek jarrera ona izatea aniztasun horrekiko. Gainera, munduari buruzko aurreiritzi eta estereotipoak hizkuntzaren bidez nola zabaltzen eta epaitzen diren aztertzeak hobetu egiten du gaitasun hori; eta hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak ezabatzeko xedea betetzen laguntzen du.

Literatura-obrak irakurtzea, interpretatzea eta baloratzea da bide nagusietako bat kultura humanistikorako eta artistikorako gaitasuna lantzeko; gaitasun hori literatura-ondarean eta gizakien betiko kezka funtsezkoen isla diren gaietan sakontzeko bidea dela ulertuta. Hizkuntza-irakasgaien ekarpenak balio erantsia izango du, baldin eta literaturaren adierazpen horiek artearen beste adierazpen batzuekin lotzen badira; hala nola musika, pintura edo zinemarekin. Literatura-komunikazioaren bidez, ikaslea harremanean jartzen da espazioan edo denboran urruti dauden errealitateekin, eta kultura-tradizioan txertatzen da; halaber, ikasleak gizakiaren izaeraz gogoeta egiteko bidea topatuko du, eta eskura izango du hizkuntzaren dimentsio eta alderdi estetikoa. XXI. mendeko gizartean asko zabaldu dira ikus-entzunezko hizkuntzak, eta horiek ere lantzea komeni da, ahal dela haien osagai esplizituak eta inplizituak kritikoki ulertuz.

La lectura, interpretación y valoración de las obras literarias contribuyen de forma relevante al desarrollo de la competencia en cultura humanística y artística, entendida como aproximación al patrimonio literario y a los temas recurrentes que son expresión de preocupaciones esenciales del ser humano. La contribución de estas áreas será más relevante en tanto se relacionen las manifestaciones literarias con otras manifestaciones artísticas, como la música, la pintura o el cine. La comunicación literaria conduce a los alumnos y alumnas al contacto con realidades alejadas en el espacio o en el tiempo, favorece su inserción en la tradición cultural, les ayuda a reflexionar sobre la condición humana y les acerca a la dimensión estética de la lengua. En la sociedad del siglo XXI están muy presentes las nuevas formas de expresión ligadas a los lenguajes audiovisuales, las cuales conviene trabajar haciendo especial hincapié en la comprensión crítica de sus elementos explícitos e implícitos.

# LEHEN HEZKUNTZA
# EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA

## HELBURUAK

Hizkuntzaren ahozko dimentsioarekin lotutako helburuak (1, 2, 3 eta 5) gorreria duten ikasleen ezaugarri espezifikoak kontuan hartuta interpretatuko dira.

Ikasleek gaitasun hauek eskuratzea izango da Euskal Hizkuntza eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura irakasgaiek Lehen Hezkuntzan izango duten helburua:

1. Denetariko ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, ulermen hori komunikazio- eta ikaskuntza-egoera berriei aplikatzeko.

2. Hainbat erabilera-eremutan, egokiro, koherentziaz eta zuzen mintzatzea eta idaztea, komunikazio- premiei erantzuteko.

3. Era egokian elkarrizketan aritzea denetariko egoeretan, errespetuz eta laguntza emanez; horren bidez, norberaren sentimenduez eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, jendartean eraginkortasunez komunikatzeko eta jakintza taldean eraikitzeko.

4. Gizarte-hedabideak, informazio- eta komunikazio-teknologiak eta beste iturri batzuk erabiliz komunikatzea eta laguntza ematea, informazioa lortzea, hautatzea eta prozesatzea, eta jakintza eraikitzea eta bizitza sozialean parte hartzea.

5. Hizkuntzen erabileraren sistemei eta arauei buruzko gogoeta egitea, hizkuntzak ulertzeko eta sortzeko prozeduren harian, hartara, hizkuntzak egoki, koherentziaz eta zuzentasunez erabili eta behar bezala komunikatu ahal izateko, hainbat giro sozial eta kulturaletan; betiere, alde batera utziz hizkuntzaren estereotipoak, hau da, denetariko balio-judizioak eta aurreiritziak.

6. Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta balioestea, berorren aurrean jarrera positiboa izateko, hizkuntza guztiak komunikaziorako bitarteko eraginkorrak direla eta kultura-ondarearen zati direla kontuan hartuta.

7. Ulertuz irakurtzea hizkuntza-erabilera anitzeko esparrutako testuak, ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horren bidez, irakurzaletasuna bultzatzea, informazio-iturria eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko sorburua den aldetik.

8. Literaturaz gozatzea, genero askotako literatura-testuak irakurriz eta entzunez, bai euskal literaturakoak, bai inguruko literaturetakoak, bai literatura unibertsalekoak. Jarduera horiek gozamena eman behar diote ikasleari, eta baliatu egin behar ditu sentikortasun estetikoa handitzeko, hizkuntza aberasteko eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko.

9. Literatura-hizkuntzaren oinarrizko konbentzioak ezagutzen hastea, testuok ulertzeko eta literatura-xedeko testuak egiteko.

10. Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta horrela komunikatzeko gaitasuna hobetzea.

## LEHEN ZIKLOA

### EDUKIAK

Hizkuntzaren ahozko dimentsioarekin lotutako edukiak lantzerakoan, kontuan hartuko dira gorreria duten ikasleen ezaugarri espezifikoak. Ondoren dituzuen aldaketa hauek eredu bat eskaini nahi dute, baina ikasle bakoitzaren inguruabarren arabera egokitu beharko dira.

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea***

- Gela barruko giza harremanetan (zuzenean eta talde txikietan) erabiltzen diren ahozko testuen ulermena: errutinak, abisuak, jarraibideak, bizipenen eta sentimenduen narrazioak.
- Ikastekoak diren ahozko testuak ulertzea: deskribapenak, gela osoaren aurreko azalpen laburrak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea: hipotesiak lantzea, testuaren esanahi orokorra identifikatzea.
- Ahozko testuetako edukien alderdi esanguratsuenak atxikitzea.
- Parte hartzea eta laguntzea gizarte-harremanetako eta ikasizko komunikazio-egoera hauetan: solaskideak ezagunak eta ohikoak izatea, tratua zuzena izatea eta gai zehatz eta hurbilak lantzea.
- Eskainitako komunikazio-egoeren oinarrizko ezaugarriak ikustea.
- Ahozko testuak (elkarrizketak edo bakarrizketa laburrak), gelan jendarteko harremanetan erabiltzen direnak, sortzea: jolaserako elkarrekintza, oharrak, jarraibideak, azalpenak, iritzi-emateak, eta bizipenen eta sentipenen adierazpenak.
- Ahozko testuak sortzea, bai didaktikoak eta bai egunerokoak: deskribapen laburrak, ikasten ari denari buruzko elkarrizketak eta lana antolatzeari buruzko azalpenak.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea zuzenean, talde txikietan eta ezagutzen dituzten gaiei buruz, elkarrekin partekatutako ikaskuntzarako tresna gisa.
- Oinarrizko harreman-arauak erabiltzea komunikatzerakoan: entzutea, txanda errespetatzea...
- Landutako ahozko testu-generoak identifikatzea.
- Laguntzazko eta errespetuzko jarrera edukitzea, bai komunikazio-trukean, bai denen artean ikasterakoan.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Gertaera hurbilen informazio-iturri diren hedabideetatik datozen ahozko testuak baloratzea.

***2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea***

- Haurren esperientziatik hurbil dauden eguneroko testuetako informazio zehatzak ulertzea, adibidez gonbidapenak, zoriontzeko idatziak, oharrak eta abisuak.
- Gizarte-hedabideetatik datozen eta haurren esperientziatik hurbil dauden gertaerei buruzko testuetan informazio orokorra ulertzea, albistea azpimarratuz.
- Ikastekoak diren eta esperientziarekin loturik dauden testu didaktikoen eta egunerokoen informazioa ulertzea: liburuxkak, testuliburuak, deskribapen xumeak, jarraibide eta azalpen xumeak.

- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzen hastea: ikasleak aurrez dakiena erabiltzea, iragarpenak egitea, testuarekin batera doazen irudiak interpretatzea, hipotesiak egitea eta edukia laburtzea eta asimilatzea.
- Datu zehatzak identifikatzea, askotariko lanak egiteko.
- Grafikoen, eskemen eta beste irudi batzuen bidez transmititutako datu errazak interpretatzea.
- Hainbat euskarritako informazioak eta jakintzak integratuz ikastea (datuak identifikatzea, sailkatzea, konparatzea).
- Ulermen-arazoak aurkitzea: ulertzen ez diren hitzak...
- Lantzen ditugun testu-generoak identifikatzea.
- Lagunduta, gelako liburuak erabiltzea eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen hastea, informazioa lortzeko.
- Haurren esperientziatik hurbil dauden eguneroko testuak sortzea, adibidez gonbidapenak, zoriontzeko idatziak, oharrak edo abisuak.
- Gizarte-hedabideetako testuak sortzea -titularrak, argazki-oinak, albiste laburrak-, haurren esperientziatik hurbil dauden gertaerei buruz, eskolan ohikoak diren euskarrietan.
- Lagunduta, eskolarekin zerikusia duten testuak sortzea (galdera-sortak, laburpen edo eskema moduan erabiltzeko zerrendak, deskribapen laburrak...), informazioa lortu, antolatu eta zabaltzeko.
- Testuak sortzeko estrategiak eskuratzen hastea, lagunduta: komunikazio-jarduera bere testuinguruan jartzea, testuaren plangintza, testuaren barruko kokapena, berrikustea eta nork berea zuzentzea.
- Idazketaren konbentzioak eskuratzea.
- Ereduetatik abiatuz testuak berridaztea.
- Osagai grafiko eta paratestual xumeak erabiltzea.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea talde txikietan, betiere, aurrez informazioa ulertzen dela bermatzen bada, guztien artean ikasteko bide den neurrian.
- Testua prozesatzeko programa informatikoak erabiltzen hastea, lagunduta.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak: norentzat eta zertarako den.
- Landutako testu-moten egitura.
- Testuaren antolaketa: aurkezpena eta espazioaren banaketa.
- Idatzizko testuekiko interesa, ikasteko oinarri baitira, eta esperientziak komunikatzeko bide.
- Euskarri bisualen eta idazmenaren balioespena, beren hizkuntza-gaitasuna sustatzeko tresna bisual den neurrian.
- Idazketarekiko interesa izatea, harremanetarako eta ikasteko tresna den aldetik.
- Idatzizko testuen txukuntasun eta aurkezpenarekiko interesa.

Multzo honetako edukiak lantzerakoan, ulermena ziurtatu behar dela hartuko da beti kontuan, eta, beraz, beharrezkoa den guztietan, testuak egokitu egingo dira. Aldaketek eredu bat eskaini nahi dute, baina ikasle bakoitzaren inguruabarren arabera egokitu beharko dira.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Arretaz entzutea, ikasle bakoitzak entzuteko dituen aukeren arabera, eta haurren interesen arabera egokitutako literatura-testu labur eta xumeen ulermena, askotariko euskarri bisualak erabilita.
- Haurren interesekoak diren testu xumeen irakurketa gidatua eta iruzkindua egitea.
- Ikasleen adinera egokituta dauden literatura-testu ezagunetako pasarteak eta egoerak antzeztea.

- Ikasgelan erabili ohi diren eta ziklorako egokiak diren abestiak, olerkiak, bertsoak... ulertzea eta buruz ikastea. Testu narratiboak eta poetikoak birsortzen eta idazten hastea, lagunduta.
- Lagunduta, gelako liburutegia erabiltzea, gaiak eta testuak hautatzen hastea, eta norberari gustatzen zaizkionak adieraztea, autonomia eta irakurtzeko ohitura gero eta handiagoa erakutsiz.
- Ahozko literatura-generoak, ikasle bakoitzak entzuteko dituen aukeren arabera egokitutakoak, eta literatura-genero idatziak: narratiboa eta lirikoa.
- Literatura-testuak ongi pasatzeko bidetzat hartzea eta balioestea.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Ahozko hizkuntzaren, zeinu-hizkuntzaren eta hizkuntza idatziaren artean zer desberdintasun nagusi dauden ikustea.
- Ahoz, zeinuen bidez eta idatziz gauzatutako komunikazioaren testuinguruak identifikatzea.
- Gelan landutako testu-generoak identifikatzea, osagai paratestualak eta testualak erabiliz.
- Idazketa segmentatzeko tresna funtsezkoa hitza dela identifikatzea.
- Hizkuntzaren sisteman, soinuaren eta grafiaren arteko harremana ezagutzea.
- Testu labur eta xumeak eraldatzea —zabaltzea, ordezkatzea, tokiz aldatzea, ezabatzea, etab.— osorik edo zati batean.
- Hizkuntzaren oinarrizko termino batzuk, testuak sortzearekin eta interpretatzearekin zerikusia dutenak, ulertzea.
- Testua, komunikazio-unitate: landutako ahozko genero batzuen oinarrizko ezaugarri batzuk.
- Osagai grafikoak, ikonikoak eta espazialak.
- Letrak: izenak eta beren lotura fonemekin.
- Idazketaren norabidea eta noranzkoa, linealtasuna, banaketa paperean, hitzen zatiketa.
- Letra larria eta xehea.
- Idazketak esparru jakin batzuetan duen garrantzia baloratzea.
- Idazketaren konbentzioekiko errespetua.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Ikasleen hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzak − egoki bada, zeinu-hizkuntza ere barnean hartuta− identifikatzea.
- Gelakideek dakizkiten eta erabiltzen dituzten hizkuntzak identifikatzea (baita komunikatzeko sistema alternatiboak ere).
- Euskarak gizartean dituen erabilerak ikustea eta aitortzea.
- Elebiduna eta eleanitza izateak (zeinu-hizkuntza barnean hartuta, egoki bada) dakarren aberastasun pertsonalaz ohartzea eta egoera horri balioa ematea.
- Hiztunak eta hizkuntzak: inguruko hizkuntzak.
- Gelako hizkuntzen aniztasuna ontzat hartzea.
- Euskara beren lehen hizkuntzatzat dutenen jarrera ona, beste lehen hizkuntza bat dutenekin euskaraz komunikatzeko.
- Euskara edo gaztelania beren lehen hizkuntzatzat dutenen jarrera ona, zeinu-hizkuntza erabiltzen dutenekin hizkuntza horretan komunikatzeko.
- Euskara bigarren hizkuntzatzat duten ikasleek interesa izatea euskaraz komunikatzeko era aktiboan eta konplexurik gabe, bai eskolan, bai gizartean.
- Zeinu-hizkuntza dakiten ikasleek interesa izatea zeinu-hizkuntzan komunikatzeko era aktiboan eta konplexurik gabe, bai eskolan, bai gizartean.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Ahozko diskurtsoen esanahia ulertzea, haien erabilerako testuinguruan kokatuta eta dagozkien euskarri eta egokitzapenekin. Testu horien informazio garrantzitsua identifikatzea, eta beste egoera batzuetan aplikatzea ulertutakoa.**

1.1. Testuko gaia identifikatzen du.
1.2. Gelan erabili ohi diren ahozko testuen informazio orokorra eta zehatza ulertzen du.
1.3. Testuaren oinarrizko elementuen (lexikoa, lokuzioak) zentzua interpretatzen du, beharrezkoak baitira testu osoa ulertzeko.
1.4. Emandako aginduei edo jarraibideei jarraitzen die, jarduerak egiteko.
1.5. Jasotako informazioa erabiltzen du jarduerak egiteko, banakako edo talde txikietako ikaste-ekintzetan.
1.6. Arretaz egoten da eta parte hartzen du, eskatzen zaionean.

**2. Haurren bizitzarekin loturako testu idatzi errazak ulertzea, aurrez emandako azterketa-jarraibideak erabiliz.**

2.1. Testuaren generoa bereizten du, eta haren gaia ondorioztatzen du.
2.2. Eskolan erabiltzen diren testuetan, argi adierazten den informazioa ulertzen du: abisuak, oharrak, gonbidapenak eta eskolako testuak.
2.3. Testuak zer dioen azaltzen du, haren zentzu orokorra adieraziz.
2.4. Testuko elementu linguistiko eta ez-linguistiko oinarrizkoen zentzua interpretatzen du, testua osorik ulertzeko beharrezkoak baitira (lexikoa, irudiak, tipografia eta testuaren egitura).
2.5. Ulermen-arazoak argitzeko estrategiak aplikatzen ditu, lagunduta.
2.6. Bere ideiekin erlazionatzen ditu eduki berriak, lagunduta, eta testuko elementu zehatzei buruzko iritzia ematen du, deigarriak egin zaizkion neurrian.

**3. Lagunduta, informazio zehatza aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.**

3.1. Eskolan edo ikaslearen ingurunean erabili ohi diren testuetan informazio zehatza aurkitzen du, jarraibideak oinarri hartuta.
3.2. Informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzakoak ez diren osagaiak erabiltzen ditu: irudiak, testuaren egitura, tipografia...
3.3. Emandako testuei buruz ematen zaizkien galderei erantzuteko informazioa aurkitzen du.

**4. Hitzez adieraztea gertaerak, bizipenak edo ideiak era antolatuan azaltzen dituzten testu erraz eta laburrak, bere aukeren arabera eta baliabide estralinguistikoak erabilita.**

4.1. Ikasleak bere ideiak, iritziak, bizipenak eta ezaguerak adierazten ditu, gelako ohiko egoeretan.
4.2. Ahozko testu erraz eta laburrak sortzen ditu (deskribapenak, azalpenak) ikaste-egoeratan, aurrez emandako ereduei jarraituz.
4.3. Parte hartzen du elkarrizketetan talde txikietan, ikaskuntza-egoerak antolatzeko edo ikasgaietako edukiei buruzko informazioa trukatzeko, betiere, aurrez informazioa eskuratzeko modua bermatzen bazaio.
4.4. Ongi adierazteko interesa dauka.

**5. Gelan, harreman-egoeretan parte hartzea, elkarrizketetako oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonekiko errespetua adieraziz.**

5.1. Solaskideari begiratu eta entzuten dio.
5.2. Hitz egiteko txandaren zain egoten da.
5.3. Gizalegezko arau batzuk erabiltzen ditu.
5.4. Parte hartzen du lankidetzan eta ikaskuntzan.

**6. Eredu argiez baliatuta, haurren bizipenekin zerikusia duten testu idatzi erraz eta laburrak sortzea, irakaskuntza-mailari dagozkion egokiera eta zuzentasuna erakutsiz.**

6.1. Testuak sortzeko prozesuaren urratsei jarraitzen die, lagunduta: plangintza egitea, idaztea eta berrikustea.
6.2. Lagunduta eta pixkana, parte hartzen du talde txikietan, testua planifikatzeko, idazteko eta berrikusteko jardueretan.
6.3. Gero eta hobeto idazten du, idazketaren oinarrizko arauak betez: fonemak eta horien grafia bat etortzea, eta puntuazio-zeinuren bat.
6.4. Komunikazio-egoerara egokitutako edukiak adierazten ditu.
6.5. Lagunduta, idatzitako testua berrikusi eta zuzenketaren bat egiten du.
6.6. Era argian eta txukunean aurkezten du testua.

**7. Lagunduta, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; erabilera horren xedea ikastea izanik.**

7.1. Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabilita.

**8. Idazketari buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta, jakintza hori erabiliz, idazketa-sistemaren erabilera sendotzea.**

8.1. Esaldien eta testuen ordena aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak ondorioak dituela ohartzen da.
8.2. Ohiko testuetan, esaldia, hitza eta silaba ezagutzen ditu.

**9. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena– eta erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan baliatzea.**

9.1. Landutako testu-generoen izendapenak ezagutzen ditu, eta baita idazketaren oinarrizko kontzeptu eta konbentzio batzuk ere: testua, esaldia, hitza, silaba, letra, maiuskula, minuskula eta puntua.

**10. Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta harekiko jarrera baikorra izatea, inguruan hizkuntzak nola erabiltzen diren ikusiz.**

10.1. Beraren eta ikaskideen hizkuntza-errepertorioa identifikatzen du, haiekiko jakin-mina eta errespetua adieraziz.
10.2. Hizkuntzekiko jarrera ona du.

**11. Eskolako bizimoduan euskara erabiltzearen aldeko jarrera hartzea.**

11.1. Eskola-ingurunean euskaraz egiten diren zenbait jardueratan parte hartzen du.
11.2. Euskara erabili ohi du eskolako elkarrizketetan.
11.3. Euskal kulturaren transmisioarekin eta sorrerarekin zerikusia duten eskola-jarduera anitzetan parte hartzen du.

**12. Gelako liburutegia eta mediateka erabiltzea eta haien antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea.**

12.1. Bere zaletasunen arabera aukeratzen ditu literatura-testuak.
12.2. Parte hartzen du irakurketa sustatzeko ekintzetan.
12.3. Liburutegia erabiltzeko arauak errespetatzen ditu, eta laguntzen du ongi funtziona dezan.
12.4. Gelako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen du, eta bere kabuz erabiltzen du.

**13. Ahozko tradizioko, haur-literaturako eta esparru ludiko edo estetikoko literatura-testu labur eta xumeak irakurtzea, entzutea –ikasleen aukeren arabera eta era guztietako baliabide bisualak erabiliz– eta berregitea.**

13.1. Ikasleak, bere aukeren arabera eta era askotako baliabide bisualak erabiliz, bere interesen arabera egokiak diren literatura-testuak entzuten ditu.
13.2. Bere adinari egokitutako literatura-testuak irakurtzen ditu.
13.3. Ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren arabera, parte hartzen du negoziazioan, talde txikietan, elkarrekin esanahiak eraikitzeko.
13.4. Bere bizipenekin erlazionatzen du obraren edukia.
13.5. Landutako ahozko eta idatzizko literatura-testuen esanahia ulertzen du.
13.6. Narrazioetako pertsonaia eta gertaera nagusiak identifikatzen ditu.
13.7. Testuak antzezterakoan eta birsortzerakoan, gogoz parte hartzen du.

**14. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi batzuk identifikatzea.**

14.1. Laguntza eta azalpenak eskatzen ditu.
14.2. Egin dituen aurrerapenen balorazio oinarrizkoak egiten ditu.
14.3. Emandako jarraibideak betez, gero eta hobeto zuzentzen ditu normalean egiten dituen akatsetako zenbait.

## BIGARREN ZIKLOA

### EDUKIAK

Hizkuntzaren ahozko dimentsioarekin lotutako edukiak lantzerakoan, kontuan hartuko dira gorreria duten ikasleen ezaugarri espezifikoak. Ondoren dituzuen aldaketa hauek eredu bat eskaini nahi dute, baina ikasle bakoitzaren inguruabarren arabera egokitu beharko dira.

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea***

- Gela barneko giza harremanetan (zuzenean eta talde txikietan) erabiltzen diren ahozko testuen ulermena: informazioak, azalpen laburrak, iritziak defendatzea, jarraibideak, esperientzien eta bizipenen kontakizuna.
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak ulertzea: berdinen arteko eta lan-taldeko elkarrizketak, ekintzaren arauak, deskribapenak eta gelako aurkezpen laburrak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea: hipotesiak egitea, gaia identifikatzea, zenbait ideia nagusi.
- Ahozko testuetako edukien alderdi esanguratsuenak atxikitzea.

- Landutako ahozko testu-motak identifikatzea.
- Parte hartzea eta laguntzea gizarte-harremanetako eta ikasizko komunikazio-egoera hauetan: ohiko solaskideekin aritzean, ikasleen esperientzietatik gertuko gaiak adierazteko eta horiei buruzko informazioa emateko.
- Eskainitako komunikazio-egoeren ezaugarriak aztertzea: solaskidea, helburua, gaia, testuaren egitura.
- Pertsonarteko harremanetan erabiltzen diren ahozko testuak sortzea (bakarrizketak edo elkarrizketak) gela barruan, zuzenean edo talde txikietan: jolaserako elkarrekintza, informazioak, azalpenak, jarraibideak, esperientzia eta bizipen laburren kontaketak, bizikidetza bideratzeko elkarrizketak, eztabaidak.
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak sortzea: berdinen arteko eta lan-talde txikietako elkarrizketak, deskribapen laburrak eta gelako aurkezpenak.
- Bakarrizketetako testuen edukiaren plangintza egitea, lagunduta.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea zuzenean, talde txikietan eta ezagutzen dituzten gaiei buruz, elkarrekin partekatutako ikaskuntzarako tresna gisa.
- Komunikazio-trukearen arau interaktiboak erabiltzea, elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzeko: galdetzea, arreta, kontzentratzea, itxarotea, txandak eta gizalegezko arauak betetzea, erantzuna egokitzea solaskideak esandakoari...
- Landutako ahozko genero batzuen oinarrizko ezaugarri batzuk: solaskideak, xedea/helburua, egitura xumeak...
- Adierazteko interesa.
- Laguntzazko eta errespetuzko jarrera edukitzea, bai komunikazio-trukean, bai denen artean ikasterakoan.
- Eskolako bizimoduan biltzen diren esparru guztietan euskara erabiltzeko interesa, hizkuntza horretan komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Ikasteko eta denetariko informazioa eta besteen iritziak lortzeko tresnatzat hartzea gizarte-hedabideak.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.

***2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea***

- Informazio garrantzitsuena ulertzea, egunero bizitzako harremanetako testuetan; esaterako, eskolako gutunetan, ikasgelako arauetan edo jolasen arauetan.
- Gizarte-komunikabideetan argitaratutako testu laburretako informazio orokorra ulertzea (besteak beste, haurrei zuzendutako webguneetan argitaratutakoa), bereziki azpimarratuz albisteetan, elkarrizketetan eta zuzendariarentzako gutunen atalean adierazitako informazio orokorra.
- Ikasteko eta informatzeko eguneroko testu didaktiko laburretan argitaratutako informazio garrantzitsua ulertzea: liburuxka, deskribapen, jarraibide, azalpen, testuliburu eta zikloari dagozkion kontsulta-liburuetakoa. .
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzea: aurretiko jakintzak aktibatzea, iragarpenak egitea, hipotesiak egitea eta egiaztatzea, informazio garrantzitsua bereiztea, testuarekin batera doazen irudiak interpretatzea.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertzea: nork, zertarako.
- Ideiak aztertzea: ideia nagusiak eta gaia.
- Testua interpretatzea: egilearen helburua.
- Lagunduta, informazio zehatza bilatzea eta hautatzea, elementu linguistikoak eta ez-linguistikoak erabilita (testuen banaketa, tipografia, aurkibideak, etab.).
- Grafikoen, eskemen eta beste irudi batzuen bidez transmititutako datuak interpretatzea.

- Hainbat euskarritako informazioak eta jakintzak integratuz ikastea eta informazioa alderatzea (datuak identifikatzea, sailkatzea, konparatzea, interpretatzea).
- Lagunduta, testu idatzi xumeen edukia aztertzea, ideia nagusiak identifikatzeko, eta eskemak egitea, ideiak ikusteko moduan egituratuta izateko.
- Kontrol-estrategiak erabiltzea, idatzizko testuak ulertzeko.
- Lantzen ditugun testu-generoak identifikatzea.
- Lagunduta, gelako eta ikastetxeko liburuak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, informazioa lortzeko.
- .Ohiko harreman-egoeretan erabiltzen diren testuak sortzea (eskolako gutunak, elkarbizitzarako arauak, oharrak, eskaerak...).
- Gizarte-hedabideetan erabili ohi diren informazio- eta iritzi-testu xumeak sortzea gertaera esanguratsuei buruz, batez ere egoera simulatu edo errealetan albistea azpimarratuz.
- Lagunduta, eskolan erabili ohi diren testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdera-sortak, inkestak, laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak).
- Testuak sortzeko estrategiak eskuratzen hastea, lagunduta: komunikazio-jarduera bere testuinguruan jartzea, testuaren plangintza, testuaren barruko kokapena, berrikustea eta nork berea zuzentzea.
- Ereduetatik abiatuz testuak berridaztea.
- Elementu grafikoak eta paratestualak erabiltzea —gero eta konplexuagoak—, hobeto ulertzeko.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea, talde txikietan, betiere, aurrez informazioa ulertzen dela bermatzen bada, guztien artean ikasteko bide den neurrian.
- Lagunduta, testua prozesatzeko programa informatikoak erabiltzea.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak: norentzat, zertarako, non eta noiz den.
- Landutako generoen ezaugarriak.
- Testuaren antolaketa eta eraketa: egitura eta paragrafoak.
- Idatzizko testuak jakintzaren iturritzat hartzea, bai esperientziak komunikatzeko eta bai norberaren jarduera arautzeko.
- Idazketa gizarte-harremanetarako tresnatzat hartzea, hots, informazioa eta jakintza eskuratzeko eta birlantzeko tresnatzat.
- Idazmenaren balioespena, beren hizkuntza-gaitasuna sustatzeko tresna bisual den neurrian.
- Idatzizko testuen txukuntasun eta aurkezpenarekiko interesa, eta ortografia-arauak errespetatzea.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.

Multzo honetako edukiak lantzerakoan, ulermena ziurtatu behar dela hartuko da beti kontuan, eta, beraz, beharrezkoa den guztietan, testuak egokitu egingo dira. Aldaketek eredu bat eskaini nahi dute, baina ikasle bakoitzaren inguruabarren arabera egokitu beharko dira.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Arretaz entzutea, ikasle bakoitzak entzuteko dituen aukeren arabera, eta haurren interesen arabera egokitutako literatura-testu labur eta xumeen ulermena, askotariko euskarri bisualak erabiliz.
- Hainbat euskarritan dauden testu narratibo tradizional xumeak eta haur-literaturakoak irakurtzea, era gidatuan eta komentatuan.
- Ziklora egokitutako olerki, kontakizun eta antzezlan labur eta xumeen irakurketa eta entzumena, iruzkinak eginez, ikasle bakoitzaren aukeren arabera eta askotariko euskarri bisualak erabiliz.

- Ziklora egokituta dauden literatura-testu eta -pasarteak antzeztea.
- Ziklora egokitutako tradiziozko abestiak, olerkiak, bertsoak eta abar ulertzea eta buruz ikastea.Inguruan erabiltzen diren olerki eta bertso ezagunak berridaztea eta, plangintza egin ondoren, kontakizunak berridaztea eta ekoiztea, lagunduta eta ereduetan oinarrituta.
- Lagunduta, gelako liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, gaiak eta testuak hautatzea, eta norberari gustatzen zaizkionak adieraztea, autonomia eta irakurtzeko gero eta ohitura handiagoa erakutsiz.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan.
- Literatura-hizkuntzaren ezaugarri batzuez ohartzea.
- Ahozko literatura-generoak, ikasle bakoitzak entzuteko dituen aukeren arabera egokitutakoak, eta literatura-genero idatziak: narratiboa, lirikoa eta dramatikoa.
- Bertsolaritzan eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuetan parte hartzea, entzuteko dituen aukeren arabera.
- Irudimena beste errealitate batzuk sortzeko eta birsortzeko tresnatzat hartzea.
- Literatura-testua komunikazio-bidetzat hartzea, eta bestelako munduak ezagutzeko iturritzat eta ongi pasatzeko aitzakiatzat.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Ahozko komunikazioaren, idatzizkoaren eta zeinu bidezkoaren arteko desberdintasunak ikustea.
- Ahozko, idatzizko edo zeinuen bidezko testuak hautatzerakoan komunikazioaren testuinguruak duen eragina ikustea.
- Testuen egitura narratzaile, arautzaile, deskribatzaile eta esplikatzaile nagusiak ezagutzea, haiek hobeto ulertzeko.
- Lagunduta, testuko lokailu batzuk –batik bat, denborazkoak– identifikatzea, testu labur eta xumeak ulertzeko eta idazteko.
- Esaldi-mota batzuk ezagutzea.
- Ortografia- eta fonetika-arau batzuk ezagutzea eta aplikatzea, ikaslearen komunikazio-gaitasunaren eta entzumen-funtzionaltasunaren arabera horietatik zeintzuetara irits daitekeen kontuan hartuta.
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea (kentzea, tokiz aldatzea, ordeztea), lagunduta, hizkuntzaren funtzionamendua aztertzeko eta esanahian horrek dituen ondorioak ikusteko; betiere, aztergai duten testua aurrez ondo ulertzen dela bermatuta.
- Oinarrizko hizkuntza-terminologia ulertzea eta erabiltzea, testuak sortzeko eta interpretatzeko.
- Paperezko euskarrietan eta euskarri digitaletan datozen eskola-hiztegiak eta testu-prozesadoreetako zuzentzaile ortografikoak erabiltzen hastea, lagunduta.
- Gogoz parte hartzea, norberak eta beste pertsona batzuek egindako sorkuntzak taldean berrikusteko eta hobetzeko zereginean.
- Gogoeta egitea norberaren ikasketaz, lana antolatzeaz, akatsa prozesu horren partetzat hartzeaz, eta nork bere burua zuzentzeaz eta ebaluatzeaz.
- Testuen igorlearekin eta hartzailearekin zerikusia duten hizkuntza-unitateak.
- Testua, komunikazio-unitate: landutako testu-generoen egiturak; elementu espazialak, paragrafoa.
- Perpaus-motak identifikatzea: adierazleak, galdetzaileak, eskatzaileak.
- Alfabetoa.
- Ikaskuntzako hizkuntzak bereak dituen oinarrizko ortografia-arauak.
- Gehien erabiltzen diren puntuazio-zeinuak.
- Idazketaren konbentzioek duten funtzio soziala aintzat hartzea.

- Hizkuntza hainbat egoeratan zuzen erabiltzeko interesa.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Norberaren hizkuntza-biografiaz ohartzea: lehen, bigarren, hirugarren eta ondorengo hizkuntzak, eta ikaslearen errepertorioko hizkuntzei ematen zaien erabilera.
- Eskolako eta inguruko hizkuntzen aniztasunaz ohartzea.
- Inguruko pertsonek jakin eta erabiltzen dituzten hizkuntzak identifikatzea, hala badagokio, zeinu-hizkuntza barnean hartuta (eta baita komunikatzeko sistema alternatiboak ere).
- Elebiduna eta eleanitza izateak dakarren aberastasun pertsonalaz ohartzea eta egoera horri balioa ematea.
- Hainbat egoeratan euskara nola erabiltzen den ikustea, batik bat ikasleentzat esanguratsuak diren jardueretan, estereotipoak eta uste murriztaileak apurtzen dituzten neurrian.
- Estatuko beste erkidego batzuetako hizkuntzak identifikatzea eta horiei balioa ematea.
- Hiztunak eta hizkuntzak: inguruko hizkuntzak.
- Elebakartasuna, elebitasuna eta eleaniztasuna.
- Eskolako eta inguruko hizkuntzen aniztasuna balioestea, zeinu-hizkuntza ere barnean hartuta.
- Euskara beren lehen hizkuntzatzat dutenek jarrera ona izatea, lehen hizkuntzatzat beste hizkuntza bat dutenekin euskaraz komunikatzeko eta euskarazko komunikazioak bultzatzeko.
- Euskara edo gaztelania beren lehen hizkuntzatzat dutenen jarrera ona, zeinu-hizkuntza erabiltzen dutenekin hizkuntza horretan komunikatzeko.
- Euskara bigarren hizkuntzatzat duten ikasleek interesa izatea euskaraz komunikatzeko era aktiboan eta konplexurik gabe, bai eskolan, bai gizartean.
- Zeinu-hizkuntza dakiten ikasleek interesa izatea zeinu-hizkuntzan komunikatzeko era aktiboan eta konplexurik gabe, bai eskolan, bai gizartean.
- Hizkuntzen aniztasun hori balioestea.
- Beste hizkuntza batzuetako hitzak eta mezuak ulertzen saiatzeko interesa izatea, eta, horretarako, norberak dakizkien hizkuntzetan ikasitakoa erabiltzea.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, ulertzea, beharrezko dituzten euskarri eta egokitzapen guztiak eginez, eta testu horien ideia nagusi batzuk ezagutzea, informazio baliagarria hautatzea, eta informazio horren ulermena beste egoera batzuetan aplikatzea.**

1.1. Gelan landutako ahozko testuen generoak identifikatzen ditu.
1.2. Testuko gaia identifikatzen du.
1.3. Entzute-helburuaren xedeko informazioak identifikatzen eta bereganatzen ditu.
1.4. Gelan landutako ahozko testuen ideia nagusi batzuk identifikatzen ditu.
1.5. Estrategia sinpleak erabiltzen ditu, testuak ulertzerakoan sortzen zaizkion zalantzak argitzeko (galderak egin, imitatu).
1.6. Arretaz egoten da eta parte hartzen du, bere aukeren neurrian.
1.7. Jasotako informazioa erabiltzen du jarduerak egiteko, banakako edo talde txikietako ikaste-ekintzetan.

**2. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorra hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak betez.**

2.1. Testuaren generoa bereizten du, bai eta gaia eta egilearen helburua ere.
2.2. Testuaren esanahi orokorra hartzen du.
2.3. Testuaren ideia nagusiak identifikatzen ditu.
2.4. Kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen ditu, testuko ideia nagusiak erabilita.
2.5. Estrategia sinpleak erabiliz argitzen ditu ulermen-arazoak.
2.6. Lagunduta, bere ideiekin erlazionatzen ditu eduki berriak, eta testuaren alderdi zehatzei buruzko iritzi arrazoitua ematen du.
2.7. Ohiko erabilera diskriminatzaile batzuk identifikatzen ditu.

**3. Informazio esplizitua aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.**

3.1. Eredu bat emanda, irakurketa-mota ezberdinak erabiltzen ditu, helburuari egokituta.
3.2. Jarraibideak betez, aurrez emandako informazio-iturri analogiko eta digitalak erabiltzen ditu, irakurketaren helburuari erantzuteko.
3.3. Informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzarenak diren eta ez diren osagaiak erabiltzen ditu: irudiak, testuaren banaketa, tipografia, aurkibideak...
3.4. Jarraibideak betez, informazio esplizitua hautatzen du, eskolako testuen irakurketa-helbururako adierazgarria den neurrian.

**4. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, sortzea; eta sorkuntza hori nahiko koherentea izatea, baliabide ez-linguistikoak erabilita (keinuak, euskarri bisualak) eta komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartuta.**

4.1. Ikaste-egoerekiko dituen ideiak, bizipenak eta jakintzak adierazten ditu.
4.2. Emandako jarraibideak erabiltzen ditu, sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
4.3. Aurrez planifikazio gidatua eginda, ahozko testu erraz eta laburrak sortzen eta azaltzen ditu (deskribapenak, azalpenak), argi, behar bezala antolatuta eta ikusizko euskarriak erabilita.
4.4. Gogoz parte hartzen du elkarrizketetan, talde txikietako ikaskuntza-egoeretan, betiere, aurrez informazioa eskuratzeko modua bermatzen bazaio.
4.5. Moldatu egiten da komunikazio-egoeraren oinarrizko alderdietara: helburura, solaskidera eta gaira.
4.6. Ez ditu ohiko esaera diskriminatzaileak erabiltzen.

**5. Gelan, harreman-egoeretan parte hartzea, elkarrizketetako arauak betez eta gainerako pertsonekiko errespetua adieraziz.**

5.1. Elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzen ditu.
5.2. Nahiko ongi aplikatzen ditu gizartean komunikatzeko arauak: arretaz entzutea, txanda itxarotea, errespetuz parte hartzea, solaskideak esandakoaren arabera hitz egitea, eta gizalegezko arau batzuk.
5.3. Ideiak, gertakariak, bizipenak eta sentipenak adierazten ditu, egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiliz.
5.4. Testuingurura egokitutako hitzak erabiltzen ditu.
5.5. Iritziak adierazten ditu.
5.6. Elkarrizketaren harira doazen galdera eta iruzkin egokiak egiten ditu.
5.7. Jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.

5.8. Gogoz parte hartzen du eta laguntzen du lankidetzako eta ikaskuntzako egoeretan, betiere, aurrez informazioa eskuratzeko modua bermatzen bazaio.
5.9. Ohiko esaera diskriminatzaileak identifikatzen ditu, eta horiek ez erabiltzen saiatzen da.

**6. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, sortzea, lagunduta testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, lan horietan egokitasun-, zuzentasun- eta kohesio-maila onargarria erakutsiz.**

6.1. Jarraibideak beteta, eskema edo oharren bidez planifikatzen du testuaren edukia, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta sortu beharreko testuaren egitura aintzat hartuta.
6.2. Paragrafoetan antolatzen du informazioa.
6.3. Egoki betetzen ditu aurrez zehaztutako xedeak.
6.4. Egoerari dagozkion lexikoa eta erregistroa erabiltzen ditu.
6.5. Gramatikako oinarrizko arauak eta gelan gehien landu diren ortografiako arauak errespetatzen ditu.
6.6. Era argian eta txukunean aurkezten du testua.
6.7. Sortze-eta berrikuste-lanetan laguntzen du.

**7. Lagunduta, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; betiere, haiek erabiltzeko interesa erakutsiz eta erabilera horren xede informazioa biltzea, ereduetan oinarritutako testu errazak sortzea eta ikastea izanik.**

7.1. Informazioa bilatzen du, ikaslearen mailara egokitutako euskarriez baliatuz.
7.2. Testu-prozesadoreen oinarrizko funtzioetako batzuk erabiltzen ditu testuak editatzeko eta zuzentzeko.
7.3. Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabilita.

**8. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilera-arauei buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea, ulermen- eta sorkuntza-arazoak konpontzeko.**

8.1. Lagunduta, egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
8.2. Esaldietan eta testuetan segmentatzeak, tokiz aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak eragiten dituzten ondorioez ohartzen da.
8.3. Jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen ditu, testuak ulertzeko eta sortzeko.
8.4. Komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen ditu landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
8.5. Laguntza-euskarriak erabiltzen ditu (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua sortzerakoan zalantzak argitzeko.
8.6. Bere eta besteen testuetako akats nagusiak identifikatu eta zuzentzen ditu, jarraibideak erabilita.

**9. Bi hizkuntzetan berdina den oinarrizko eta landutako lexikoa ezagutzea, eta hura erabiltzea hizkuntza-jardueretan.**

9.1. Ulertu egiten du zikloan landutako oinarrizko terminologia, testuen sorkuntzari eta berrikuspenari buruz banaka edo talde txikietan emandako jarraibideen eta azalpenen jarraipena egiteko.
9.2. Badaki zer izen dituzten testu-generoek, esaldien elementuek eta esaldi eta hitz-mota desberdinek.
9.3. Landutako hizkuntza-elementu oinarrizkoak identifikatzen ditu, ohikotasunez erabilitako testu labur eta xumeekin egindako lanari erreparatuta.

**10. Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta balioestea, inguruko errealitate linguistikoari erreparatuta.**

10.1. Gelako hizkuntza-errepertorioko hizkuntzak identifikatzen ditu, eta haiekiko jakin-mina eta errespetua adierazten ditu, hizkuntzen eta horien hiztunen gaineko aurreiritziak alde batera utzita.
10.2. Hizkuntzekiko jarrera ona du, eta denei ematen die balioa.

**11. Eskolako bizimoduan euskara erabiltzearen aldeko jarrera hartzea.**

11.1. Eskola-ingurunean euskaraz egiten diren zenbait jardueratan parte hartzen du.
11.2. Euskara erabili ohi du eskolako elkarrizketetan.
11.3. Euskal kulturaren transmisioarekin eta sorrerarekin zerikusia duten eskolako eta ikaslearen inguruneko jarduera anitzetan parte hartzen du.

**12. Ahozko tradizioko, haur-literaturako eta esparru ludiko edo estetikoko literatura-testu labur eta xumeak, ziklora egokitutakoak, irakurtzea, entzutea -ikasleen aukeren arabera eta era guztietako baliabide bisualak erabiliz- eta berregitea.**

12.1. Ikasleak, bere aukeren arabera eta era askotako baliabide bisualak erabiliz, bere hizkuntza-gaitasunera eta interesetara egokitutako literatura-testuak irakurtzen eta entzuten ditu arretaz.
12.2. Ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren arabera, gogoz parte hartzen du negoziazioan, talde txikietan, elkarrekin esanahiak eraikitzeko.
12.3. Literaturaren generoak ezagutzen ditu.
12.4. Ahozko eta idatzizko literatura-testuen esanahi orokorra ulertzen du, hainbat ezaugarri kontuan hartuz.
12.5. Ipuineko gatazka identifikatzen du, eta istorioko pertsonaien arteko harremanak ulertzen ditu.
12.6. Testuak antzezterakoan eta birsortzerakoan, gogoz parte hartzen du.

**13. Literatura erabiltzea gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.**

13.1. Literatura-obrak irakurri ohi ditu, une atseginak igarotzeko.
13.2. Bere bizipenekin erlazionatzen du obraren edukia.
13.3. Irakurritako literatura-obrei buruzko iritzia ematen du, bere hizkuntza-gaitasunaren arabera.
13.4. Aurrez plangintza egin ondoren eta ereduetan oinarrituta sortzen ditu helburu literarioa duten testu errazak, askotariko euskarrietan idatziz.
13.5. Literatura-jardueretan parte hartzen du, gelan.

**14. Gelako eta eskolako liburutegia eta mediateka erabiltzea, eta haren antolaketa, funtzionamendua eta aukerak ezagutzea.**

14.1. Irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen ditu (ahozko literaturakoak, idatzizko literaturakoak edo horiekin lotutako beste arte-arlo batzuetakoak), une atseginak igarotzeko.
14.2. Gelako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen du, eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzen du.
14.3. Eskolako liburutegia erabiltzeko arauak errespetatzen ditu, eta hura zaintzen laguntzen du.
14.4. Egindako irakurketetatik ateratako informazioak eta gogoetak plazaratzen ditu, haiei buruzko elkarrizketa gidatuetan eta talde txikietan.

**15. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta, hobeto ikasi ahal izateko, alderdi batzuk identifikatzea.**

15.1. Eskola-hiztegiak, kontsultarako emandako materiala eta baliabide teknologiko xume batzuk erabiltzen ditu, zalantzak argitzeko eta informazioa bilatzeko eta antolatzeko.
15.2. Laguntza eta azalpenak eskatzen ditu.
15.3. Bere aurrerapenen balorazio xumeak egin, eta hobeto ikasteko lagungarri dituen estrategien adibideak jartzen ditu.
15.4. Gero eta hobeto identifikatzen eta zuzentzen ditu normalean egiten dituen akatsetako zenbait.
15.5. Akatsak egitea ikaste-prozesuaren zati dela onartzen du.
15.6. Lagunduta, hizkuntzetako batean garatutako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

## HIRUGARREN ZIKLOA

### EDUKIAK

Hizkuntzaren ahozko dimentsioarekin lotutako edukiak lantzerakoan, kontuan hartuko dira gorreria duten ikasleen ezaugarri espezifikoak. Ondoren dituzuen aldaketa hauek eredu bat eskaini nahi dute, baina ikasle bakoitzaren inguruabarren arabera egokitu beharko dira.

***1. multzoa. Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea***

- Gela barneko giza harremanetan (zuzenean eta talde txikietan) erabiltzen diren ahozko testuen ulermena, zailtasunaren arabera mailakatuta: informazioak, azalpen laburrak, iritzi-testuak, arauak, esperientzien eta bizipenen kontakizuna.
- Telebistatik, beste ikus-entzunezko bitarteko batzuetatik edo Internetetik datozen ahozko testu batzuk, ahal izanez gero azpitituluak dituztenak, ulertzea: berria eta elkarrizketa, bai eta haurrei egokitutako erreportajeak ere, ikaslearen komunikazio-funtzionaltasunaren arabera.
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak ulertzea: berdinen arteko eta lan-talde txikietako elkarrizketak, ekintzaren arauak, deskribapenak eta gelako aurkezpenak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea: hipotesiak egitea, testuaren egitura aurreratzea. Testuaren gaia eta zentzu orokorra identifikatzea. Ideia nagusiak identifikatzea.
- Ahozko testuetako edukien alderdi esanguratsuenak atxikitzea.
- Informazioa erregistratzeko bitartekoak erabiltzea, ahozko testuetatik informazio zehatza jasotzeko.

- Ahozko testuen ulermena arautzeko kontrol-estrategiak erabiltzea: iragarpenak egitea, norberak dauzkan ulermen-arazoak identifikatzea, konponbideak bilatzea, zalantzak argitzea eta egiaztatzea.
- Ahozko testu-generoak identifikatzea.
- Parte hartzea eta laguntzea gizarte-harremanetako eta ikasizko komunikazio-egoera hauetan: ohiko solaskideekin eta horren ohikoak ez direnekin (eskola-elkarteko helduak) aritzean, aurrez gelan landu diren gaiak adierazteko eta horiei buruzko informazioa emateko.
- Eskainitako komunikazio-egoeren ezaugarriak aztertzea: solaskidea, helburua, gaia, testuaren egitura.
- Pertsonarteko harremanetan erabiltzen diren ahozko testuak sortzea (bakarrizketak edo elkarrizketak) eskola barruan, zuzenean edo talde txikietan: jolaserako elkarrekintza, informazioak, azalpenak, iritzi-testuak, jarraibideak, esperientzien eta bizipenen kontaketak, eta iritzi-trukaketa.
- Ikastekoak eta informatzekoak diren ahozko testuak sortzea: berdinen arteko eta lan-taldeko elkarrizketak, deskribapenak, gelako aurkezpen laburrak, eta gelan landutako kontzeptuak definitzen hastea.
- Bakarrizketetako testuen edukiaren eta formaren plangintza egitea, lagunduta.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiltzea, diskurtso laburrak sortzeko.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea, zuzenean edo talde txikietan, aurrez landutako gaiei buruz, elkarrekin partekatutako ikaskuntzarako tresna gisa.
- Komunikazio-trukearen arau interaktiboak erabiliz, elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzea: galdetzea, arreta, kontzentratzea, itxarotea, txandak, gizalegezko arauak, erantzuna solaskideak esandakoari egokitzea, jarrera eta keinu egokiak, itxiera.
- Landutako ahozko generoen ezaugarri nagusiak: solaskideak, xedea/helburua, erregistroa, egitura, hizkuntzaren osagai zehatzak...
- Adierazteko interesa.
- Laguntzazko eta errespetuzko jarrera edukitzea, bai komunikazio-trukean, bai denen artean ikasterakoan.
- Eskolako bizimoduan biltzen diren esparru guztietan euskara erabiltzeko interesa, hizkuntza horretan komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Solaskideen hizkuntza-ohiturak errespetatzea.
- Gizarte-hedabideak tresna egokitzat hartzea, bai ikasteko, bai informazioa eta beste pertsona batzuen bizipenak eta iritziak lortzeko.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.

***2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea***

- Eguneroko gizarte-harremanetako testuetan informazio garrantzitsua ulertzea: posta, arauak, ekitaldien programa, deialdiak, laneko planak edo araudiak.
- Gizarte-hedabideen testuak ulertzea (besteak beste haur eta gazteei zuzendutako webguneak), batez ere, albistea, elkarrizketa eta zuzendariarentzako gutunak azpimarratuz; horren bidez, informazio orokorra lortzeko eta informazio zehatza aurkitzeko.
- Paperean eta euskarri digitalean dauden testu didaktikoak eta gizartean egunero erabiltzen direnak ulertzea, ikasteko eta informatzeko: informazio- edo publizitate-liburuxkak, prentsa, programak, aurrez landutako literatura-pasarteak, ziklorako egokiak diren testu- eta kontsulta-liburuak.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzea: aurretiko jakintzak aktibatzea, iragarpenak egitea, hipotesiak egitea eta egiaztatzea, informazio garrantzitsua bereiztea eta laburpena.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aztertzea: nork, zertarako.

- Ideiak aztertzea: gaia, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak, informazio garrantzitsua eta garrantzirik ez duena...
- Testua interpretatzea: ideien arteko harremana eta egilearen asmoa.
- Grafikoen, eskemen eta beste irudi batzuen bidez transmititutako datuak interpretatzea.
- Informazio zehatza bilatzea eta hautatzea, elementu linguistikoak eta ez-linguistikoak erabilita (testuen banaketa, tipografia, aurkibideak, etab.) informazio hori aurkitzeko.
- Hainbat euskarritako informazioak eta jakintzak biltzea, ikasteko eta informazioa egiaztatzeko (datuak konparatu, sailkatu, identifikatu eta interpretatu).
- Lagunduta, testu idatzien edukia aztertzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzeko, eta eskemak egitea, ideiak ikusteko moduan egituratuta izateko.
- Kontrol-estrategiak erabiltzea, idatzizko testuak ulertzeko.
- Lantzen ditugun testu-generoak identifikatzea.
- Hizkuntza batean ikasitako hizkuntza-ezagutzak aktibatuz, beste hizkuntza batzuetan idatzizko diskurtsoak ulertzeko aurrerapenak egiten hastea.
- Liburutegiak erabiltzea, baita birtualak ere, informazioa lortzeko eta idazlanak ekoizteko ereduak aurkitzeko.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak laguntzarekin erabiliz, informazioa bilatzea, lortzea, hautatzea eta antolatzea.
- Norberak testuak sortzea gizarte-harremanetako egoeratan (posta, arauak, programak, deialdiak, lan-plangintzak, eskaerak...).
- Gizarte-hedabideetan erabili ohi diren informazio- eta iritzi-testuak sortzea gertaera esanguratsuei buruz, egoera simulatu edo errealetan batez ere albistea, elkarrizketa, liburuen aipamenak... azpimarratuz.
- Eskolan erabili ohi diren testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdera-sortak, inkestak, laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak).
- Komunikazio-jardueraren testuingurua sortzeko estrategiak erabiltzea eta transferitzea; testuaren plangintza; testuaren barruko kokapena; berrikustea eta nork berea zuzentzea, hainbat iturri erabiliz.
- Osagai grafiko eta paratestual xumeak erabiltzea, ulermen-lanak errazteko.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea, talde txikietan, betiere, aurrez informazioa ulertzen dela bermatzen bada, guztien artean ikasteko bide den neurrian.
- Bigarren hizkuntzako testuak ulertzeko eta sortzeko, hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiltzen hastea, lagunduta.
- Informazio-teknologiak erabiliz idatzizko testuak sortzea.
- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak: norentzat, zertarako, non, noiz, helburu soziala.
- Landutako generoen ezaugarriak.
- Idatzizko testuak jakintzaren iturritzat hartzea, bai esperientziak komunikatzeko eta bai elkarbizitza arautzeko.
- Norberak idatzitakoa berrikusteak duen garrantziaz ohartzea: koherentzia, egokitasuna eta zuzentasuna.
- - Idazmenaren balioespena, beren hizkuntza-gaitasuna sustatzeko tresna bisual den neurrian.
- Idatzizko testuen txukuntasun eta aurkezpenarekiko interesa, eta ortografia-arauak errespetatzea.
- Jarrera kritikoa izatea mezu diskriminatzaileekiko.
- Gizarte-hedabideetatik –eta gehienbat Internetetik– datozen mezuen aurrean kritikoa izatea.

Multzo honetako edukiak lantzerakoan, ulermena ziurtatu behar dela hartuko da beti kontuan, eta, beraz, beharrezkoa den guztietan, testuak egokitu egingo dira. Aldaketek eredu bat eskaini nahi dute, baina ikasle bakoitzaren inguruabarren arabera egokitu beharko dira.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Arretaz entzutea, ikasle bakoitzak entzuteko dituen aukeren arabera, eta ziklora egokitutako gure kulturako eta zenbait kulturetako literatura-testuak ulertzea, askotariko euskarri bisualak erabiliz.
- Haur-literaturako obrak, literatura tradizionalekoak eta herri-literaturakoak irakurtzea, gidatuta edo beren kabuz, zenbait euskarritan −ikasleen adinera eta interesetara egokitutako obrak izan behar dute−, eta, irakurri ondoren, norberaren esperientziak adieraztea.
- Olerki, kontakizun eta antzezlan labur eta xumeen irakurketa eta entzumena, egokituta eta iruzkinak eginez, ikasle bakoitzaren aukeren arabera eta askotariko euskarri bisualak erabiliz.
- Literatura-testuak antzeztea edo antzeztuz irakurtzea.
- Olerki eta bertsoak ulertzea eta buruz ikastea.
- Ezagunak diren eta beren inguruan erabiltzen diren zenbait esapide, esamolde eta esaera herrikoi buruz ikastea.
- Plangintza bat egin ondoren eta zenbait ereduri jarraituta, kontakizunak irudikatzea eta sortzea, sentimenduak, emozioak, aldarteak edo oroitzapenak komunikatzeko.
- Aurrez planifikatuta, irakurtzera bultzatzen duten aipamenak eta laburpenak sortzea, irakurri dituzten eta adinerako egokiak diren literatura-testuei buruzkoak, hainbat euskarri erabiliz.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Literatura-hizkuntzaren ezaugarri batzuez ohartzea.
- Ahozko literatura-generoak, ikasle bakoitzak entzuteko dituen aukeren arabera egokitutakoak, eta literatura-genero idatziak: narratiboa, lirikoa eta dramatikoa.
- Bertsolaritzan eta ahozko euskal literaturako beste genero batzuetan parte hartzea, bakoitzaren aukeren arabera.
- Literaturaren beste adierazpen batzuk: komikia, azpitituluekiko filmak.
- Jarraibide batzuk betez gelako liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, gaiak eta testuak hautatzea, eta norberari gustatzen zaizkionak adieraztea, autonomia eta irakurtzeko gero eta ohitura handiagoa erakutsiz. Irudimena beste errealitate batzuk sortzeko eta birsortzeko tresnatzat hartzea.
- Literatura-testua komunikazio-bidetzat hartzea, hots, bestelako munduak, garaiak eta kulturak ezagutzeko iturritzat, kultura-gertaeratzat eta ongi pasatzeko bidetzat.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Ahozko komunikazioaren, idatzizkoaren eta zeinu bidezkoaren arteko aldeak eta antzekotasunak ezagutzea.
- Idatzizko testuetan, testuinguruko elementuen eta hizkuntza-formen arteko harremanak ezagutzea.
- Testuen egitura narratzaile, arautzaile, deskribatzaile, adierazle eta esplikatzaile nagusiak ezagutzea, testuak ulertzeko.
- Lagunduta, testuko lokailu batzuk ezagutzea –batik bat denborazkoak, esplikatzaileak eta ordenazkoak–, eta horiek testu labur eta errazak ulertzeko eta idazteko erabiltzea.
- Esaldi-mota batzuk ezagutzea.
- Perpausen arteko askotariko loturen ezagutza, testuen sorkuntzarekin lotuta.
- Kategoria morfosintaktiko nagusiak ezagutzea.
- Testuetako aditzen denboraz ohartzea.
- Formaren eta esanahiaren aldetik hitzen artean dauden harremanak ezagutuz testuak ulertzea eta idaztea, lagunduta.

- Ortografia- eta fonetika-arau batzuk ezagutzea eta aplikatzea, ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren eta entzumen-funtzionaltasunaren arabera horietatik zeintzuetara irits daitekeen kontuan hartuta.
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea, betiere, aztergai duten testua aurrez ondo ulertzen dutela bermatuta.
- Oinarrizko perpausak txertatzea eta zabaltzea, horrela, idazketa hobetzeko.
- Hainbat egitura sintaktiko konparatuz, kidetasun semantikoa ikustea.
- Hizkuntzaren oinarrizko terminologia ulertzea eta erabiltzea.
- Testu-prozesadoreen hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak erabiltzea, lagunduta.
- Akats oinarrizkoak identifikatzea eta, lagunduta, horiek zuzentzea, hizkuntzaren plano guztietan, bai norberaren testuetan, bai beste pertsona batzuen testuetan. Gogoz parte hartzea, norberak eta beste pertsona batzuek egindako sorkuntzak taldean berrikusteko eta hobetzeko zereginean.
- Euskararen eta gaztelaniaren arteko desberdintasun morfologiko eta sintaktiko batzuez ohartzea.
- Gogoeta egitea norberaren ikasketaz, lana antolatzeaz, akatsa prozesu horren partetzat hartzeaz, eta nork bere burua zuzentzeaz eta ebaluatzeaz.
- Ikasitakoa gordetzeko, buruz ikasteko eta berrikusteko bitarteko zenbait erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Testuen igorlearekin eta hartzailearekin zerikusia duten hizkuntza-unitateak.
- Testua, komunikazio-unitate: landutako testu-generoen egiturak; paragrafoa; kohesio-elementu nagusiak.
- Perpaus-motak ezagutzea: adierazlea, galdetzailea, eskatzailea eta esklamatzailea.
- Izen-sintagma eta aditz-sintagma. Sintagmen funtzioak. Deklinazio-markak.
- Ikaskuntzako hizkuntzaren oinarrizko ortografia-arauak.
- Gehien erabiltzen diren puntuazio-zeinuak.
- Idazketaren konbentzioak errespetatzeari garrantzia ematea.
- Hizkuntzari buruzko gogoetaren garrantziari balioa ematea, norberaren idazlanak arautzeko bide gisa.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Norberaren hizkuntza-biografiaz ohartzea: lehen, bigarren, hirugarren eta ondorengo hizkuntzak, eta ikaslearen errepertorioko hizkuntzei ematen zaien erabilera.
- Inguruko hizkuntzen egoera soziolinguistikoa konparatzea.
- Eskolako eta gizarteko hizkuntzen aniztasunaz ohartzea, bai eta komunikazio-sistema alternatiboez ere.
- Latindar jatorriko hizkuntzen edo bestelako jatorriko hizkuntzen arteko antzekotasun batzuez ohartzea.
- Elebiduna eta eleanitza izateak dakarren aberastasun pertsonalaz ohartzea eta egoera horri balioa ematea.
- Hizkuntza bat edo bestea hautatzerakoan komunikazioaren testuinguruak duen eragina ikustea.
- Gelako testuetan landutako euskalkiak ikustea, ezagutzea eta balioestea.
- Euskararen garapena eta normalkuntza bultzatzeko eskolan eta inguruan egiten diren ekimenetan parte hartzea.
- Hiztunak eta hizkuntzak: munduko hizkuntzak.
- Eleaniztasuna.
- Euskalkiak. Hizkuntza estandarra.

- Hizkuntza-normalkuntza.
- Hizkuntza ofiziala.
- Ikasten ari diren hizkuntzetan sakontzeko gogoa.
- Ohiko mezu xumeak ulertzeko eta ikasteko gogoa, inguruko pertsonek erabili eta dakizkiten hizkuntzetan, zeinu-hizkuntza ere barnean hartuta, eta komunikazio-sistema alternatiboetan.
- Hizkuntzei eta hiztunei buruzko aurreiritziak aztertzen hastea.
- Euskara beren lehen hizkuntzatzat dutenek jarrera ona izatea, lehen hizkuntzatzat beste hizkuntza bat dutenekin euskaraz komunikatzeko eta euskarazko komunikazioak bultzatzeko.
- Euskara edo gaztelania beren lehen hizkuntzatzat dutenen jarrera ona, zeinu-hizkuntza erabiltzen dutenekin hizkuntza horretan komunikatzeko.
- Bigarren hizkuntzatzat euskara duten ikasleek interesa izatea euskaraz komunikatzeko era aktiboan, eskolan eta gizartean.
- Zeinu-hizkuntza dakiten ikasleek interesa izatea zeinu-hizkuntzan komunikatzeko era aktiboan eta konplexurik gabe, bai eskolan, bai gizartean.
- Gure herrikideek erabilitako hizkuntza batzuetan igorritako ohiko mezu batzuk ulertzeko eta ikasteko gogoa izatea.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako ahozko testuak, genero askotakoak, ulertzea, beharrezko dituzten euskarri eta egokitzapen guztiak eginez, eta testu horien ideia nagusiak ezagutzea, informazio baliagarria hautatzea, eta informazio horren ulermena beste egoera batzuetan aplikatzea.**

1.1. Ahozko testuen genero ohikoak identifikatzen ditu.
1.2. Gelan gehien lantzen diren ahozko testuetako gaia eta igorlearen helburua identifikatzen ditu.
1.3. Entzute-helburuaren xedeko informazioak identifikatzen eta bereganatzen ditu.
1.4. Testu akademikoen lehen eta bigarren mailako ideiak identifikatzen ditu.
1.5. Datu zehatzak identifikatzen ditu, askotariko lanak egiteko, betiere, aurrez informazioa eskuratzeko modua bermatuta eta, ondoren eta lagunduta, informazioa erregistratzeko askotariko bideak erabiliz biltzen badu informazioa.
1.6. Estrategia sinpleak erabiltzen ditu, testuak ulertzerakoan sortzen zaizkion zalantzak argitzeko (galderak egin, imitatu...).
1.7. Arretaz egoten da eta parte hartzen du, bere aukeren neurrian.
1.8. Jasotako informazioa erabiltzen du jarduerak egiteko, banakako edo talde txikietako ikaste-ekintzetan.
1.9. Diskriminazioa adierazten duten esapide arruntenen zentzua ulertzen du.

**2. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorra hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilita.**

2.1. Testuaren generoa bereizten du, bai eta gaia eta egilearen helburua ere.
2.2. Testuaren esanahi orokorra hartzen du.
2.3. Testuaren ideia nagusiak laburtzen ditu.
2.4. Kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen ditu, testuko ideia nagusiak erabilita.
2.5. Estrategia egokiak erabiliz argitzen ditu ulermen-arazoak.
2.6. Bere ideiekin erlazionatzen ditu eduki berriak, eta testuaren alderdi zehatzei eta testuaren formari buruzko iritzi arrazoitua ematen du.

2.7. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile ohikoak identifikatzen ditu.

**3. Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, irakurketaren helburuari erantzunez.**

3.1. Irakurketaren helburua zein den badaki, eta helburu bakoitzaren araberako estrategia egokiak erabiltzen ditu.
3.2. Informazio-iturri analogiko eta digitalera jotzen du, lagunduta, irakurketaren helburuari erantzuteko.
3.3. Informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzarenak diren eta ez diren osagaiak erabiltzen ditu: testuaren banaketa, letra-mota, aurkibideak...
3.4. Eskolako testuetan, irakurketaren xedeari funtsezkoa zaion informazioa hautatzen du, eta datuak erregistratzeko bitartekoen bidez biltzen (taulak, eskemak, galdetegiak...).

**4. Eskola-esparruko ahozko testuak, genero askotakoak, sortzea; eta sorkuntza hori koherentea izatea, baliabide ez-linguistikoak (keinuak, euskarri bisualak) behar bezala erabilita eta komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartuta.**

4.1. Ikaste-egoerekiko dituen ideiak, bizipenak eta jakintzak adierazten ditu.
4.2. Zentzuzko galderak egiten ditu informazioa bilatzerakoan, bai hedabideen esparruan eta bai ikaskuntzaren esparruan.
4.3. Oharrak, eskemak eta gidoiak erabiltzen ditu, sortuko dituen ahozko testuen edukia planifikatzeko.
4.4. Aurrez planifikazio gidatua eginda, ahozko testuak argi eta behar bezala antolatuta azaltzen ditu (deskribapenak, prozesuen azalpenak), ikusizko euskarriak erabilita.
4.5. Gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen du gelako ikaste-dinamiken barruan sortzen diren hausnarketa eta eztabaidetan, talde txikietan eta komunikatzeko dituen aukeren arabera.
4.6. Moldatu egiten da komunikazio-egoeraren oinarrizko alderdietara: helburura, solaskidera eta gaira.
4.7. Ez ditu ohiko esaera diskriminatzaileak erabiltzen.
4.8. Ahotsa, keinuak eta gorputzaren jarrera nahiko ondo kontrolatzen ditu.

**5. Ikastetxeko eta gertuko inguruneko harreman-egoeretan parte hartzea, behar bezalako naturaltasunez, egokitasunez eta zuzentasunez hitz eginez, hartu-emanaren oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonei begirunea erakutsiz.**

5.1. Elkarrizketak hasi, mantendu eta amaitzen ditu.
5.2. Behar bezala aplikatzen ditu hitzezko elkarrekintzen gizarte- eta komunikazio-arauak.
5.3. Koherentzia nahikoz adierazten ditu ideiak, gertakariak, bizipenak eta sentipenak, egoera bakoitzerako egokia den erregistroa erabiliz.
5.4. Testuingurura egokitutako hitzak eta esamoldeak erabiltzen ditu.
5.5. Solaskidearen jardunera egokitzen du bere hizketaldia.
5.6. Iritzi arrazoituak ematen ditu.
5.7. Elkarrizketaren harira doazen galdera eta iruzkin egokiak egiten ditu.
5.8. Jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu.
5.9. Gogotsu parte hartzen du elkarrekiko lankidetzan eta talde txikietan elkarrekin ikastean.
5.10. Ohiko esaera diskriminatzaileak identifikatzen ditu, eta horiek ez erabiltzen saiatzen da.

**6. Genero eta erabilera-esparru askotako testu idatziak sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, lagunduta: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea; betiere, lan horietan egokitasun-, koherentzia- eta zuzentasun-maila onargarria erakutsiz.**

6.1. Jarraibideak beteta, eskema edo oharren bidez planifikatzen du testuaren edukia, komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta sortu beharreko testuaren egitura aintzat hartuta.
6.2. Paragrafoetan antolatzen du informazioa.
6.3. Oinarrizko zenbait kohesio-prozedura gero eta eraginkortasun handiagoz erabiltzen du, testuko ideiak eta zatiak lotzeko.
6.4. Egoki betetzen ditu aurrez zehaztutako xedeak.
6.5. Egoerari dagozkion lexikoa eta erregistroa erabiltzen ditu.
6.6. Gramatikako oinarrizko arauak eta ortografiako arau batzuk betetzen ditu.
6.7. Era argian eta txukunean aurkezten du testua.
6.8. Sortze-eta berrikuste-lanetan laguntzen du.

**7. Lagunduta, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta komunikatzeko, ereduetan oinarritutako testuak sortzeko eta posta elektronikoaren bidez eta komunikazio-ingurune birtualen bidez harreman pertsonalak egiteko, tresna horiek erabiltzeko interesa adieraziz.**

7.1. Informazio-bilaketak eta –hautaketak egiten ditu, bilatzaileak jarraibideen arabera erabiliz eta aurrez adierazitako webguneetara sartuz.
7.2. Testu-prozesadoreen oinarrizko funtzioak erabiltzen ditu testuak editatzeko eta zuzentzeko.
7.3. Behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten ditu eskola-jardueretan landutako informazioak, informazio- eta komunikazio-bitartekoek eta -teknologiak emandako jarraibideak betez erabilita.
7.4. Harreman pertsonalak egiteko erabiltzen ditu informazio- eta komunikazio-teknologiak.

**8. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilera-arauei buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea, ulermen-arazoak konpontzeko eta testuak gero eta autonomia handiagoz sortzeko eta berrikusteko.**

8.1. Lagunduta, egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
8.2. Esaldietan eta testuetan segmentatzeak, tokiz aldatzeak, ezabatzeak eta txertatzeak eragiten dituzten ondorioez ohartzen da.
8.3. Jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen ditu, testuak ulertzeko eta sortzeko.
8.4. Komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen ditu landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
8.5. Edozein motatako aurreiritziak adierazten dituzten hizkuntza-estereotipoak identifikatzen ditu beste pertsona batzuek egindako testuetan, eta horiek ez erabiltzen saiatzen da.
8.6. Laguntza-euskarriak erabiltzen ditu (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua sortzerakoan zalantzak argitzeko.
8.7. Jarraibideak betez, oinarrizko akatsak identifikatzen ditu bere eta besteen testuetan, gero eta autonomia handiagoa erakutsiz testuen berrikuspenean eta hobekuntzan.

**9. Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea –bi hizkuntzetan erabilgarria dena– eta erabilerari buruzko hausnarketa-jardueretan baliatzea.**

9.1. Ulertu egiten du zikloan landutako oinarrizko terminologia, testuen sorkuntzari eta berrikuspenari buruzko azalpenak emateko eta jarraibideak betetzeko.

9.2. Testu-generoen izenak eta esaldien elementuen eta esaldi- eta hitz-moten izenak ezagutzen ditu, eta oinarrizko terminologia hori erabiltzen hasi da, hizkuntzari buruzko hausnarketa-jardueretan.
9.3. Landutako hizkuntza-elementu oinarrizkoak identifikatzen ditu, ohikotasunez erabilitako testu labur eta xumeekin egindako lanari erreparatuta.

**10. Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta balioestea, inguruko errealitate linguistikoari erreparatuta.**

10.1. Gelako eta inguruko zenbait pertsonaren hizkuntza-errepertorioko hizkuntzak identifikatzen ditu, eta haiekiko jakin-mina eta errespetua adierazten ditu, hizkuntzen eta horien hiztunen gaineko aurreiritziak alde batera utzita.
10.2. Inguruko egoera soziolinguistiko konkretuak deskribatzen eta komentatzen ditu, errespetua adieraziz eta hizkuntzekin eta horien hiztunekin lotutako aurreiritziak alde batera utziz.
10.3. Euskara batua eta euskalki nagusiak identifikatzen ditu, horien komunikazio-balioa aitortuz, entzuteko dituen aukeren arabera.
10.4. Hizkuntzekiko jarrera ona du, eta denei ematen die balioa.

**11. Eskolako bizimoduan euskara erabiltzearen aldeko jarrera hartzea.**

11.1. Eskola-ingurunean euskaraz egiten diren zenbait jardueratan parte hartzen du.
11.2. Euskara erabili ohi du eskolako elkarrizketetan.
11.3. Euskal kulturaren transmisioarekin eta sorrerarekin zerikusia duten eskolako eta ikaslearen inguruneko jarduera anitzetan parte hartzen du.

**12. Ahozko tradizioko, haur-literaturako eta esparru ludiko edo estetikoko literatura-testu labur eta xumeak, ziklora egokitutakoak, irakurtzea, entzutea -ikasleen aukeren arabera eta era guztietako baliabide bisualak erabiliz- eta berregitea.**

12.1. Ikasleak, bere aukeren arabera eta era askotako baliabide bisualak erabiliz, bere hizkuntza-gaitasunera eta interesetara egokitutako literatura-testuak irakurtzen eta entzuten ditu arretaz.
12.2. Ikaslearen hizkuntza-gaitasunaren arabera, gogoz parte hartzen du negoziazioan, talde txikietan, elkarrekin esanahiak eraikitzeko.
12.3. Ahozko eta idatzizko literatura-testuen esanahia ulertzen du, hainbat ezaugarri kontuan hartuz.
12.4. Tradizioko edo gaur egungo literatura-testu xumeak (olerkiak, bertsoak, antzerkiak) buruz ikasten ditu.
12.5. Testuak antzezterakoan eta birsortzerakoan, gogoz parte hartzen du, eszenaratzeko estrategia xume batzuk erabiliz.

**13. Liburutegi-mediatekak erabiltzea, eta idazlanak eta bestelako materialak antolatzeko eta hautatzeko prozedurak ulertzea.**

13.1. Irizpide propioei jarraituz, literatura-obrak hautatzen ditu (ahozko literaturakoak, idatzizko literaturakoak edo horiekin lotutako beste arte-arlo batzuetakoak), une atseginak igarotzeko.
13.2. Eskolako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen du, eta bere kabuz erabiltzen du.
13.3. Eskolako liburutegia zaintzen eta hari dagozkion mantentze-lanak egiten laguntzen du.
13.4. Egindako irakurketetatik aterako informazioak eta gogoetak plazaratzen ditu, haiei buruzko elkarrizketa gidatuetan eta talde txikietan.

**14. Literatura erabiltzea gozatzeko, mundua ezagutzeko, eta identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.**

14.1. Literatura-obrak irakurri ohi ditu, une atseginak igarotzeko.
14.2. Bere bizipenekin erlazionatzen du obraren edukia.
14.3. Gogotsu parte hartzen du literaturari buruzko elkarrizketetan, eta bere bizipenak eta ikuspegia adierazten ditu.
14.4. Bakarka irakurritako literatura-obrei buruz duen iritzia azaltzen du, bere hizkuntza-gaitasunaren arabera.
14.5. Lagunduta eta aurrez plangintza egin ondoren, helburu literarioa duten testu idatziak nahiz ahozkoak sortzen ditu euskarri anitzetan, gelan irakurri edo komentatutako literatura-testu bat eredutzat hartuta eta bere ideiez eta bizipenez baliatuta.
14.6. Gelako eta eskolako literatura-jardueretan parte hartzen du.

**15. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi batzuk identifikatzea.**

15.1. Laguntza eta azalpenak eskatzen ditu.
15.2. Hiztegiak, kontsultarako materiala eta baliabide teknologiko xume batzuk erabiltzen ditu, zalantzak argitzeko, eta informazioa bilatzeko eta antolatzeko.
15.3. Egin dituen aurrerapenak neurtzen ditu, eta hobeto ikasteko baliabide eta estrategia batzuk identifikatzen ditu.
15.4. Bere kabuz erabiltzen ditu egunero bizitzako testuen egitura sinpleak, akatsik arruntenak pixkanaka zuzenduz.
15.5. Akatsak egitea ikaste-prozesuaren zati dela onartzen du.
15.6. Lagunduta, hizkuntzetako batean garatutako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

# LEHEN HEZKUNTZA
# ATZERRIKO HIZKUNTZA

## HELBURUAK

Atzerriko hizkuntza irakastearen helburua, Lehen Hezkuntzan, gaitasun hauek lortzea izango da:

1. Eskola-inguruneko komunikazio-egoera arruntei dagozkien ahozko eta idatzizko diskurtsoak, ikasleen bizipen eta interesekin lotutakoak, ulertzea, diskurtso horiek interpretatzea, eta irakurketaren edo entzunaldiaren emaitza helburu pertsonalak, sozialak eta akademikoak betetzeko erabiltzea.

2. Ahozko eta idatzizko adierazpen egoki, koherente eta zuzenak egitea ikastetxeko komunikazio-egoeretan. Adierazpenak gelan aurrez landutako gaiei buruzkoak izango dira, eta komunikazio-premia arruntei erantzuteko ereduaz baliatzeko aukera izango dute ikasleek.

3. Era egokian elkarrizketan aritzea denetariko egoeretan, errespetuz eta laguntza emanez; horren bidez, norberaren sentimenduez eta ideiez ohartzeko eta norberaren jokabidea kontrolatzeko, jendartean eraginkortasunez komunikatzeko eta jakintza taldean eraikitzeko.

4. Gero eta autonomia handiagoz erabiltzea gizarte-hedabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak, beste iturri batzuekin batera, eta, horren bidez, atzerriko hizkuntzan informazioa lortu, komunikatu eta laguntza ematea.

5. Atzerriko hizkuntzak ulermenerako eta hizkuntza-sorkuntzarako erabiltzen dituen prozedurako sistemari eta haren arauei buruzko gogoeta egitea, eta hizkuntza horren fonetika, erritmoa, azentuak, intonazioa, hizkuntza-egiturak eta alderdi lexikoak identifikatzea, hura egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzeko.

6. Beste hizkuntza batzuei buruzko jakintza eta aurretiazko bizipenak erabiltzea, azkar, eraginkortasunez eta autonomiaz ikasteko atzerriko hizkuntza.

7. Atzerriko hizkuntza erabiltzea beste errealitate eta kultura batzuk aurkitzeko, eta ulermenezko, errespetuzko eta laguntzazko jarrera baikorrak erakustea haiekiko.

8. Literatura-testu xumeak irakurtzea eta entzutea, horien bidez plazera sentitzeko, sentikortasun estetikoa handitzeko, hizkuntza aberasteko eta norberaren nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeko.

9. Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta horrela komunikatzeko gaitasuna hobetzea.

## LEHENENGO ZIKLOA

### EDUKIAK

**_1. multzoa. Entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea_**

- Gela barruko harremanetan edota eguneroko bizitzako egoera simulatuetan erabiltzen diren ahozko testu erraz batzuk ulertzea, mota guztietako euskarri bisualak erabiliz: informazioak, azalpenak, iritzi-testuak, jarraibideak, esperientzien eta bizipenen kontakizuna.
- Ikus-entzunezko komunikabideetatik edo Internetetik hartutako eta haurrei egokitutako ahozko narrazio-testu erraz, labur eta argien ideia orokorra ulertzea.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea, lagunduta.
- Hipotesiak egitea, ikusizko eta hitzik gabeko testuinguruaz eta gaiari edo egoerari buruz ikasleak lehendik dakienaz baliatuz.
- Gaia identifikatzea.
- Gogotsu, lagunduz eta errespetuz parte hartzea hizkuntza-harremanetan, egoera erreal edo simulatuetan, hitzezkoak ez diren erantzunak emanez eta lagunduta.
- Ahozko elkarrekintzako gizarte- eta komunikazio-arau batzuk betetzea: arreta, txanda itxarotea.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiliz ulertzea eta sortzea ahozko testuak.
- Proposatutako komunikazio-egoeren oinarrizko ezaugarri batzuk ezagutzea.
- Landutako ahozko testu-generoen zenbait oinarrizko ezaugarri ezagutzea.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Adierazteko interesa izatea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.

**_2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea_**

- Gelan ahoz landutako gaiei buruzko testu idatzi errazak ulertzea: ipuin eta olerki egokituak edo jatorrizkoak, gonbidapenak, zorion-oharrak, oharrak, abisuak, araudiak, informazio sinpleak...
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzen eta transferitzen hastea.
- Irudiak interpretatzea.
- Ikasleak dakiena aktibatzea.
- Hipotesiak egitea eta horiek egiaztatzea.
- Gaia identifikatzea.
- Testuko zenbait informazio garrantzitsu identifikatzea.
- Gelako liburutegia erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea.
- Ereduak abiapuntutzat hartuta, testuak sortzeko oinarrizko estrategiak erabiltzen eta transferitzen hastea (hartzailea eta helburua aukeratzea, plangintza, zirriborroa egitea, testua berrikustea eta azken bertsioa).
- Lagunduta, testu oso laburrak eta errazak sortzea, haurren eguneroko bizitzarekin zerikusia dutenak; besteak beste, gonbidapenak, zoriontzeko oharrak, bestelako oharrak, abisuak...
- Lagunduta, gizarte-hedabideetako oso testu labur eta errazak sortzea —titularrak, argazki-oinak, albiste laburrak—, haurren esperientziatik hurbil dauden gertaerei buruzkoak, eskolan ohikoak diren euskarritan.
- Eskola-esparruko oso testu labur eta errazak sortzea, lagunduta: galdera-sortak, zerrendak, deskribapenak, oinarri-oinarrizko azalpenak, etab.
- Zenbait testu-generotako testu-eredu laburrak eta errazak birsortzea, lagunduta.

- Programa informatiko hezitzaile nagusiak erabiltzea, mezu xumeak irakurtzeko eta idazteko.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarri nagusi batzuk ezagutzea.
- Landutako ahozko testu-generoen zenbait oinarrizko ezaugarri ezagutzea.
- Idazketa-sistemaren oinarrizko konbentzioak, hizkuntzek komunean dituztenak, transferitzea: hitzen segmentazioa eta puntuazio-zeinuren bat.
- Landutako lexikoaren oinarrizko ortografia.
- Idatzizko testuen txukuntasun eta aurkezpenarekiko interesa.
- Idatzizko testuen bidez informatzeko, komunikatzeko eta ikasteko interesa.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuan.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Haurren interesetara egokitutako literatura-testuak ulertzea, askotariko formatuetan, ikusizko nahiz keinu eta mimika bidezko baliabideen laguntzarekin.
- Gelako liburutegia erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea, irakurtzeko ohitura hartzeko.
- Irakurritako literatura-testuei buruzko iritzia ahoz adieraztea, hizkuntzaz kanpoko laguntza-elementuak erabiliz, hala behar izanez gero.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Literatura-testuak birsortzea, lagunduta.
- Landutako testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Literatura-testua plazer-iturritzat hartzea.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuan, komunikatzeko dituen aukeren arabera.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- - Komunikatzeko dituen aukeren arabera, formula eta esapide arruntak, gelako komunikazio-egoeretan gehien betetzen diren funtzioei dagozkienak, erabiltzea.
- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, aurrez gelan erabili diren atzerriko hizkuntzaren oinarrizko lexikoa eta egiturak identifikatzea eta erabiltzea.
- - Buruz ikastea, keinu eta irudiekin lotzea hitzak eta esaldiak, eta ereduei behatzea, atzerriko hizkuntzaren lexikoa eta oinarrizko egiturak ikasteko.
- Oinarri-oinarrizko akatsak identifikatzea norberaren eta besteren testuetan, eta, lagunduta, horiek zuzentzea, hizkuntzaren alderdi guztietan.
- Curriculumeko hizkuntzan ikasitakoa erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko gogoeta egitea bultzatzeko.
- Norberaren ikasketaz gogoeta egiten hastea, lana antolatzea, akatsa prozesu horren partetzat hartzea, eta nork bere burua zuzentzea eta ebaluatzea.
- Ahozko eta idatzizko komunikazioaren ezaugarri nagusi batzuk.
- Gelako komunikazio-egoera arruntei eta horien hizkuntza-adierazpenari lotutako funtzioak (formulak, esapideak, esamoldeak), komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Testua: osagai grafikoak, ikonikoak eta espazialak.
- Idazketaren oinarrizko konbentzio batzuk transferitzea: idazketaren norabidea eta noranzkoa, hitzen segmentazioa, letra bakoitzak izan ditzakeen forma desberdinak (maiuskula, minuskula) eta puntuazio-zeinuren bat.
- Atzerriko hizkuntza hainbat egoeratan erabiltzeko interesa.
- Atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasunean sinestea eta talde-lana gustatzea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Atzerriko hizkuntzan, gizarte-harremanetako oinarrizko arau batzuk ezagutzea.
- Ingurua eleanitza dela ohartzea.
- Bestelako hizkuntzak eta kulturak dituzten pertsonak ezagutzeko interesa.
- Hizkuntza desberdinak erabiltzea ontzat hartzea.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Ikasleak duen hizkuntza-gaitasunaren arabera, berorren esperientziarekin eta gelako ohiko jarduerekin zuzenean lotuta dauden ohiko generoetako ahozko testu errazak, laburrak eta testuinguruan kokatutakoak ulertzea, mota guztietako komunikazio-euskarri eta laguntzak erabili dituela bermatuz. Testu horietako informazio garrantzitsuena identifikatzea, eta beste egoera batzuetan aplikatzea ulertutakoa.**

1.1. Testuaren gaia identifikatzen du.
1.2. Gelan erabili ohi diren ahozko testuetako informazio jakin batzuk ulertzen ditu.
1.3. Emandako aginduei edo jarraibideei erantzunez jokatzen du, askotariko jarduerak egiteko, euskarri bisualak erabiliz, betiere.
1.4. Eskatzen zaionean, arreta jartzen du eta parte hartzen du.

**2. Ikaslearen bizipenekin eta gelako ohiko jarduerekin lotura zuzena duten eta ohiko generoetan ageri diren testu idatzi sinpleen eta laburren esanahi orokorra ulertzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilita.**

2.1. Idatzizko testu errazak ulertzen ditu, testu horiek aurrez gelan ahoz landutako gaiei buruzkoak izanik: moldatutako edo jatorrizko ipuinak eta olerkiak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, mezu laburrak...
2.2. Gaia identifikatzen du aurrez gelan ahoz landutako gaietan.
2.3. Testuaren oinarrizko zenbait ideia gogoratzen ditu.

**3. Ahozko testu labur eta errazak sortzea, ereduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan.**

3.1. Ulertzeko moduan adierazten ditu ahozko testu erraz eta laburrak, ereduei jarraituz.
3.2. Ulertzeko moduan adierazten ditu bere ideiak, emandako ereduko oinarrizko elementuak ordeztuz.
3.3. Gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen du gelako lanetan.

**4. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, gelan eta talde txikietan, irakasleak gidatutako ahozko elkarrizketetan parte hartzea, elkarrizketetako oinarrizko arauak betez eta gainerako pertsonekiko errespetua adieraziz.**

4.1. Eskaerei eta jarraibideei ulertzeko moduan erantzuten die idatziz.
4.2. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, berehalako komunikazio-beharrak adierazten ditu, lagunduta: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea...
4.3. Gizartean komunikatzeko oinarrizko arauak aplikatzen ditu: arreta jartzen du, txanda itxaroten du, errespetuz parte hartzen du eta gizalegezko arau batzuk betetzen ditu.

4.4. Elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan parte hartzen du, talde txikietan denean eta zeregina ulertzen duenean, betiere.

**5. Idatzi oso labur eta errazak sortzea, ereduei jarraituz. Testu horiek ohiko generoren batekoak izan behar dute, eta gelako jarduera arruntekin lotura zuzena izan.**

5.1. Ulertzeko moduan adierazten ditu idatzizko testu erraz eta laburrak, ereduei jarraituz.
5.2. Ulertzeko moduan adierazten ditu bere ideiak, emandako ereduko oinarrizko elementuak ordeztuz.
5.3. Sortze-lanetan laguntzen du, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
5.4. Lehen hizkuntzaren idazketa-sistemari buruz ikasitakoak transferitzen ditu, oinarrizko konbentzioak erabiliz: hitzen segmentazioa eta puntuazio-zeinuren bat.
5.5. Gelan landutako zenbait ortografia-arau aplikatzen du.
5.6. Bere idazlanen txukuntasuna zaintzen du.
5.7. Gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen du gelako lanetan.

**6. Lagunduta, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; erabilera horren xedea ikastea izanik.**

6.1. Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabilita.
6.2. Programa informatiko hezitzaile nagusiak erabiltzen ditu, mezu xumeak irakurtzeko eta idazteko.

**7. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilera-arauei buruz gogoeta egitea (testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz), eta jakintza hori erabiltzea, komunikazioa hobetzeko.**

7.1. Ikasturtean landutako oinarrizko lexikoa ezagutzen eta erabiltzen du.
7.2. Jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen hasi da, testuak ulertzeko eta sortzeko.
7.3. Komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen ditu landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
7.4. Laguntza-euskarriak erabiltzen ditu (aurrez emandako adibideak eta ereduak), sorrera-prozesuko zalantzak argitzeko.
7.5. Jarraibideak betez, bere testuetako oinarri-oinarrizko akatsak identifikatzen eta zuzentzen hasi da.

**8. Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den eta komunikazio-egoera desberdinetan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea.**

8.1. Lehen hizkuntzaren idazketa-sistemari buruz ikasitakoak transferitzen ditu, oinarrizko konbentzioak erabiliz: hitzen segmentazioa eta puntuazio-zeinuren bat.
8.2. Testu-moten ezaugarriei buruz beste hizkuntzetan ikasi duena erabiltzen du idatzizko bere lanetan.
8.3. Atzerriko hizkuntza erabiliz beste errealitate eta kultura batzuk aurkitzea, eta beste kulturen ezaugarri, ohitura eta tradizioak identifikatzea, behar bezala ulertuz eta errespetatuz.
8.4. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan dauden ezaugarri, ohitura eta tradizio batzuk identifikatzen ditu, lagunduta.

**9. Atzerriko hizkuntzarekiko interesa eta jakin-mina adieraztea, komunikaziorako bide eta ikasteko tresna den aldetik.**

9.1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, parte hartzen du gelako komunikazio-harreman errazetan.
9.2. Inguruko hizkuntzen aniztasuna onartzen du.
9.3. Atzerriko hizkuntza ikasteko interesa dauka.
9.4. Jakin-mina dauka atzerriko hizkuntza batean edo berea ez bezalako batean hitz egiten dutenekiko.

**10. Literatura-testua plazer-iturritzat erabiltzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.**

10.1. Eskolako liburutegia eta mediateka erabiltzen hasi da.
10.2. Testuari buruzko iritzia ahoz eta modu errazean adierazten du, lagunduta eta hizkuntzaz kanpoko elementuen laguntzaz, hala behar izanez gero.
10.3. Liburutegian irakurtzea sustatzeko egiten diren jardueretan parte hartzen du.
10.4. Gelako liburutegia erabiltzeko arauak betetzen ditu, eta hura zaintzen eta erabiltzeko moduan mantentzen laguntzen du.

**11. Ikasten ikasteko estrategia nagusiak erabiltzea, eta hobeto ikasteko alderdi batzuk identifikatzea.**

11.1. Irudiak eta keinuak erabiliz bere burua ulertaraztea eta besteak ulertzea.
11.2. Laguntza eta azalpenak eskatzen ditu.
11.3. Hiztegi irudidunak erabiltzen ditu, zalantzak argitzeko eta hitzen esanahiak bilatzeko.
11.4. Egin dituen aurrerapenen balorazio oinarrizkoak egiten ditu.
11.5. Akatsak egitea ikaste-prozesuaren zati dela onartzen du.

**12. Lagunduta, gogoz parte hartzea norberaren ikaskuntza ebaluatzeko jardueretan.**

12.1. Irakasleak lagunduta, autoerregulazioko zenbait estrategia erabiltzeari ekin dio.

## BIGARREN ZIKLOA

## EDUKIAK

### *1. multzoa. Entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea*

- Eskola barruko harremanetan edota eguneroko bizitzako egoera simulatuetan erabiltzen diren ahozko testu erraz batzuk ulertzea, mota guztietako euskarri bisualak erabiliz: informazioak, azalpenak, iritzi-testuak, jarraibideak, esperientzien eta bizipenen kontakizuna.
- Ikus-entzunezko komunikabideetako edo Interneteko ahozko testu erraz eta argien ideia orokorra ulertzea: haurrentzako egokiak diren filmak eta erreportajeak.
- Ahozko testu labur eta erraz batzuk ulertzea, euskarri bisualekin, ikasteko eta informazeko: jarduera erregulatzeko jarraibideak, deskribapenak eta gelako azalpenak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea.
- Hipotesiak egitea, ikusizko eta hitzik gabeko testuinguruaz eta gaiari edo egoerari buruz ikasleak lehendik dakienaz baliatuz.
- Gaia identifikatzea.

- Hitz eta esaera ezagun batzuk identifikatzea ahozko testuetan.
- Ahozko diskurtsoak ulertzerakoan sortzen diren zalantzak argitzeko estrategia sinpleak erabiltzea.
- Gogotsu, lagunduz eta errespetuz parte hartzea hizkuntza-harremanetan, egoera erreal edo simulatuetan, hitzezko erantzunak eta hitzezkoak ez direnak emanez eta lagunduta.
- Ahozko elkarrekintzako gizarte- eta komunikazio-arauak betetzea: arreta, itxarotea, txandak, gizalegezko arauak, jarrerak eta keinuak.
- Talde txikietan lantzen diren ahozko testu errazen edukiaren eta formaren plangintzan parte hartzea, lagunduta.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiliz ulertzea ahozko testuak.
- Proposatutako komunikazio-egoeren oinarrizko ezaugarri batzuk.
- Landutako ahozko testu-generoen oinarrizko ezaugarri zenbait: solaskideak, komunikazioaren helburua.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.

***2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea***

- Informazio garrantzitsua ulertzea, gizartean komunikatzeko erabiltzen diren eta ikasleen hizkuntza-gaitasunei egokitzen zaizkien testuetan: mezu laburrak, jarduera-egitarauak, gonbidapenak, zoriontzeko oharrak, bestelako oharrak, abisuak, araudiak...
- Gizarte-komunikabideetako testuak, haurrei eta gazteei zuzendutakoak, ulertzea. Testuek gai ezagunak jorratu behar dituzte, eta ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutakoak izan behar dute: albisteak, elkarrizketak, informazio-artikuluak.
- Esparru akademikoko testuak ulertzea, ikasteko eta informazioa eskuratzeko. Testuek gai ezagun bat jorratu behar dute, eta ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutakoak izan.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea eta horiek transferitzea:
- Testuinguru bisualeko elementuak erabiltzea eta aurretiazko jakintza aktibatzea.
- Hipotesiak egitea eta horiek egiaztatzea.
- Testuaren gaia eta zentzu orokorra identifikatzea.
- Ideia nagusia identifikatzea.
- Informazio garrantzitsua identifikatzea.
- Hiztegiak erabiltzea.
- Lagunduta, informazio zehatza bilatzea eta hautatzea, elementu linguistikoak eta ez-linguistikoak erabilita (testuen banaketa, tipografia...), informazio hori aurkitzeko.
- Kontrol-estrategiak erabiltzea, idatzizko testuak ulertzeko: iragartzea, egiaztatzea, zalantzak argitzea eta norberak dituen ulermen-arazo zenbait identifikatzea.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea.
- Beste hizkuntzek testuak sortzeko dauzkaten estrategia nagusiak erabiltzea –hartzailea aukeratzea, helburua, plangintza, zirriborroa egitea, testua berrikustea eta azken bertsioa-, ereduetatik abiatuz.
- Lagunduta, testu errazak, pertsonen arteko harremanetan erabiltzen direnak, sortzea (gonbidapenak, oharrak, abisuak, etab.).
- Lagunduta, gizarte-hedabideen esparruko testu errazak, gertakari garrantzitsuei buruzkoak, sortzea: albisteak, elkarrizketak.
- Lagunduta, eskolan erabiltzen eta gai ezagunekoak diren testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdera-sortak, inkestak, krokisak, deskribapenak).

- Jarraibideak betez, testuak sortzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea hizkuntzen artean: komunikazio-jarduera bere testuinguruan jartzea, testuaren plangintza, testuaren barruko kokapena, berrikustea eta nork berea zuzentzea.
- Zenbait testu-generotako testu-ereduak aztertzea eta birsortzea, lagunduta.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, testuak eta aurkezpenak egiteko.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarri nagusiak.
- Landutako ahozko testu-generoen zenbait oinarrizko ezaugarri ezagutzea.
- Idazketaren oinarrizko konbentzioak: alfabetoa, landutako lexikoaren ortografia, zenbait puntuazio-zeinu eta maiuskularen berariazko erabilerak.
- Idatzizko testuen txukuntasun eta aurkezpenarekiko interesa.
- Idatzizko testuen bidez informatzeko, komunikatzeko eta ikasteko interesa.
- Norberak idatzitakoa berrikusteak duen garrantziaz ohartzea, sorkuntza hobetzeko.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuan, dituen aukeren arabera.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuan.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Aho-tradiziotik eta haur-literaturatik ziklora moldatutako literatura-testuak ulertuz irakurtzea, banaka eta taldean, eta hainbat euskarritan.
- Gelako liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea, irakurtzeko ohitura hartzeko.
- Irakurritako literatura-testuei buruzko iritzia ahoz adieraztea, hizkuntzaz kanpoko laguntza-elementuak erabiliz, hala behar izanez gero.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.
- Eredu bati jarraituz eta laguntzarekin, literatura-testu xumeak birsortzea eta idaztea.
- Landutako testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Literatura-testua plazer-iturritzat hartzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuan, komunikatzeko dituen aukeren arabera.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, egiturak, esapide arruntak eta egindako esaldiak, komunikazio-egoeretan gehien betetzen diren funtzioei dagozkienak, erabiltzea.
- Landutako testuetako testuinguru, testu eta esaldietako oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Oinarrizko ortografia-arau batzuk ezagutzea eta horiek aplikatzea, lagunduta, norberaren testuetan.
- Testuinguruaren, testuen edo esaldien hizkuntza-markak identifikatzea, landutako testuetan.
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea.
- Hizkuntza desberdinetan helburu berdinarekin erabiltzen diren prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Buruz ikastea, hitzak eta esaldiak keinuekin eta irudiekin lotzea, ereduak ikustea, testuak irakurtzea eta multimedia-euskarriak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, hizkuntzaren hiztegi, forma eta egitura berriak ikasteko.

- Akats oinarrizkoak identifikatzea eta, lagunduta, horiek zuzentzea, hizkuntzaren plano guztietan, norberaren testuetan.
- Hizkuntzek komunean duten terminologia erabiltzea, jarduerak egiteko beharrezkoa den heinean.
- Curriculumeko hizkuntzan ikasitakoa erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko gogoeta egitea bultzatzeko.
- Gogoeta egitea norberaren ikasketaz, lana antolatzeaz, akatsa prozesu horren partetzat hartzeaz, eta nork bere burua zuzentzeaz eta ebaluatzeaz.
- Gogoz parte hartzea norberak eta beste pertsona batzuek talde txikietan egindako sorkuntza-lanak berrikusteko eta hobetzeko jardueretan, aurrez behar duen informazioa izango duela bermatuta, betiere.
- Ikasteko baliabideak (esaterako, hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak) antolatzea eta lagunduta erabiltzea.
- Ohiko komunikazio-egoera arruntei eta horien hizkuntza-adierazpenari lotutako funtzioak (formulak, esapideak, esamoldeak), komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Testua: osagai grafikoak, ikonikoak eta espazialak.
- Idazketaren konbentzioak: puntuazio-zeinu batzuk eta maiuskularen berariazko erabilerak.
- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, hainbat egoeratan atzerriko hizkuntza gero eta gehiago erabiltzeko interesa.
- Atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasunean sinestea eta talde-lanari balioa ematea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, atzerriko hizkuntzako gizarte-harremanetako oinarrizko arau batzuk ezagutzea eta erabiltzea, gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartuta.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako eguneroko bizitzako ohituraren bat eta gizarte-harremanetako forma nagusiak ezagutzea eta horiek norberaren hizkuntzakoekin erkatzea.
- Balioespena, interesa eta errespetua erakustea inguru eleanitz eta kulturanitzaren aurrean, eta ikaslea bera ere eleanitza dela ohartzea.
- Hizkuntza desberdinak erabiltzea ontzat hartzea.
- Atzerriko hizkuntzak eta beste hizkuntzak beste herrialdeetako ikasleekin komunikatzeko eta harremanak izateko bidetzat hartzea, eta informazio berrietara iristeko aukeratzat, eta kultura eta bizimodu desberdinak eta aberasgarriak ezagutzeko tresnatzat.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko jendeaz eta kulturaz informatzeko interesa.
- Harkorrak izatea eta begi onez ikustea beste hizkuntza bat hitz egin eta kultura desberdina duen jendea, hizkuntzen eta kulturen aniztasuna altxor handitzat hartuz.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. **Ikasleak duen hizkuntza-gaitasunaren arabera, berorren inguruko gizarte-esparruetan eta eskolan erabilitako ahozko testu errazak, laburrak eta testuinguruan kokatutakoak, genero askotakoak, ulertzea, komunikaziorako mota guztietako euskarriak eta laguntzak erabiliz, eta testu horien ideia nagusiak eta informazio baliagarria ezagutzea, eta informazio horren ulermena beste egoera batzuetan aplikatzea.**

1.1. Gelan landutako ahozko testuen generoak identifikatzen ditu.
1.2. Ahozko testu baten ideia orokorra identifikatzen du, komunikazio-egoeran dauden eta hizkuntzakoak eta ez hizkuntzakoak diren osagaien laguntzarekin.

1.3. Gelan landutako gaiekin lotutako ahozko testu errazen eta laburren gaia identifikatzen du.
1.4. Emandako aginduei edo jarraibideei erantzunez jokatzen du, askotariko jarduerak egiteko, euskarri bisualak erabiliz, betiere.
1.5. Estrategia sinpleak erabiltzen ditu, testuak irakurtzerakoan zalantzak argitzeko.
1.6. Eskatzen zaionean, arreta jartzen du eta parte hartzen du.

**2. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, irakasleak zuzendutako hitzezko elkarrekintzatan parte hartzea gelan, talde txikietan. Elkarrekintza horiek eduki eta garapen ezaguna izan behar dute, eta gizartean komunikatzeko arauak bete behar dituzte.**

2.1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, berehalako komunikazio-beharrak adierazten ditu, lagunduta: eskaerak egitea, taldean lan egitea, azalpenak eskatzea...
2.2. Erraz ematen du bere buruari buruzko oinarrizko informazioa.
2.3. Gizartean komunikatzeko arauak aplikatzen ditu: arreta jartzen du, txanda itxaroten dio, errespetuz parte hartzen du eta gizalegezko arau batzuk betetzen ditu.
2.4. Elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan parte hartzen du, talde txikitan denean eta zeregina ulertzen duenean, betiere.

**3. Ikaslearen esperientziarekin eta eskola-bizitzarekin zuzenean lotuta dauden gizarte-esparruetako generoetan idatzitako testu errazak ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak betez.**

3.1. Idatzizko testu errazak ulertzen ditu, testu horiek gelan landutako gaiei buruzkoak izanik: moldatutako edo jatorrizko ipuinak eta olerkiak, errezetak, menuak, liburuxkak, publizitatea, arauak, mezu laburrak...
3.2. Testuaren generoa eta gaia identifikatzen ditu.
3.3. Gelan erabili ohi diren idatzizko testuen esanahi orokorra hartzen du.
3.4. Datu zehatzak identifikatzen eta erabiltzen ditu, hainbat jarduera osatzeko, banakako edo taldekako ikaste-ekintzatan.
3.5. Estrategia sinpleak erabiliz argitzen ditu ulermen-arazoak.

**4. Informazio esplizitua aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.**

4.1. Informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzarenak diren eta ez diren osagaiak erabiltzen ditu: irudiak, testuaren banaketa, letra-mota, aurkibideak...
4.2. Jarraibideak betez, informazio esplizitua hautatzen du, eskolako testuen irakurketa-helbururako adierazgarria den neurrian.
4.3. Estrategia sinpleak erabiltzen ditu, testuak irakurtzerakoan zalantzak argitzeko.

**5. Ereduak erabiliz, ikaslearen esperientziarekin eta eskola-bizitzarekin zuzenean lotuta dauden gizarte-esparruetako generoetako testu idatzi erraz eta laburrak sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, lagunduta: plangintza egitea, idaztea eta berrikustea.**

5.1. Ereduez lagunduta, testu xumeak idazten ditu gai ezagunei buruz, aurrez gidoia finkatu ondoren, paperean eta euskarri digitalean.
5.2. Eredu bati jarraituz, literatura-testu xumeak idazten eta berridazten ditu.
5.3. Kontsultako materiala erabiltzen du, paperean eta euskarri digitalean.

5.4. Sortze-lanetan eta berrikuspenean laguntzen du, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
5.5. Era argian eta txukunean aurkezten du testua.
5.6. Gelan landutako ortografia-arau batzuk aplikatzen ditu.
5.7. Gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen du gelako lanetan.

**6. Lagunduta, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez; erabilera horren xedea ikastea izanik.**

6.1. 6.1 Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu ikasteko, bere mailari egokitutako euskarriak erabilita.
6.2. 6.2 Oinarrizko programa informatiko hezitzaileak erabiltzen ditu, mezu xumeak irakurtzeko eta idazteko.
6.3. 6.3 Harreman pertsonalak egiteko, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu.

**7. Atzerriko hizkuntza hainbat jatorritako pertsonekin hitz egiteko eta elkar ulertzeko erabiltzea, eta hizkuntza hori ikasteko tresna gisa erabiltzea.**

7.1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, parte hartzen du gelako komunikazio-harremanetan.
7.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko tresna gisa erabiltzen du.
7.3. Inguruko hizkuntzen aniztasuna aberastasuntzat hartzen du.
7.4. Atzerriko hizkuntza ikasteko interesa dauka.
7.5. Jakin-mina eta errespetua adierazten ditu atzerriko hizkuntza batean edo berea ez bezalako batean hitz egiten dutenekiko.

**8. Atzerriko hizkuntza erabiliz beste errealitate eta kultura batzuk aurkitzea, eta beste kulturen ezaugarri, ohitura eta tradizioak identifikatzea, behar bezala ulertuz eta errespetatuz.**

8.1. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan dauden ezaugarri, ohitura eta tradizio batzuk identifikatzen ditu, lagunduta.
8.2. Kanpoko eta bertako gizarte eta kulturako elementu batzuk erlazionatzen ditu, kulturarteko kontzientzia garatzeko.
8.3. Desberdintasuna errespetatu, eta altxortzat hartzen du.

**9. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilera-arauei buruz gogoeta egitea (testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz), eta jakintza hori erabiltzea, komunikazioa hobetzeko.**

9.1. Testuak edo esaldiak osatzen eta eraldatzen ditu, emandako irizpideei jarraituz.
9.2. Ikasturtean landutako oinarrizko lexikoa ezagutzen eta erabiltzen du.
9.3. Jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen ditu, testuak ulertzeko eta sortzeko.
9.4. Komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen ditu landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
9.5. Laguntza-euskarriak erabiltzen ditu (aurrez emandako adibideak eta ereduak, bere hiztegia), sorrera-prozesuko zalantzak edo testuen berrikuspenekoak argitzeko.
9.6. Bere eta besteen testuetako oinarri-oinarrizko akatsak identifikatu eta zuzentzen ditu, jarraibideak betez.

**10. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi pertsonal batzuk identifikatzea.**

10.1. Irudiak eta keinuak erabiltzen ditu bere burua ulertarazteko eta besteak ulertzeko.
10.2. Laguntza eta azalpenak eskatzen ditu.
10.3. Hiztegi irudidun eta elebidunez gain, baliabide teknologiko xumeak erabiltzen ditu, zalantzak argitzeko eta informazioa bilatzeko.
10.4. Bere aurrerapenen balorazio xumeak egiten ditu, eta hobeto ikasteko lagungarri dituen estrategien adibideak jartzen ditu.
10.5. Gero eta hobeto identifikatzen eta zuzentzen ditu normalean egiten dituen akatsetako zenbait.
10.6. Akatsak egitea ikaste-prozesuaren zati dela onartzen du.

**11. Lagunduta, gogoz parte hartzea norberaren ikaskuntza ebaluatzeko jarduеretan.**

11.1. Ebaluazio-irizpideak zehazteko kontrol-zerrendak ezagutzen ditu, eta horiek erabiltzen hasi da.
11.2. Jarraibideak betez, berrikuspen-lanetan parte hartzen du, eta bere sormen-lanak hobetzen ari da.
11.3. Lagunduta, hizkuntzetako batean garatutako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta sortzeko.

**12. Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den eta komunikazio-egoera desberdinetan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea.**

12.1. Irakasleak hautatutako alderdi formal esanguratsu batzuk identifikatzen ditu, horiei buruz gogoeta egiten du, eta bere idatzizko lan lagunduetan aplikatzen ditu.
12.2. Ezagutzen dituen hizkuntzetako zenbait oinarrizko esapide nahiz lagunarteko zenbait esapide eta gehien erabiltzen diren hitzak elkarren artean erkatzen ditu.
12.3. Testu-generoen ezaugarriei buruz beste hizkuntzetan aurez ikasi duena erabiltzen du idatzizko bere lanetan.

**13. Literatura-testua plazer-iturritzat erabiltzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.**

13.1. Ikasleak bere adinera, interesetara eta komunikatzeko dituen aukeretara moldatutako literatura-lanak irakurtzen ditu (narrazioak eta olerkiak), eta bere irizpideak azaltzen hasia da, irakurgaiak hautatzerakoan.
13.2. Gelako liburutegiaren funtzionamendua ezagutzen du, eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzen du.
13.3. Testuari buruzko iritzia ahoz eta modu xumean adierazten du, lagunduta eta hizkuntzaz kanpoko elementuen laguntzaz, hala behar izanez gero.

## HIRUGARREN ZIKLOA

### EDUKIAK

#### *1. multzoa. Entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea*

- Gela barruko harremanetan edo eguneroko egoera simulatuetan erabiltzen diren testuak, zailtasunen arabera mailakatutakoak, ulertzea, askotariko euskarri bisualak erabiliz: informazioak, azalpenak, iritzi-testuak, jarraibideak, esperientzien eta bizipenen kontakizuna.
- Ikus-entzunezko komunikabideetako edo Interneteko ahozko testu erraz eta argiak ulertzea, zailtasunaren arabera mailakatuta: aurrentzako egokiak diren filmak eta erreportajeak.
- Euskarri bisualak erabiliz, gero eta zailtasun handiagoko ahozko testuak ulertzea, ikasteko eta informatzeko: jarduera arautzeko jarraibideak, deskribapenak eta gelako azalpenak.
- Ahozko testuak ulertzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea:
- Hipotesiak egitea, ikusizko eta hitzik gabeko testuinguruaz eta gaiari edo egoerari buruz ikasleak lehendik dakienaz baliatuz.
- Testuaren gaia eta zentzu orokorra identifikatzea.
- Ideia nagusia identifikatzea.
- Funtsezko informazioa eta funtsezkoa ez dena bereiztea.
- Faltsuak eta zentzugabeak diren elementuak identifikatzea.
- Ahozko testuak ulertzeko, zalantzak argitzeko estrategiak erabiltzea.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea hizkuntza-harremanetan, egoera erreal edo simulatuetan, gero eta era autonomoagoan.
- Ahozko elkarrekintzako gizarte- eta komunikazio-arauak betetzea: arreta, kontzentratzea, itxarotea, txandak, gizalegezko arauak, ahots-tonua, jarrerak eta keinuak.
- Talde txikietan lantzen diren eta gero eta zailtasun handiagoa duten ahozko testuen edukiaren eta formaren plangintzan parte hartzea, lagunduta.
- Hizkuntzak ikasteko estrategiak erabiliz ulertzea ahozko testuak.
- Eskainitako komunikazio-egoeren oinarrizko ezaugarriak.
- Landutako ahozko testu-generoen oinarrizko ezaugarriak: solaskideak eta komunikazioaren helburua.
- Ahozko harreman-arauei balioa ematea eta errespetatzea.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.

#### *2. multzoa. Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea*

- Informazio garrantzitsua ulertzea, gizartean komunikatzeko erabiltzen diren eta ikasleen hizkuntza-gaitasunei egokitzen zaizkien testuetan: gero eta zailtasun handiagoko mezuak, arauak, ekitaldien programa, deialdiak, laneko planak edo araudiak.
- Gizarte-komunikabideetako testuak, haurrei eta gazteei zuzendutakoak, ulertzea. Testuek gai ezagunak jorratu behar dituzte, eta ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutakoak izan behar dute: albisteak, elkarrizketak, informazio-artikuluak...
- Esparru akademikoko testuak, ikasleen hizkuntza-gaitasunera egokitutakoak, ulertzea, ikasteko eta informazioa eskuratzeko.
- Irakurritakoa ulertzeko estrategiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea eta horiek transferitzea:
- Testuinguru bisualeko elementuak erabiltzea eta aurretiazko jakintza aktibatzea.
- Hipotesiak egitea eta horiek egiaztatzea.
- Testuaren gaia eta zentzu orokorra identifikatzea.

- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideia batzuk identifikatzea.
- Funtsezko informazioa eta funtsezkoa ez dena bereiztea.
- Gezurra edo zentzugabea dena identifikatzea.
- Hiztegiak eta kontsultarako beste bitarteko batzuk erabiltzea.
- Informazio zehatza bilatzea eta hautatzea, elementu linguistikoak eta ez-linguistikoak erabilita (testuen banaketa, aurkibideak, etab.), informazio hori aurkitzeko.
- Kontrol-estrategiak erabiltzea, idatzizko testuak ulertzeko: iragartzea, egiaztatzea, ondorioztatzea, zalantzak argitzea eta norberak dauzkan ulermen-arazoak identifikatzea.
- Liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea.
- Beste hizkuntzek testuak sortzeko dauzkaten estrategia nagusiak erabiltzea –hartzailea aukeratzea, helburua, plangintza, zirriborroa egitea, testua berrikustea eta azken bertsioa-, ereduetatik abiatuz.
- Lagunduta, pertsonen arteko harremanen esparruko testuak, gero eta luzeagoak, egitea (gonbidapenak, oharrak, abisuak, etab.), eta gero eta lexiko eta egitura aberatsagoak erabiltzea.
- Lagunduta, gizarte-hedabideen esparruko testuak, gertakari garrantzitsuei buruzkoak, sortzea: albisteak eta elkarrizketak; gero eta luzeagoak izango dira, eta gero eta lexiko eta egitura aberatsagoak erabiliko dituzte.
- Lagunduta, eskolan erabili ohi diren testuak sortzea, informazioa lortzeko, antolatzeko eta komunikatzeko (galdera-sortak, inkestak, laburpenak, eskemak, txostenak, deskribapenak, azalpenak). Testuek gero eta luzeagoak eta gero eta lexiko eta egitura aberatsagokoak izan behar dute.
- Testuak sortzeko estrategiak erabiltzea eta horien transferentzia egitea: komunikazio-jarduera bere testuinguruan jartzea, testuaren plangintza, testuaren barruko kokapena, berrikustea eta nork berea zuzentzea, hainbat iturri erabiliz...
- Testu-generoetako ereduak aztertzea eta birsortzea.
- Kideen arteko elkarrizketa erabiltzea, denen artean testuak sortzeko.
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, testuak eta aurkezpenak egiteko eta, beraz, informazioa transmititzeko.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarri nagusiak.
- Landutako testu-generoen zenbait ezaugarri oinarrizko.
- Idazketaren konbentzioak: landutako hiztegiaren ortografia, puntuazio-zeinuak.
- Idatzizko testuen txukuntasun eta aurkezpenarekiko interesa.
- Idatzizko testuen bidez informatzeko, komunikatzeko eta ikasteko interesa.
- Norberak idatzitakoa berrikusteak duen garrantziaz ohartzea, sorkuntza hobetzeko.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuan.
- Atzerriko hizkuntza erabiltzeko jarrera ona, hainbat helbururekin eta komunikazio-egoera desberdinetan.

***3. multzoa. Literatura-hezkuntza***

- Aho-tradiziotik eta haur-literaturatik moldatutako literatura-testuak ulertuz irakurtzea, banaka, hainbat euskarritan.
- Gelako liburutegia, bideoteka eta Internet erabiltzea, eta testuak gero eta autonomia handiagoz hautatzea, irakurtzeko ohitura garatzeko.
- Aurrez planifikatuta, irakurritako literatura-testuei buruzko iritziak sortzea, hizkuntzaz kanpoko elementuak erabiliz eta horien laguntzaz.
- Literatura-jardueretan parte hartzea, gelan eta eskolan.

- Eredu bati jarraituz eta laguntzarekin, literatura-testu xumeak idaztea, adibidez, komikiak, olerki txikiak eta antzezlan eta ipuin laburrak.
- Literaturaren generoak: narratiboa, dramatikoa eta lirikoa.
- Literatura-hizkuntzaren ezaugarri nagusiak.
- Literatura-testua plazer-iturritzat hartzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.
- Gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartzea ikaskuntza partekatuan, komunikatzeko dituen aukeren arabera.

***4. multzoa. Hizkuntzari buruzko gogoeta***

- Landutako testuen hizkuntza-formen esanahia eta erabilera aztertzea eta horri buruzko gogoeta egitea.
- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, egitura, esapideak eta esaerak, hainbat komunikazio-egoeretan gehien betetzen diren funtzioei dagozkienak, erabiltzea eta erabilera hori finkatzea.
- Landutako testuetako testuinguru, testu eta esaldietako oinarrizko hizkuntza-elementuak erabiltzea eta erabilera hori finkatzea, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
- Oinarrizko ortografia-arauak ezagutzea eta horiek aplikatzea, lagunduta, norberaren testuetan.
- Testuinguruaren, testuen edo esaldien hizkuntza-markak identifikatzea landutako testuetan. .
- Emandako irizpideei jarraiki, komunikazio-unitateak (testuak, esaldiak, hitzak...) konparatzea, sailkatzea eta aldatzea, eta ondorioak ateratzea.
- Hizkuntza desberdinetan helburu berdinarekin erabiltzen diren prozedura linguistiko batzuk konparatzea.
- Buruz ikastea, hitzak eta esaldiak keinuekin eta irudiekin lotzea, ereduak ikustea, testuak irakurtzea eta multimedia-euskarriak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, hizkuntzaren hiztegi, forma eta egitura berriak ikasteko.
- Akats oinarrizkoak identifikatzea eta, lagunduta, horiek zuzentzea, hizkuntzaren plano guztietan, bai norberaren testuetan, bai beste pertsona batzuen testuetan. Hizkuntzek komunean duten terminologia erabiltzea, jarduerak egiteko beharrezkoa den heinean.
- Curriculumeko hizkuntzan ikasitakoa erabiltzea, atzerriko hizkuntzan hizkuntzari buruzko gogoeta egitea bultzatzeko.
- Gogoeta egitea norberaren ikasketaz, lana antolatzeaz, akatsa prozesu horren partetzat hartzeaz, eta nork bere burua zuzentzeaz eta ebaluatzeaz.
- Gogoz parte hartzea norberak eta beste pertsona batzuek talde txikietan egindako sorkuntza-lanak berrikusten eta hobetzen, aurrez behar duen informazioa izango duela bermatuta, betiere.
- IKTak gero eta gehiago erabiltzea atzerriko hizkuntzako eta beste hizkuntza batzuetako kontsulta- eta informazio-iturri moduan.
- Ikasteko baliabideak (esaterako, hiztegiak eta zuzentzaile ortografikoak) antolatzea eta gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- Ikasitakoa gordetzeko eta berrikusteko zenbait bitarteko erabiltzea, gero eta autonomia handiagoz.
- Idatzizko komunikazioaren ezaugarri nagusiak.
- Komunikazio-egoerei eta horien hizkuntza-adierazpenari lotutako funtzioak (formulak, esapideak, esamoldeak).
- Testua: osagai grafikoak, ikonikoak eta espazialak; kohesiorako osagai batzuk.

- Esaldia eta hitza: oinarrizko lexikoa, esaldiaren eta hitzaren ortografia, hitzaren morfologia eta kategoria gramatikal batzuk.
- Idazketaren konbentzioak: landutako hiztegiaren ortografia, puntuazio-zeinuak.
- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, hainbat egoeratan atzerriko hizkuntza zuzen eta gero eta gehiago erabiltzeko interesa.
- Atzerriko hizkuntza ikasteko gaitasunean sinestea eta talde-lanari balioa ematea.

***5. multzoa. Hizkuntzaren dimentsio soziala***

- Komunikatzeko dituen aukeren arabera, atzerriko hizkuntzan komunikatzerakoan gizarte-harremanetako oinarrizko arau batzuk ezagutzea eta erabiltzea, gogoz, lagunduz eta errespetuz parte hartuta.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan dauden eguneroko ohiturak eta gizarte-harremanetako forma nagusiak ezagutzea, eta horiek norberaren herrialdekoekin erkatzea.
- Balioespena, interesa eta errespetua erakustea inguru eleanitz eta kulturanitzaren aurrean, eta ikaslea bera ere eleanitza dela ohartzea.
- Hizkuntza desberdinak erabiltzea ontzat hartzea.
- Atzerriko hizkuntzak eta beste hizkuntzak beste herrialdeetako ikasleekin komunikatzeko eta harremanak izateko bidetzat hartzea, eta informazio berrietara iristeko aukeratzat, eta kultura eta bizimodu desberdinak eta aberasgarriak ezagutzeko tresnatzat.
- Atzerriko hizkuntzaren herrialdeko jendeaz eta kulturaz informatzeko interesa.
- Harkorrak izatea eta begi onez ikustea beste hizkuntza bat hitz egin eta kultura desberdina duen jendea, hizkuntzen eta kulturen aniztasuna altxor handitzat hartuz.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

**1. Ikasleak duen hizkuntza-gaitasunaren arabera, berorren inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako ahozko testu errazak, laburrak eta testuinguruan kokatutakoak, genero askotakoak, ulertzea, komunikaziorako mota guztietako euskarriak eta laguntzak erabiliz, eta testu horien ideia nagusiak ezagutzea, informazio baliagarria hautatzea, eta informazio horren ulermena beste egoera batzuetan aplikatzea.**

1.1. Duen hizkuntza-gaitasunaren arabera, ahozko testuen ohiko generoak identifikatzen ditu.
1.2. Gaia eta igorlearen helburua identifikatzen ditu.
1.3.
1.4. Gelan landutako gaiekin lotutako ahozko testu errazen eta laburren gaia identifikatzen du.
1.5. Emandako aginduei edo jarraibideei erantzunez jokatzen du, askotariko jarduerak egiteko, euskarri bisualak erabiliz, betiere.
1.6. Eskatzen zaionean, arreta jartzen du eta parte hartzen du.

**2. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatziak, genero askotakoak, ulertzea, eta testu horien zentzu orokorrak hartzea, aurrez emandako analisi-jarraibideak erabilita.**

2.1. Ezagutzen dituen gaiei buruzko idatzizko testuak ulertzen ditu: errezetak, liburuxkak, publizitatea, arauak, gutunak...
2.2. Testuaren generoa eta gaia bereizten ditu.
2.3. Testuaren esanahi orokorra hartzen du.
2.4. Testuaren ideia nagusi batzuk laburtzen ditu.

2.5. Emandako jarraibideak betez, kontzeptuzko eskema eta mapa sinpleak osatzen ditu, testuko ideia nagusiak erabilita.
2.6. Estrategia egokiak erabiliz argitzen ditu ulermen-arazoak.
2.7. Ikasleak bere ideiekin erlazionatzen ditu eduki berriak, eta edukiaren alderdi zehatzei buruzko iritzia modu sinplean ematen du.

**3. Informazio garrantzitsua aurkitzea eta aukeratzea, irakurketaren helburuari erantzunez.**

3.1. Irakurketaren helburua zein den badaki, eta helburu bakoitzaren araberako estrategia egokiak erabiltzen ditu.
3.2. Informazio-iturri analogiko eta digitalak erabiltzen ditu, laguntzarekin, irakurketaren helburuari erantzuteko.
3.3. Informazioa aurkitzeko orduan, hizkuntzarenak diren eta ez diren osagaiak erabiltzen ditu: testuaren banaketa, letra-mota, aurkibideak...
3.4. Eskolako testuetan, irakurketaren xedeari funtsezkoa zaion informazioa hautatzen du, eta datuak erregistratzeko bitartekoen bidez biltzen du(taulak, eskemak, galdetegiak...).
3.5. Estrategia sinpleak erabiltzen ditu, testuak irakurtzerakoan zalantzak argitzeko.

**4. Ikasleak duen hizkuntza-gaitasunaren arabera eta komunikaziorako mota guztietako euskarriak eta laguntzak erabiliz, ezagutzen dituen gaiei buruzko ahozko elkarrekintzatan parte hartzea gelan, modu egokian eta gizartean komunikatzeko arauak errespetatuz.**

4.1. Komunikatzeko dituen aukeren arabera, berehalako komunikazio-beharrak adierazten ditu lagunduta; besteak beste, eskaerak egiten ditu.
4.2. Erraz ematen du bere buruari buruzko oinarrizko informazioa.
4.3. Gizartean komunikatzeko arauak aplikatzen ditu: txanda itxaroten dio, errespetuz parte hartzen du, solaskideak esandakoaren arabera hitz egiten du, eta gizalegezko arau batzuk betetzen ditu.
4.4. Elkarrekiko lankidetzan eta ikaskuntzan parte hartzen du, talde txikietan denean eta zeregina ulertzen duenean, betiere.

**5. Ikaslearen inguruko gizarte-esparruetan eta eskola-esparruan erabilitako testu idatzi errazak, genero askotakoak, sortzea, testuak sortzeko prozesuko urratsak eginez, lagunduta: plangintza egitea, testua idaztea eta hura berrikustea, betiere, lan horietan egokitasun-, zuzentasun- eta kohesio-maila onargarria erakutsiz.**

5.1. Ereduez lagunduta, testu xumeak idazten ditu gai ezagunei buruz, aurrez gidoia finkatu ondoren, paperean eta euskarri digitalean.
5.2. Komunikazio-egoera bakoitzaren oinarrizko ezaugarrietara moldatzen ditu bere sorkuntzak, kontuan hartuz alderdi formal nagusiak.
5.3. Eredu bati jarraituz, literatura-testu xumeak idazten eta birsortzen ditu, komikiak, esaterako.
5.4. Paperean eta euskarri digitalean dagoen kontsulta-materiala erabiltzen du zalantzak argitzeko eta hipotesiak baieztatzeko.
5.5. Sortze-lanetan eta berrikuspenean laguntzen du, komunikatzeko dituen aukeren arabera.
5.6. Oinarrizko zenbait kohesio-prozedura erabiltzen du, testuko ideiak eta zatiak lotzeko.
5.7. Gelan landutako gramatikako eta ortografiako arau batzuk aplikatzen ditu.
5.8. Era argian eta txukunean aurkezten du testua.
5.9. Gogoz eta ekarpen eraikitzaileak eginez parte hartzen du gelako lanetan.

**6. Atzerriko hizkuntza hainbat jatorritako pertsonekin hitz egiteko eta elkar ulertzeko erabiltzea, eta hizkuntza hori ikasteko tresna gisa erabiltzea.**

6.1. Gogotsu hartzen du parte gelako komunikazio-harremanean.
6.2. Atzerriko hizkuntza ikasteko tresna gisa erabiltzen du.
6.3. Atzerriko hizkuntza erabiltzen du jendarteko harremanak finkatzeko eta eskolen arteko postaren bidez proiektuetan aritzeko, bai ahoz bai idatziz, teknologia berriak erabiliz.
6.4. Inguruko hizkuntzen aniztasuna aberastasuntzat hartzen du.
6.5. Atzerriko hizkuntza ikasteko interesa dauka.

**7. Atzerriko hizkuntza erabiliz beste errealitate eta kultura batzuk aurkitzea, eta beste kulturen ezaugarri, ohitura eta tradizioak identifikatzea, behar bezala ulertuz eta errespetatuz.**

7.1. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetan dauden ezaugarri, ohitura eta tradizio batzuk identifikatzen ditu.
7.2. Kanpoko eta bertako gizarte eta kulturako elementuak erlazionatzen ditu, kulturarteko kontzientzia garatzeko.
7.3. Desberdintasuna errespetatu, eta altxortzat hartzen du.

**8. Lagunduta, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, informazioa bilatu, hautatu, prozesatu eta komunikatzeko, ereduetan oinarritutako testuak sortzeko eta posta elektronikoaren bidez eta komunikazio-ingurune birtualen bidez harreman pertsonalak egiteko, tresna horiek erabiltzeko interesa adieraziz.**

8.1. Informazio-bilaketak eta –hautaketak egiten ditu, bilatzaileak jarraibideen arabera erabiliz eta aurrez adierazitako webguneetara sartuz.
8.2. Testu-prozesadoreen oinarrizko funtzioak erabiltzen ditu testuak editatzeko eta zuzentzeko.
8.3. Behar bezala antolatuta eta argitasunez aurkezten ditu eskola-jardueretan landutako informazio errazak, informazio- eta komunikazio-bitarteko eta -teknologiak lagunduta erabiliz.
8.4. Harreman pertsonalak egiteko informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu.

**9. Hizkuntzen sistemari buruz eta erabilera-arauei buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta jakintza hori erabiltzea, ulermen-arazoak konpontzeko eta testuak sortzeko eta lagunduta berrikusteko.**

9.1. Egoki eta zuzen osatzen eta aldatzen ditu testuak eta esaldiak, aurrez emandako irizpideei jarraituz.
9.2. Ikasturtean landutako oinarrizko terminologia ezagutzen eta erabiltzen du.
9.3. Jarraibideak emanda, hizkuntzei buruzko jakintza eta landutako ortografia-arauak aplikatzen ditu, testuak ulertzeko eta sortzeko.
9.4. Komunikazio-egoera zehatzetan erabiltzen ditu landutako hizkuntza-formulak: gizalegezkoak, adostasunezkoak, eskaerakoak, ezezkoak...
9.5. Laguntza-euskarriak erabiltzen ditu (hiztegia, zuzentzaile ortografikoa...), testua sortzerakoan zalantzak argitzeko.
9.6. Ikasleak bere testuetako oinarri-oinarrizko akatsak identifikatzen eta zuzentzen ditu, jarraibideak erabilita.

**10. Atzerriko hizkuntza nola erabiltzen den eta komunikazio-egoera desberdinetan beste hizkuntzekin duen harremana ikusiz eta gogoeta eginez, ikasitakoa erabiltzea.**

10.1. Irakasleak hautatutako alderdi formal esanguratsu batzuk identifikatzen ditu, horiei buruz gogoeta egiten du, eta bere ahozko eta idatzizko lan lagunduetan aplikatzen ditu.
10.2. Ezagutzen dituen hizkuntzetako oinarrizko zenbait esapide nahiz lagunarteko zenbait esapide eta gehien erabiltzen diren hitzak elkarren artean erkatzen ditu.
10.3. Testu-moten ezaugarriei buruz beste hizkuntzetan ikasi duena erabiltzen du ahozko eta idatzizko lanetan.

**11. Literatura-testua plazer-iturritzat hartzea, kulturak hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.**

11.1. Ikasleak bere adinera, interesetara eta komunikatzeko dituen aukeretara moldatutako literatura-lanak irakurtzen ditu, eta bere irizpideak azaltzen ditu, irakurgaiak hautatzerakoan.
11.2. Liburutegia, mediateka eta Internet erabiltzen ditu.
11.3. Testuari buruz duen iritzia idatziz eta modu xumean adierazten du, lagunduta eta hizkuntzaz kanpoko elementuen laguntzaz, hala behar izanez gero.

**12. Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasi ahal izateko alderdi batzuk identifikatzea.**

12.1. Irudiak eta keinuak erabiltzen ditu, bere burua ulertarazteko eta besteak ulertzeko.
12.2. Laguntza eta azalpenak eskatzen ditu.
12.3. Hiztegiak, kontsultarako materiala eta baliabide teknologiko xume batzuk erabiltzen ditu, zalantzak argitzeko eta informazioa bilatzeko eta antolatzeko.
12.4. Egin dituen aurrerapenak neurtzen ditu, eta hobeto ikasteko baliabide eta estrategia batzuk identifikatzen ditu.
12.5. Ikasleak bere kabuz erabiltzen ditu egunero bizitzako testuen egitura sinpleak, akatsik arruntenak pixkanaka zuzenduz.
12.6. Akatsak egitea ikaste-prozesuaren zati dela onartzen du.

**13. Laguntza emanda, norberaren eta gainerako ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioan parte hartzea (autoebaluazioa, koebaluazioa), jarrera gogotsua erakutsiz.**

13.1. Ebaluazio-irizpideak zehazteko kontrol-zerrenda errazak ezagutzen eta erabiltzen ditu.
13.2. Badaki zer ikasketa-helburu eta ebaluazio-irizpide finkatu diren.
13.3. Jarraibideak emanda, norberaren nahiz besteen sorkuntza lanak berrikusteko eta hobetzeko lanetan parte hartzen du (autoebaluazioa eta talde-ebaluazioa), eta gainerako pertsonek egindako ekarpenak balioesten ditu.
13.4. Lagunduta, hizkuntzetako batean garatutako autoerregulazio-estrategiak erabiltzen ditu, beste hizkuntzetan landutako testuak ulertzeko eta idazteko.